

# **URRETXUKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA**

## **PLANGINTZA-AURRERAKINA**

2018KO APIRILA



## TALDE IDAZLARIA:

### ZUZENDARITZA:

Santiago Peñalba Garmendia, arkitektoa  
Manu Arruabarrena Florez, arkitektoa  
Mikel Iriondo Iturrioz, abokatua

### IDAZLARIAK:

Santiago Peñalba Garmendia, arkitektoa  
Manu Arruabarrena Florez, arkitektoa  
Mikel Iriondo Iturrioz, abokatua  
Carmen Segurola Lázaro, geografoa

### KOLABORATZAILEAK:

Endara Ingenieros Asociados, S.L.  
- Igor Martín Molina, BUPetako ingeniaria  
- Garo Azkue San Emeterio, BUPetako ingeniaria  
Iñigo Peñalba Arribas, arkitektoa  
Madalen Gonzalez Bereziartua, arkitektoa  
Juan Ignacio Cortés Arzallus, delineazioa eta edizioa  
Maria Jose Fernandez Calonge, delineazioa eta edizioa

### GAINBEGIRATZE TEKNIKOA ETA UDAL-INFORMAZIOA

Maria José Begiristain Zabalo, udal-idazkaria.  
Iñaki Mendizabal, udal-arkitektoa.  
Udal Zerbitzuak, oro har.



**MEMORIA**

I.-	<u>SARRERA</u>	1
I.1.	Xedea.....	1
I.2.	Lurralde-eremua.....	1
I.3.	Aurrekariak. 1	
I.4.	Indarreko lege-esparrua.....	2
I.5.	Plangintza-irudiaren hautaketa.....	5
I.6.	Informazio eta Diagnostikoko dokumentuaren edukia.....	5
II.-	<u>DIAGNOSTIKOA</u> .....	6
II.1.	Diagnostiko sozioekonomikoa.....	7
II.2.	Diagnostiko juridiko-urbanistikoa.....	9
II.3.-	Ingurune fisikoari buruzko diagnostikoa.....	10
II.4.-	Urola ibaiak uholdeen aurrean duen portaerari buruzko diagnostikoa.....	13
II.5.-	Mugikortasunari buruzko diagnostikoa.....	13
II.6.-	Etxebizitzari buruzko diagnostikoa.....	14
II.7.-	Ekipamendu eta espazio libreei buruzko diagnostikoa.....	15
II.8.-	Zerbitzu-azpiegiturei buruzko diagnostikoa.....	16
II.9.-	Diagnostiko-sintesia.....	17
III.-	<u>AURRERAKINAREN KOMENIGARRITASUNAREN ETA AUKERAREN JUSTIFIKAZIOA</u>	19
IV.-	<u>ANTOLAMENDU-PROPOSAMENA</u> .....	19
IV.1.	Proposamena egiteko oinarriak.....	19
IV.2.	Proposatuko den bizitegi-lurzoru eskaintzaren norainokoa.....	20
IV.3.-	Proposatuko diren ekonomia-jardueretarako lurzoru-eskaintzaren norainokoa.....	23
IV.4.-	Antolamendu-irizpideak eta -helburuak.....	24
IV.5.-	Landa-ingurunearen antolamendurako hurbilketa.....	28
IV.6.-	Hirigunea antolatzeko alternatibak.....	40
IV.7.-	Proiektua garatzeko eta egikaritzeko proposamenen aurrerakina.....	61
IV.8.-	Ondarea babesteko proposamenen aurrerakina.....	61
IV.9.-	Beste ikuspegi batzuk.....	64
IV.10.-	Proposatutako esku-hartzeen programazio- eta bideragarritasun-irizpideak.....	65
IV.11-	Aurrerakinaren edukiaren laburpena.....	66
IV.12-	Antolamenduaren ezaugarrien taula.....	70

**PLANOAK**I.- INFORMAZIOAII.- ANTOLAMENDU-ALTERNATIBAK



## MEMORIA





## I.- **SARRERA.**

### I.1.- **Xedea**

Urretxuko udalak 2012an onartutako udal-plangintzako Arau Subsidiarioen (aurrerantzean Arau Subsidiarioak) testu bategina berrikusteko lanei ekitea eta Hiri Antolamenduko Plan Orokor (aurrerantzean HAPO) bihurtzea erabaki du, aplikazioko lurzoru eta hirigintzaren legeria berrira egokituta.

Xede horrekin, 2017ko abenduaren 20an izenpetutako kontratuaren arabera, dokumentu hau izenpetzen dugun profesionaloi eskatu digu lan hori egiteko: Santiago Peñalba Garmendia eta Manu Arruabarrena Florez, arkitektoak, eta Mikel Iriondo Iturrioz, abokatuak.

Dokumentu hau indarrean dagoen udal-plangintza orokorra berrikusteko prozesu horren esparruan idatzi da eta bat dator bildutako informazioa eta egindako diagnostikoa, horiek udalarekin alderatzea eta antolamenduko alternatiba desberdinen azterketa kontuan hartuz egindako PLANGINTZA-AURRERAKINAREKIN.

Hala, dokumentuak hiri-antolamenduko hainbat alternatiba eskaintzen ditu. Aukera horiek izan behar dute Plan Orokorra egiteko oinarria, hau da, udalaren etorkizun hurbilerako proiektua zehazteko oinarria; halaber, nahitaezko ingurumen-izapidetzeari dagokion “hasierako dokumentua” idazteko oinarria izan behar du.

Aurrerakin honek bere edukia jendaurrean jartzeko eta udalerrian hedatzeko erreferentzia izan behar du, egin beharreko iradokizunak jasotzeko xedez, Herritarrek Parte Hartzeko Programaren arabera.

Dokumentu hori egiteko orduan, lanak zuzentzen ari garenekin batera, taldea osatzen duten profesionalak ere lagundu dute; baita Udal Zerbitzu Teknikoek eta Udalbatzak berak ere, haren garapenaren aurrerapenak pixkanaka, unean-unean eta aldiro-aldiro ezagutu dituztelarik.

### I.2.- **Lurralde-eremua**

Idatzi behar den Plan Orokorra Urretxuko udal-mugarte osoa du xede. Urretxuk 750 hektarea baino zertxobait gehiagoko azalera du eta, 2017ko abenduaren 31ko erroldaren arabera, 6.746 biztanle ditu. I.1 planoan dago identifikatuta.

### I.3.- **Aurrekariak**

Berrikusi behar den dokumentua bat dator 2012ko ekainaren 26an behin betiko onartutako udal-plangintzako Arau Subsidiarioek eta udalerriko hiru eremu txikiren inguruan (A.I.E.4 Ikastola, A.I.E.5 Pagoeta/Eliza eta A.I.IF.3 Pagoeta/Eliza Ingurua) 2017an izapidetu eta behin betiko onartutako haren aldaketak osatzen dutenarekin. Gaur egun, udala Arau Subsidiarioen bigarren aldaketa bat ari da izapidetzen, hain zuzen ere, A.I.E.7 Pagoeta Hotelaren inguruan. Aldaketa onartutakoan, esku artean dugun testuinguruan jarri beharko da.



Udalak Arau Subsidiarioen berrikuspena eskatzeko eta, horren ondorioz, udal-proiektu berria idazteko lanei ekiteko hartutako erabakiarekin hasi zen prozesua, eta lehen aipaturiko Herritarrek Parte hartzeko Programaren onespenez osatu zen.

Erabaki hori, bestalde, Hirigintza Batzordeak eta udal-teknikariek 2016an eta 2017an egindako lanaren emaitza da. Aldi horretan, indarreko Arau Subsidiarioek udalerriko eremu eta sektoreetarako jasotzen dituzten zehaztapenak aztertu dituzte eta udal-proiektua berrikusteko premia dagoela ondorioztatu dute, egindako lanaren ondorioz, Plan berrirako oinarriak ere ezarriz.

Berrikuspene-prozesuari hasiera eman ondoren, dokumentu hau idazten hasi aurreko fase gisa Informazio eta Diagnostikoko dokumentu bat egin da, 2018ko martxoko datarekin. Dokumentu horretan jaso da udalak proposatutako proiektuaren aurrean udalak duen egoera.

Indarreko Arau Subsidiarioetako zehaztapenak, bestalde, I.2 planoan daude jasota, eta aipaturiko Informazio eta Diagnostikoko dokumentuan nahiz Aurrerakin honetako II.2 atalean aipatzen dira.

#### **I.4.- Indarreko lege-esparrua**

##### I.4.1.- Sarrera

Plan Orokorra askotariko maila, izaera eta jatorriko hainbat eta hainbat lege-xedapen, dokumentu eta proiektutan jasotako zuzentarau eta aurreikuspenek eratutako esparru orokorrean egin da.

Une honetan, esparru orokor hori eratzen duten xedapen eta dokumentu nagusien oroigarri nagusi gisa, epigrafe honetako hurrengo ataletan aipatzen direnak nabarmendu behar dira.

##### I.4.2.- Lurralde- eta hirigintza-legeria

- \* Euskal Autonomia Erkidegoan sustatu diren eta indarrean dauden lurralde- eta hirigintza-xedapenak:
  - Lurraldearen Antolamenduari buruzko Legea, 1990eko maiatzaren 31koa.
  - Lurzoru eta Hirigintza Legea, 2006ko ekainaren 30ekoa (2/2006 Legea).
  - Premiazko neurrien dekretua, 2008ko ekainaren 3koa, aurreko Legea garatzeko sustatutakoa (105/2008 Dekretua).
  - 2008ko azaroaren 28ko Legea, hirigintza-ekintzak sortutako gainbalioetan erkidegoak duen partaidetza aldatzen duena.
  - 123/2012 Dekretua, uztailaren 3koa, hirigintza-estandarrei buruzkoa.
  - 211/2012 Dekretua, plan eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoari buruzkoa.
  - 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, EAEko hots-kutsadurari buruzkoa.





- \* Administrazio zentralak sustatutako xedapenak:
  - Lurzoru eta Birgaitze Legearen testu bategina, urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez onartutakoa.
  - Lurzoru Legearen balorazioen erregelamendua, 2011ko urriaren 24ko Errege Dekretuaren bitartez onartutakoa (1492/2011 Errege Dekretua).
  - Ingurumen-ebaluazioaren Legea, 2013ko abenduaren 9koa.

#### I.4.3.- Beste arlo batzuetako indarreko legeria

- \* Errepide-arloko indarreko xedapenak, Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorra arautzen duen 1989ko maiatzaren 30eko legea, geroztik hainbat aldiz aldatu edota osatutakoa, eta 2006ko Gipuzkoako Errepideen Foru Araua barne, besteak beste.
- \* Euskal Kultura Ondareari buruzko Legea, 1990eko uztailaren 3koa.
- \* Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Babesteko Legea, 1994ko ekainaren 30ekoa, ondorengo beste xedapen batzuen bitartez aldatu eta garatutakoa, jakineko espezie batzuk babestekoa barne (bisoi europarra...).
- \* Irisgarritasuna sustatzeko Legea, 1997ko abenduaren 4koa, eta bere garapenean sustatutako xedapenak.
- \* Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko Lege Orokorra, 1998ko otsailaren 27koa, eta 2003ko uztailaren 22ko Dekretua, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio bateratuaren prozedura arautzen duena eta haren garapenean sustatutakoa. Aurreko xedapenei eta arlo horietan beraietan, proiektuen ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren Erregelamendua (1998ko irailaren 30eko Errege Dekretua) eta jakineko plan eta programa batzuek ingurumenean dituzten eraginaren ebaluazioari buruzko Legea, 2006ko apirilaren 28koa, gehitu behar zaizkie.
- \* Herri Administrazioen Ondareari buruzko Legea, 2003ko azaroaren 3koa.
- \* Telekomunikazioen Lege Orokorra, 2003ko azaroaren 3koa.
- \* 1/1998 Errege Lege Dekretua, otsailaren 27koa, telekomunikazio-zerbitzuetara sarbidea izateko eraikinetako azpiegitura komunei buruzkoa.
- \* Martxoaren 11ko 346/2011 Errege Dekretuaren bitartez onartutako Erregelamendua; ITC/1644/2011 Agindua, ekainaren 10ekoa.
- \* Zaratari buruzko Legea, 2003ko azaroaren 17koa, eta 2005eko abenduaren 16ko eta 2007ko urriaren 19ko Errege Dekretuak, giroko zarata ebaluatu eta kudeatzeari buruzkoa lehena eta soinu-zonakatzeari, kalitatezko helburuei eta soinu-igorpenei buruzkoa bigarrena.
- \* Trenbide-sektorearen legea, 2003ko azaroaren 27koa, eta 2004ko abenduaren 30eko bere Erregelamendua.
- \* Emakume eta gizonezkoen berdintasunerako Legea, 2005eko otsailaren 18koa.
- \* Uren Legea, 2006ko ekainaren 23koa.
- \* Landa-ingurunearen garapen jasangarrirako Legea, 2007ko abenduaren 13koa.
- \* Nekazaritza eta Elikadura Politikako Legea, 2008ko abenduaren 23koa.
- \* Abeltzaintza-ustiapenen arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak xedatzen dituen Dekretua, 2009ko irailaren 22koa.
- \* Eraikuntza-arloko indarreko xedapenak, 1999ko azaroaren 5eko Eraikuntza Antolatze Legea eta Eraikuntzaren Kode Teknikoa barne.
- \* Etxebizitzari buruzko 3/2015 Legea, ekainaren 18koa, eta etxebizitza-arloko indarreko xedapenak, babes ofizialeko etxebizitzak eta abar arautzen dituztenak barne.
- \* 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzekoa.

- \* 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.

#### I.4.4.- Lurralde-antolamendurako indarreko tresnak.

Honako hau da behin betiko onartuta eta indarrean dauden gisa horretako tresnen zerrenda:

- \* Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak.Behin betiko onespena:1997ko otsailak 11.
- \* Goierri eremu funtzionaleko (Beasain-Zumarraga) Lurralde Plan Partziala.Behin betiko onespena:534 Dekretua, 2009ko irailaren 29koa.
- \* Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana (isurialde kantauriarra).Behin betiko onespena:1998ko abenduak 22, eta ondorengo aldaketak.
- \* Trenbideen Azpiegitura antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.Behin betiko onespena:2001eko otsailak 27, eta ondorengo aldaketak.
- \* Energia Eolikoa antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.Behin betiko onespena:2002ko maiatzak 14.
- \* Euskal Autonomia Erkidegoko hezeguneak antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.Behin betiko onespena:2004ko uztailak 27.
- \* Ekonomia-jardueretarako lurzoru publikoa eta ekipamendu komertzialak sortzeko Lurraldearen Arloko Plana. Behin betiko onespena:2004ko abenduak 21.
- \* Gipuzkoako Hiri Hondakinen Azpiegituren Lurraldearen Arloko Plana.Behin betiko onespena:2009ko uztailak 21.
- \* Gipuzkoako bizikleta-bideen Lurraldearen Arloko Plana.Behin betiko onespena:2/2013 Foru Araua, ekainaren 10ekoa (GAO 113. zk., 2013ko ekainaren 14koa).
- \* Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basoak antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.Behin betiko onespena:177/2014 Dekretua, irailaren 16koa.

Orain arte sustatutako lurralde-antolamenduko beste tresna batzuek ez dute indarraldirik ez direlako behin betiko onartu. Hala ere, kontuan hartu beharko dira prozesu honetan onartzen badira.

#### I.4.5.- Beste mota bateko planak, dokumentuak eta lanak

Beste plan eta dokumentu batzuen erakusgarri, eta horien zerrenda osoa eta itxia aurkezteko asmorik gabe, honako hauek aipa daitezke:

- \* Urretxu udalerriko Tokiko agenda 21 (2015).
- \* Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia (2002-2020), 2002ko ekainaren 4an onartutakoa.
- \* EAEko Ingurumeneko Laugarren Esparru Programa 2020.
- \* Urretxuko Tokiko Agenda 21 deiturikoaren esparruan garatutako lanak.
- \* Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa (2015-2021).
- \* Garraio Iraunkorraren Gida-plana.
- \* EAEko Geodibertsitatearen Estrategia 2020.
- \* Euskadiko Biodibertsitate Estrategia 2030.
- \* Euskadiko Energiaren Estrategia 2030.
- \* Klima-aldaketaren Euskal Estrategia 2050.



#### I.4.6.- Nazioarteko beste zuzentarau batzuk

Honako hauen berariazko aipamena egin da:

- \* Populazioari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Konferentzia (1994).
- \* Gizarte Garapenari buruzko Munduko Gailurra (1995).
- \* Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda (NBE 2015).
- \* Gizateriari buruzko Munduko Gailurra 2016an Istanbulen.
- \* Klima Aldaketari buruzko Parisko Akordioa eta Marrakexeko COP22ko eta Bonnekoko COP23ko berrespena.
- \* Hondamendi Arriskua Murrizteko Sendai esparrua 2015-2030.
- \* Hiri Agenda berria (Habitat III konferentzia - Quito 2016), datozen 20 urteetan hiriak planifikatzeko eta Kuala Lumpurreko Hiriei buruzko Adierazpena (2030), 2018ko otsailekoa, munduko Hiriko Agenda Berria ezartzeko sustatutakoa.
- \* 2016ko Euskal Adierazpena, Europako hiri eta herrientzako ibilbide-orri berria, Iclei-Hiri eta eskualdeen jasangarritasunerako erakundeak sustatutakoa, "Europa bizigarri eta inklusiborako udalerrri emankor, jasangarri eta indartsuen" sorrera definitzen duena.

#### I.5.- **Plangintza-irudiaren hautaketa**

Planteatutako helburuak, hau da, udaleko hirigintza-plangintza orokorra (udal-plangintzako Arau Subsidiarioak) berrikusteak, 2006az geroztik xedatutako lege-testuinguru berrian, legegintza horretara egokitutako Hiri Antolamenduko Plan Orokor bat formulatzea eskatzen du Urretxuko lurraldearen antolamendu osorako.

Gorabehera horiek kontuan hartuta, Hiri Antolamenduko Plan Orokorra da tresnarik egokiena eta zehatzena aplikazioko lege-esparru berriaren arabera proposatutako helburua lortu ahal izateko.

#### I.6.- **Aurrerakinaren edukia**

Dokumentu honek Urretxuko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra idazteko Aurrerakinaren berezko edukari erantzuten dioten zehaztapen eta dokumentuak ditu eta, bereziki, egungo koiunturan ikusitako hirigintza-problematikari erantzuteko antolamendu-alternatiben proposamena.

Dokumentuak honako bi dokumentu hauek ditu: "A. Memoria" dokumentua eta "B. Planoak" dokumentua.

"A. Memoria" dokumentuak ikusitako hirigintza-egoeraren diagnostikoaren laburpena eta proposatutako antolamendu-alternatiben deskripzioa jasotzen ditu.

"B. Planoak" dokumentuak proposatutako alternatiben irudiak jasotzen dituen dokumentazio grafikoa du. Planoak ekoizteko, Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren ortofotoetan eta kartografian oinarritu gara, eta baita Urretxuko udalak gure esku utzitako hiri-esparruen kartografian ere.



## II.- DIAGNOSTIKOA.

Batetik, udalerraren hirigintza-egoerara eta, bestetik, aplikazioko lurralde-antolamendura egindako hurbilketak, udalerrari, Goierriko Eremu Funtzionalari eta, bereziki, Urola Garaia dagokienez, Urretxuko udalerrirako idatzi behar den Plan Orokor berriak aurre egin behar dion koiunturaren ikuspegi global egokia lortzeko aukera ematen dute.

Zeregin horri ekiteko ezinbestekoa iruditzen zaigu, hasteko, funtsezko hiru alderdi nabarmentzea.

- Udal-plangintza orokorra koordinazio-lana da, udal-proposamenak jaso eta arloko ekimenak, zehaztapenak eta arauak integratu behar dituen eta, hori guztia, lurralde bakar batean.
- Aplikatu beharreko legeriak askotariko arau, prozesu eta kontsultari erantzun behar die, eta horiek bete egiten direla bermatu behar da egin beharreko ahaleginaren balia garritasunerako ezinbesteko baldintza gisa.
- Ezinbestekoa da prozesu honi egungo egoeran aurre egitea eta hala erabaki du udalak, xede horretarako izango den lege-agintaldiaren kalterik gabe.

Idatzi beharreko Plan Orokorak osatu behar du erreferentziazko udal-proiektua, proiektu bideragarria, bai herritarren aldetik eta bai inplikaturako administrazioen aldetik ahalik eta adostasun handiena izan behar duena; proiektuak aukera eman behar du, behin betiko onartzen denetik 8 edo 10 urteko epean, Urretxuko hiri- eta ingurumen-kalitatea hobetzeko, bertako ia 7.000 biztanleen bizi-baldintzak hobetuz, biztanle-kopurua murriztea eragotziz, etxebizitza-parkeari behar dituen bizigarritasun-baldintzak emanaz eta zuzkidura egokiak eta behar den enplegua ahalbidetuz.

Urretxun eta Urola Garaian populazioaren beherakada nabaritu da baina, bestalde, Santa Luziarako aurreikusita dagoen Euskal Trenbide Sare Berriko geltoki berria ezartzearen ondorioz aukerak eta indarrak ere etor daitezkeela ikusten da.

Eta Plan Orokor horrek, udalerrirako ezinbestekoa eta aldi berean urgentea den proiektu horrek, proposamen integratuak formulatu beharko ditu, landa-lurraren antolamenduari erantzunak emango dizkionak; eta espazio libreen eta oinezkoentzako ibilbideen premiei; ingurunearen hiri-berroneratzeari eta -birkalifikazioari; tipologiaen eskaerara egokitutako behar adinako bizitegi-eskaintza zehazteko premiari; askotariko ekonomia-jardueretarako lurzorua berreskuratzeari; ekipamenduen zuzkidurari; mugikortasunaren eta denentzako irisgarritasun-baldintzen hobekuntza nabarmenari; eta, ondorioz, erantzun horiek lortzeko behar den eraldaketari.

Ondorengo ataletan kapituluka deskribatuko da egungo egoerari buruz egindako diagnostikoaren laburpena.

## II.1. Diagnostiko sozioekonomikoa.

Urretxuk, Joan I.a Gaztelakoak 1383ko urriaren 3an emandako hiri-gutunaren bidez lortu zuen hiribildu-izaera. Hiribildua Urola haranaren hondoan kokatu zen, herria zeharkatzean ibaiak egiten duen meandro baten ezker aldean. Kostalderako nahiz Gaztela alderako bidegurutzea kontrolatzeko lekua zen. 2017ko abenduaren 31n 6.746 biztanle zituen. Biztanle gehienak hirigunean bizi dira (% 97,5), eta biztanleria sakabanatuak guztien % 2,5 baino ez du hartzen.

XX. mende hasieratik gaur egun arte izan duen eboluzio demografikoa positiboa izan da, % 1,57ko urteko hazkunde-tasarekin, Urola Garaian % 1,3koa eta Gipuzkoan % 1,01ekoa izan denean. Hala ere, populazio-hazkunde hori 1910 eta 1975 artean gauzatu zen, 1.110 biztanle izatetik 6.865 biztanle izatera pasatu zenean (% 2,8ko urteko hazkunde). 1975etik aurrera galera demografikoa izan ziren, laurogeiko hamarkada osoan iraun zutenak (1991n 1970ekoaren oso antzeko biztanle-errola zegoen). Laurogeita hamarrek hamarkadaren hasieratik XXI. mendeko lehen hamarkada arte, joera negatiboa alderantzikatzen hasi zen, azken urteotako datuek beste beharakada demografiko bat adierazten duten arren, 2010eko (urtarrilaren 1ean) 6.957 biztanleetatik 2017ko (abenduaren 31n) 6.746 biztanleetara pasatu da. % - 0,38ko urteko hazkunde-tasa ematen du horrek, 2000-17 aldian izandako % 0,27aren oso desberdina. Biztanle-errola handiena 2010ean izan zen, ia 7.000 biztanlerekin.

Populazio-galera horren arrazoiak dira, batetik, jaiotzak gutxitzea (1975eko ‰ 19,8ko jaiotza-tasatik 2017ko ‰ 3,9ra pasatu da) eta, bestetik, heriotzak gehitzea (1975eko ‰ 5,5eko heriotza-tasatik 2017ko ‰ 7,5eko heriotza-tasara pasatu da). 2013tik gaur egun arte udalerririk saldo natural negatiboak izatea eragin du horrek (‰ -3,7 2017an, ‰ -3,9 2015-17 aldiko datuak kontuan hartzen badira, edo ‰ -0,6 2010-17 aldikoak hartzen badira). Baina horrez gain, migrazio-saldoak ere eragina ari dira izaten, batez ere negatiboa izaten ari den barneko saldoa (populazio-galera Euskadiko beste herri batzuetara joaten direlako). Kanpoko migrazio-saldoak, kanpotik datozenenak, positiboa izaten jarraitzen du termino absolututan nabarmen jaitsi den arren eta, zenbait urtetan, barneko migrazio-saldoren galerak ere konpentsatu ez dituen arren. Denborak esango du azken galera demografiko horiek (hazkunde negatiboak 2013tik eta "0" hazkunde 2012an) aldizkakoak diren edo etapa demografiko berri baten aurrean gauden, bizitza sozial eta ekonomikoaren beste alderdi batzuetan etorkizunean hortik etor daitezkeen ondorioak izan ditzakeena. Populazio-egiturak, ugalkortasun-tasa baxuek, egoera ekonomikoak, langabezia-mailak, gazteen enplegu prekarioak eta abarrek, a priori, ez dituzte onerako aldaketak iragartzen, baina aukerak sor daitezke eta udal-proiektua aukera horiek bideratzeko bitartekoa izan daiteke.

Egungo populazio-piramideak erraboi-forma, kutxatila-forma edo forma alderantzikatua du, erdiko gorputza baino oinarri estuagoarekin, tipikoa populazio beherakorretan *trantsizio demografikoa* (jaiotza-tasa baxuak eta pixkanaka-pixkanaka handitzen ari diren heriotza-tasak) deituriko fasea amaitu duten herrialde garatuetan. Populazioa zahartzen ari dela egitea da: gazteen taldeak, 20 urtetik beherakoenak, populazioaren % 21,4 osatzen du (1986an % 30,9 zen), 64tik gorakoak ia berdina (% 21,1), laurogeiko hamarkadaren erdian % 8,5 zenean. Sexuaren arabera banaketa orekatu samarra dago (% 49,4 gizonezkoak eta % 50,6 emakumeak), baina emakumeen bizi-itxaropen handiagoa 60 urtetik aurrera nabaritzen da adin-piramidean.



Urretxuko biztanleriaren azterketa prospektiboa, Plan Orokor honen epean, 2000-17 aldiko hazkunde-erritmoari eustekoa da eta 6.900 biztanle inguruko kopurua eskaintzen du. Baina azken 8 urte hauetako eboluzioa, egungo egoera ekonomikoa, zahartutako bere biztanle-egituraren eta adin emankorrean dauden emakumeak gutxitzearen ondorioz murriztu egingo den ugalkortasun-indizearen ondorioak kontuan hartuta, egoera horrek ziurgabetasunak eragiten ditu, azken 8 urte hauetako joera beherakorrak jarraipena izan dezakeelarik eta populazioa 6.600 biztanleraino jaitsi daitekeelarik. Hala ere, aurkezten diren aukeretatik eta udal-proiektutik sortzen den dinamika baten hipotesi optimista batean, udalerrria datorren hamarkadan 7.000 biztanle izatera eramango lukeen agertoki bat ere aurreikus liteke.

Biztanleen jatorriari dagokionez, % 41 baino gehiago udalerrian bertan jaio da eta Gipuzkoa osoa aintzat hartzen bada % 74,9. % 70 baino zerbait gehiago dira Goierriko beste udalerriren batean jaiotakoak. EAEko gainerako udalerrietan jaiotakoak % 1,7 dira (% 53,4 bizkaitarrak eta gainerakoak arabarrak) eta Espainiako beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotakoak % 16,2, gehienak Gaztela-Leonen eta Extremaduran. Gainerako % 7,3 Espainiatik kanpo jaio da, Gipuzkoako eta EAEko biztanleen artean ematen dena baino ehuneko txikiagoa (% 8,9 eta % 8,8, hurrenez hurren). Biztanle horietako gehienak Hego Amerikakoak eta Erdi Amerikakoak dira (Nikaragua, Kuba, Honduras, Kolonia, Argentina eta Brasil) eta Afrika Iparraldekoak (ia 2/3 Marokokoak dira eta gainerakoak Senegal eta Ekuatore Gineakoak).

Ikasketa-mailari dagokionez, biztanleen % 62k, gutxi gorabehera, lehen mailako ikasketak edo derrigorrezko hezkuntzako ikasketak ditu eta % 14,2k erdi eta goi mailako ikasketak (1996an % 8,5ek).

2016ko biztanleria aktiboa 3.208 pertsonak osatzen zuten, populazioaren % 46,8k, duela hogeita hamar urte baino ia 670 pertsona gehiagok, eta termino absolutu eta erlatibotan izandako eboluzioa hazi egin da 1986tik baina azken hamar urte hauetako hazkunde oso txikia izan da (% 0,7), azken bost urteak kontuan hartuz gero negatiboa (% -0,3). Eboluzio horren arabera, biztanleria okupatua areagotzen joan da azken hamarkadetan 2.885 pertsonara iritsi arte. Azken urte hauetan beherakada hasi da langabezia handitu delako eta biztanleria zahartzen ari delako. Emakumeak lan-munduan txertatzeak modu positiboan eragin du emakumearen jardueraren tasan: 1986ko % 21,6tik 2016ko % 43,2ra pasatu da eta gizonezkoenak, aldiz, behera egin du (% 56,2 eta % 50,4, hurrenez hurren). 2017ko langabezia-tasa % 9,5 da, % 7,3 gizonezkoentzat eta % 12,7 emakumeentzat.

Ekonomia-jarduera, tradizioz, metalari eta altzariei lotuta egon da. Jarduera horiek errotuta jarraitzen dute udalerrian (galdaragintza-enpresak, egitura metaliko eta moldeen fabrikazioa, torlojuak, trokelak, nekazaritza-makinen ordezkioak, etab.) beste azpisektore batzuekin batera, hala nola, arte grafikoak, elikagaiak, plastikoen eraldatuak, hormigoia eta asfalto-produktuen fabrikazioa. Industrian okupatutako aktiboak ia % 35era iristen ziren 2011n (1986an % 56 zen), eta hirugarren sektoreak indarra hartu du azken urte hauetan okupatuen % 57 hartzen baitu. Eraikuntzak % 8,1 okupatzen du eta nekazaritza-sektoreak du, % 0,3ekin, protagonismo txikiena, arlo ekonomikoan duen garrantzi txikia nabarmenduz, ez hala gizarte- eta ingurumen-arloetan.



Lurrak dituzten nekazaritza-ustiapenen % 87 inguruk baso-aprobetxamendua dute eta % 60 inguruk ganadua dute. Nekazaritza-jarduerak garrantzi txikia du. Ustiapenen titulartasunen % 75 gizonetzkoena da, eta nabarmentzekoa da belaunaldien ordezkapenaren arazoa, titularren ia erdiek 65 urte edo gehiago baitituzte (ez dago 25 urte baino gutxiagoko titularrik eta % 7,6 25 eta 39 urte artean dago).

Enplegu endogenoaren azterketak (1.876 enplegu 2016an) agerian uzten du okupatu batzuek beste udalerrri batean lan egiten dutela, izan ere, aktibo okupatuen eta sortutako enpleguaren arteko saldoa –enplegu endogenoa- negatiboa da. Enpresen % 93,5 mikroenpresak dira, 10 langile baino gutxiagoko establezimenduak, eta enplegu endogenoaren % 51,6 sortzen dute. 550 ekonomia-establezimendu baino gehiago daude, batez beste 3,40 pertsona/establezimenduko Enpresa industrialak dira tamaina handienekoak eta horietan garrantzitsuenak: KL KateaLegaia, S.L.L., Illargi, S.A., Plasnor, S.A., Calderería Urretxu, S.L., Asfaltos Urretxu, S.A. eta Estructuras Metálicas Goierri, S.L. Urretxuko enpresa garrantzitsuenen irimo izan da. Estutzeko esku-erremintak, ibilgailuetarako piezak eta aldagaiak, zementuzko eta mineralezko errotetarako bolak, eta abar fabrikatzen jardun zuen 1927an "Larreategui e Iñurritegui" izen sozialarekin eratu ondoren. 1995ean Sanp-On multinazionalak erosi zuen eta 2001ean itxi. Harrezkero, ez du jarduerarik.

Merkataritza-jarduerak ere aspalditik izan du lotura handia hiribilduarekin, hainbat feria egin izan baitira, esaterako, ganaduarena eta Santa Luzia egunekoak.

Urretxuk eutsi egiten dio bere izaera industrialari. Hori adierazten dute enplegu- eta okupazio-datuak, eta baita bereizten duen paisaiak eta lurzoruaren erabilerak ere. Hala, enpresa-ehuna dibertsifikatzeko aldeko ingurunea indartzearen nahiz lehendik dauden enpresa-sektoreen lehiakortasuna hobetzeko hobekuntza-lerroak proposatzearen egokitasuna planteatzen da. Eta planteamendu horren barruan, azpisektore metal-mekanikoan espezializatuta dauden Urola Garaia eta Goierri eskualdeekin batera joan behar du sinergia guztiak baliatzeko eta dibertsifikaziorantz elkarrekin aurrera egiteko. Horrekin nahikoa ez bada ere, Urretxurako etorkizun itzaropentsua bideratuko duen udal-proiektua izan behar du Plan Orokorrak.

## **II.2. Diagnostiko juridiko-urbanistikoa.**

Lehen adierazi den bezala, Urretxuko udalerrian aplikatu beharreko esparru juridiko-urbanistikoa bat dator 2012ko ekainaren 26an behin betiko onartutako udal-plangintzako Ara Subsidiarioekin eta orain arte behin betiko izapidetu eta onartutako haien aldaketa bakarrarekin, hain zuzen ere, udalerriko hiru eremu txikiri buruzko (A.I.E.4 Ikastola, A.I.E.5 Pagoeta/Eliza eta A.I.IF.3 Pagoeta/Eliza Ingurua) 2017ko aldaketarekin.

Plangintza orokorreko tresna horren aurretik, udalak plangintza orokorreko dokumentu hauek izan zituen:

- Urretxuko Ara Subsidiarioak, 1990eko uztailaren 17an behin betiko onartutakoak.
- Urretxuko Hiri Antolamenduko Plan Orokor Berritua, 1965eko abenduaren 7an onartua.
- Urretxuko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra, 1954ko Ekainaren 8an onartua, lurzoruaren lehen Legea onartu aurretik (1956).





Beraz, badago udalerrian hirigintza-kultura bat plangintzaren inguruan, konfiantza bideratzen duena eta udalaren uste osoa eragiten duena Plan Orokorraren berrikuspenaren eta Urretxuko etorkizun hurbilerako udal-proiektu gisa duen garrantzian.

Egindako analisiak erakusten du indarreko plangintza ez dagoela agortuta eta, ondorioz, eskaintza bat baduela epe laburrera. Horrek aukera ematen du bizitegi-lurzoruaren eta ekonomia-jardueretarako lurzoruaren eskaintza bat izateko, abian diren ekimenei erantzuna eman diezaieketenak baina, lehen aipatu diren arrazoi asko medio, premiazkoa da hura berrikustea eta lege-esparru berrira egokitzea.

Hala, beste kontu batzuen artean, beharrezkotzat jotzen da, batetik, udalerrri osoan lurzoruaren erregimena behar bezala arautzeko aukera ematen duen eta lurzoruaren sailkapena eta eremuen mugapena, udal-mugartea barne, adierabakarrean zehazten duen sistematika berri bat planteatzea eta, bestetik, espazio libreen eta ekipamenduen sistema orokorra eta lokala birdefinitzea.

Eta udalak horregatik heldu dio prozesu honi.

Dokumentu honetako I.2 planoan dago jasota udalerrriaren gaur egungo zonakatze globala.

Bestalde, udal-mugartea mugatzeko interpretazioan hainbat zehaztapen grafiko ikusi eta egin beharreko ikerketa egin ondoren, I.1 planoan eta dokumentu honetako antolamendu-planoetan zuzentzat eman den udal-muga identifikatu da, prozesutik ondorioztatzen denaren kalterik gabe.

### **II.3. Ingurune fisikoari buruzko diagnostikoa.**

Urretxuk 7,5 Km<sup>2</sup> inguruko azalera du eta Gipuzkoaren barnealdean dago, hain zuzen ere Urola Garaian (Goierri), lurraldean identifikatzen duten Urola ibaiaren eta Irimo mendiaren (896 m) artean. Ingurune gorabeheratsua du, mendi-hegal aldapatsuen sistemak markatutako erliebea duten mendigunearekin bat datorrena (azalaren % 60k % 30etik gorako malda du). Mendi-hegal horiek udal-mugarterearen mendebaldean eta ipar-mendebaldean amaitzen dira eta handik hegoalderantz jaisten dira Mendiaratz haraneko 400 m-taraino edo ekialdeko eta iparraldeko 300-325 m-taraino, jada Urola haranean.

Berezitasun hori bere ezaugarri geologikoetara ere hedatzen da, balio geomorfologiko eta petrologiko handia eta material bolkanikoekin harreman estua duten sill gabroikoen (GIL) eta intereseko beste formazio geologiko batzuen tokiko presentziarekin (flysch beltza, kare-flysch, kuarternarioko jalkinak...).

Alderdi geomorfologikoari dagokionez, aipagarriak dira ibai-modelaketari (hondo alubialak) eta isurialdeen dinamikari (higadura aktiboko zonak, kolubialak eta askatze-orbanak) lotutako hainbat elementu, gainazaleko beste formazio batzuekin batera, esaterako, betelan eta/edo isurketa artifizialak eta harrobiak, horietako bat oraindik lanean ari dena (Larregiko harrobia).



Urolaren ibai-ibilguak hegotik iparrera zeharkatzen du udal-mugartea (UM) hegoa-ekialdea-iparmendebalde norabidearekin, gutxi gorabehera, 7 km-tan eta, aldi berean, muga egiten du Zumarragarekin. Udalerrria zeharkatzen duen zatian ibaiadar nagusiek ez dute garrantzi handirik ezker aldean (Urretxuko UM), Mendiaratz erreka izan ezik. Uraren kalitatea aldatu egiten da. Hala, herrigunetik gora, urak potentzial ekologiko eskasa du eta hirigunetik ibaian behera, aldiz, ozta/ozta ez du betetzen egoera onaren/potentzial ekologikoaren helburua.

Udal/mugartean ez da identifikatu ez Unitate Hidrogeologikorik eta ez Sektore Hidrogeologikorik, baina iragazkortasun ertaina esleitu zaio udal/mugartean ipar/mendebaldean kokatutako material bolkanikoen porositateagatik (*Domeinu Hidrogeologiko Bolkaniko Konplexua*).

Akuiferoen urrakortasuna, bestalde, baxua edo oso baxua da. Lurraldeak hornidurarako hargune ugari ditu, hain zuzen ere Ereku Babestutzat jotako Iturrondi 1, Iturrondi 2, Iturrondi 3, Iturrondi 4, eta Iturrondi 5 iturburuetatik datozenak.

Ingurune fisikoaren berezitasunek, ahalmen agrologiko txikiko eta oso txikiko lurzoruen nagusitasunarekin batera (eremuaren % 70 VII. maila agrologikoko lurzoruak dira eta % 16,5 VI. mailakoak), lurzoru horiek basogintzarako erabiltzea baldintzatu dute eta, neurri txikiagoan, belarditarako. Hala, denborak aurrera egin ahala, baserrien finkatze sakabanatua bideratu dute eta hiribilduaren nukleoa Urola ibaiaren ezker aldean sortzea, hau da, zona lauenean eta nekazaritzarako lurzoru onenak dituenean. Nekazaritzak biztanleen zati txiki bat baino mantentzen ez zuen lurraldea islatzen dute erreferentzia historikoen, ahalmen agrologiko handiko lurzoruen (lurzoru alubialak) azalera txikiarekin lotuta. Gaur egun ez dago ia horrelako lurrik, hiri-erabilerekin okupatu dituztelako (Urola haranaren ipar aldean geratzen dira balio agrologiko handiko eremu txiki batzuk).

2016ko Basogintzako Inbentarioaren arabera, lurzoruaren erabilerekin banaketari buruzko analisiak adierazten du zuhaitziek Urretxuko lurraldearen zati handi bat hartzen dutela, ia % 60, 1986an % 66 hartzen zutenean. Erabilera horri belardi eta larreek jarraitzen diote garrantzian, azalaren % 22rekin, bertako ustiapen batzuen abeltzaintza-joerarekin bat etorritik. Erabilera ez/emankorrek (hiri-erabilera, ura, zabortegiak, harrobiak, azpiegiturak, etab.) % 15 baino zerbait gehiago hartzen dute etasastrakek % 2 baino zerbait gehiago.

Hainbat eta hainbat mendetan gertatutako eraldaketek Urretxuko paisaia aldatu eta eraldatu dute, eta asko urritu da landarediaz estalitako azalera (hariztiak, pagadiak eta haltzadiak). Koniferoen *monolaborantza* indartsu sartu da eta monotonia eman dio paisaiari. Hala ere, oraindik geratzen dira pagadiak eta harizti-baso mistoak kontserbazio-egoera onean, eta horiek babestea eta ingurumen-ikuspegitik hobetzea eta lehengoratzeko komeni dela uste da. Hala, UMren azalaren % 60 basoek okupatzen badute, % 39,2 koniferoak dira, espezie aloktonoak. Eta horien artean nagusi dira laritza, *Larix spp*, eta intsinis pinua, *Pinus radiata*, (konifero guztien ia % 72), eta beste % 33,7 hostozabalak, batez ere pagadiak (*Fagus sylvatica*), hariztiak (*Quercus robur*) eta baso misto atlantikoak (lizarra, haritz kanduduna, hurritza, ezkia, astigar arrunta, gaztainondoa, pagoa, gorostia, urkia, etab.). Nabarmenezkoa da ibai/ertzeko landarediak duen presentzia eskasa, haltza delarik protagonista. Landaredia autoktonoa duten eremuak ingurumen-interesekoak dira, flora katalogatutako espezieak bezala, esaterako, gorostia, gurbea eta hagina.



I.3 planoan, eskura dagoen informazioa eta landa-lana kontsultatuta egindakoan, modu grafikoa irudikatuta daude udalerriko lurzoruaren egungo erabilerak.

Kalitate handieneko ornodun-komunitateak dituzten habitatak pagadiak eta ibaiertzeko basoak dira eta horien ondoren harizti-baso mistoak eta belardi artean geratzen diren zuhaitzi-unadak eta zuhaixka-hesiak.

Udalerrian ez dago autonomia-erkidegoko, estatuko, Europako edo munduko Espazio Naturalen Sareetako batean sartutako lurralderik, ez Onura Publikoko Mendirik eta ez Mendi Babesgarriak. Irimo mendiaren gailur-lerroak eta ingurune hurbilenak, aldiz, nolabaiteko paisaia-interesa eskaintzen dute. Ipeñarrieta jauregia haren mendi/hegalean dago, eta Paisaia eta Kultura Mugarria da.

Ingurumen-arriskuei dagokienez, uholde-arriskua kontrolatzeko premia nabarmentzen da Alkorta pabiloi industrialaren ingurutik (Irimo industrialdea) Matxinporta inguruneraino doan Urola ibaiaren tartean; tarte hori Uholde Arrisku Potentzial Handiko Eremu gisa sailkatuta dago (ARPSI ES017-GIP-URO-05); halaber, ezinbestekoa da ibaiko eta lur azpiko (iturburuak) uren kalitatea kontrolatzea.

Sute-arriskua txikia bada ere, ez da baztertzen arrisku handiko eta oso handiko zona txiki batzuk daudelako.

Bestalde, gorabeheraren bat izateko aukera gehieneko arrisku teknologikoa salgai arriskutsuen garraioari lotutakoa da, batez ere errepidekoa eta trenekoa; lurrikara-arriskua txikia da eta ez dago Larrialdi Sismikoko Planik egin beharrik.

Lurzoruaren egungo erabilerak, oro har, bat datoz haien bokazioarekin, higadura-arazoengatik babesteko premia planteatzen zaien zonak detektatu diren arren. Horrela gertatzen da Irimoko zona garaian eta hegoaldera, hego-ekialdera eta ekialdera orientatutako mendi-hegaletan, lur-lerraduren eta luizien arazoak baitituzte.

Kutsatzaileak izan daitezkeen jarduerak jasaten dituzten edo jasan dituzten lurzoruei dagokienez, lurzoruaren kalitate-arloko aitopenenaren prozedura gauzatzea eta Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoruaren kutsadura prebenitzeko eta zuzentzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen arabera jokatzea ezinbestekoa duten 70 bat area edo eremu identifikatu dira. Berriki esku hartu da horietako lautan.

Kontuan hartuko da dibertsitatearen babesa ere, espezie exotiko inbaditzailearen kontrolarekin.

Airearen kalitatea ona da, baina ez da baztertzen kutsadura-iturriak (trafikoa, industria-jarduera, etab.) kontrolatzeko premia, parametro batzuk uneren batean aldatu egin direlako. Zentzu horretan, berotegi-efektuko gasak (BEG) atmosferara isurtzea kontrolatzeak, modu paraleloan eta onuragarrian, klima-aldaketan eragitea dakar, hiri-efizientzia eta hiri-ehunen jasagarritasuna lortzen laguntzeko beste neurri espezifiko batzuekin batera, lehendik badirenak eta sortuko direnak.

Ingurumeneko zaratari dagokionez, udalerrriaren zatirik handienak kalitate akustikoko helburuekin bat datozen maila akustikoak dituzte, errepideko trafikotik eta trenbidetik hurbil dauden zona jakin batzuek (Ipeñarrieta, Labeaga, Kalerrota, Areizaga, Nekolalde, Barrenkale kaleak eta Aparicio auzoa) eta/edo industria-establezimendu jakin batzuek (Mugitegiko



ekonomia-jardueraren ingurunea...) izan ezik.Hala ere, zarataren inpaktua asko murriztu da azken urte hauetan Arcelor Mittalen itxieraren eta tren-geltokiko trenbide-zabalgunekeo zamalanetako dinamikan izandako aldaketen ondorioz.

Horren guztiaren ondorioz, finkatzea komeni den oreka-egoera bat eragin duen ingurune baten aurrean gaude, lekuko ingurumen-nolakotasuna ahal den neurrian hobetuz eta, bereziki, Urola ibaia eta bere ibaiertzak, eta Irimoko mendi-hegalak, bere berezitasun geologikoa kontuan hartuta.

#### **II.4. Urola ibaiak uholdeen aurrean duen portaerari buruzko diagnostikoa.**

Urola ibaiak modu erabakigarrian eragiten du Urretxuko hiri-egituraren garapenean eta ondorioak izaten ditu uholde handiak izaten direnean.Hiri-garapenari dagokionez, ibaiertzeko soluzioak eta ibilgua guztiz estalitako soluzioak eragin ditu, gaur egun onartzen ez direnak.Hala, azken jarduketetan ibaiertzaren tratamendua hobetzeko ahaleginak egin dira.Ildo beretik jarraituz, ibilguarekin muga egiten duten zonetan jarduketak aurreikusten direnean, ibaiertzen tratamendua azertu egin beharko da, ingurumen-ikuspegitik birkalifikatzen ahaleginduz.

URAk emandako ibaiaren azterketa hidraulikoan ikusten da 500 urteko ezohiko uholdeak hiri-bilbeko zenbait tokitan eragiten duela.Garrantzitsuenak Orbegozoko estalduraren tarte irekian (ibaian behera hedatzen dira Ipeñarrieta Kaleko lehen eraikinen pareraino) Kalebarreneko estalduraren aurretik daude, Zubimusuko blokeei eraginez.

Lehen uholde-orbanak Ipeñarrieta kaleko eraikinen beheko solairuei soilik eragiten die, ezkaratzak 500 urteko birgertatze-aldirako kota baino gorago daudelako.Zubimusuko orbanak garajeei eragiten die, sarrerako arrapalaren garaierako kota kalea baino 60 cm gorago dagoelako.Ibaian behera, 500 urteko uholdeak Matxinportako industrialdeari eragiten dio, aurreko kasuetan baino neurri txikiagoan bada ere.

Indarrean dauden Arau Subsidiarioetan proposatutako garapen berriei dagokienez, uholde-orbanen norainokotik kanpo daude.

#### **II.5. Mugikortasunari buruzko diagnostikoa.**

Udalerriak eta bere hiriguneak irisgarritasun-baldintza onak ditu prestazio handiko eta ibilbide luzeko trenbide- eta errepide-sareetatik, eta gaur egun biak ari dira inplementatzen martxan diren proiektuekin. Proiektu horiek irisgarritasun-baldintza bikainak emango dizkiote udal-lurraldeari oso epe laburrean (bide-konexioa Antzuolarekin Deskargan barrena eta Euskal Trenbide Sare Berriaren geltokia Santa Luzian).

Bestalde, hegoaldetik hirigunera automobiler iristeko baldintzak nabarmen hobetzeko aukera ikusten da.

Bizikleta-bideen sare garrantzitsua ere badu, hobetzeko potentzialaren eta landa-ingurunerako proiektatutako sarea (Santa Barbara parkearen inguruan eta Deskargan) inplementatzearen kalterik gabe. Oinezkoentzako ibilbide-sistema bat ere batu Urola haranean.

Udalerriak Mugikortasun Plan bateratua du Urretxu eta Zumarragako hiriguneetarako, 2007an idatzitakoa. Hiriko espazioaren erabilera-baldintzak arautzeko jarraibidea izan da plana, eta dokumentu horretan planteatutako eredia jarri da martxan. Halaber, dokumentuaren aldeko balorazioa egin da, Plan horren ondorioz izan dezakeen eraginaren kalterik gabe.

Urretxuk 2009ko Irisgarritasun Plan bat ere badu, 2017ko azaroan berrikusi zena. Berrikuspen horren ondorioetako bat izan da bide publikoak egokitzeko obrak egikaritzea kaleen konfiguraziotik eta horien aldapetatik sortzen diren arkitektura-oztopoak minimizatzeko xedez. Bestalde, ez da ezer egin mugikortasun bertikalaren arloan. Mugikortasun bertikalari dagokionez, Planaren barruan leku estrategikoetan sei igogailu publiko jartzea aurreikusten da, Labeaga eta Ipeñarrieta kaleak Mundo Mejor, Lilibaso, Gainzabal eta Pagoetako zona altuekin lotzeko. Garaialde parkea eta Labeaga kalea lotzea ere aurreikusten da. Plan Orokorra proposamen horiek aztertu eta, seguruenik, txertatu egingo ditu, zehaztaperen edo birdoitzeren bat baztertu gabe.

Bestalde, nolabaiteko arazoa ikusten da aparkalekuen arloan eta aztertu egin behar da prozesuan soluzio bideragarriak aurkitzeko xedez.

Garraio publikoari dagokionez, tren-zerbitzuez gain, udalerriak autobus-zerbitzua ere badu. Irisgarritasun Planak hainbat ekintza planteatu ditu autobus-geltokiak hobetzeko. Testuinguru horretan, garatu gabe dago Zumarragako geltokirako aurreikusitako geltoki intermodalaren proiektua.

Nabarmendu beharra dago, bestalde, hiriguneko barne-mugikortasunerako automobil pribatua erabiltzea ohikoa izan arren, Urretxuko hiriguneko duen tamaina kontuan hartuta, arkitektura-oztopoak ezabatzeko zenbait ekintzarekin, oinezkoen mugikortasuna nabarmen areagotzeko aukera emango lukeela eta, ondorioz, ingurumen- eta bizi-kalitatea hobetzeko.

Egoera horren aurrean, Plan Orokorri dagokio ikusitako egoera hobetzeko soluzio egokiak bilatzea. Nabarmenezkoa da hiriguneko denentzako irisgarritasun-baldintzak hobetzeko premia.

## **II.6. Etxebizitzari buruzko diagnostikoa.**

Goierriko Lurralde Plan Partzialak populazioaren bilakaera erregresiboa aurreikusten duen arren, Plana 2009koa dela, 2009-2017 aldian aurreikuspen demografiko horiek ez direla bete eta Eustaten aurreikuspen demografikoak asko aldatu direla zehaztu behar da.

Bestalde, egindako azterketak Plan Orokorren Aurrerakina idazteko hiru lan-hipotesi kontuan hartuz eraman gaitu: batetik, egoera demografiko erregresiboa, Plana amaitzen denerako populazioa 6.600 biztanle ingurura jaistera eramango lukeena eta, bestetik, bi hazkunde-egoera, populazioa 6.900 biztanlekoa edo 7.000 biztanletik gorakoa ere izan litekeena.

Bestalde, ikusitako zahartze-mailak, hazkundeak handitzen jarraitzeko joerak eta pertsona bakarrak okupatutako etxebizitzaren ehunekoa handitzen ari dela ikusteak etxebizitza berriaren eskaera aurrekustera bultzatzen dute eta, seguruenik, ikusitako egoera horretara bideratutako etxebizitza-tipologia berrien eskaera aurrekustera.



Horren ondorioz, udalerriko etxebizitza okupatuen parkearen batez besteko okupazio-ratioak behera egiten jarraitzea espero da eta, aldi berean, udalerriko etxebizitza hutsen parkea txikia dela ikusi da. Ratioa 2,84koa zen 2001ean eta 2,48koa 2016an.

Egoera horretan, eta jasotako informazioaren arabera, krisiaren aldirik gogorrean izan ezik, etxebizitza berrietarako emandako baimenak, birgaitzeko esku-hartzei dagozkienak alde batera utzita, urteko 30 etxebizitza ingurukoa zela esan daiteke. Horrek esan nahi du 1.000 biztanle eta urteko 4 etxebizitza baino pixka bat gehiagoko ratioa zela, antzeko egoeretan onartu ohi diren ereduak baino txikiagoa (batez besteko ratioa 5-6 etxebizitza biztanle eta urteko).

Nabarmentzekoa da, bestalde, indarreko Arau Subsidiarioek oraindik egikaritu gabeko etxebizitza-eskaintza gehigarria dutela antolatuta, 300 unitate ingurukoa, udalaren erabakiz baztertu den Lizeoan aurreikusitako jarduketa kontuan izan gabe.

Testuinguru orokor horretan, Plan Orokorrak erantzun egokia proposatuko du behar den bizitegi-eskaintza berria bideratzeko, lehendik dagoen etxebizitza-parkea finkatzen eta berritzen laguntzeko eta hirigunearen eta Aparicio eremuaren hiri-birgaitzea errazteko.

Xede horretarako, Goierriko LPPak 385 eta 770 etxebizitza arteko bizitegi-eskaintza aurreikusten zuen Urretxurako zortzi urteko eperako. Tarte hori indarreko LAGek zuzendu egin dute, etorkizun hurbilerako 255 eta 510 etxebizitza arteko eskaintza ezarriz. Izapidetzen ari den LAGen berrikuspen-dokumentuak, aldiz, gehieneko etxebizitza-kopurua soilik proposatu du etxebizitza berriaren eskaintzarako, hain zuzen ere, 593 etxebizitza ingurukoa.

Hasitako prozesuaren ondorioz, Plan Orokorrean txertatu, garatu eta zehaztuko den proposamena erabakiko da.

## **II.7. Ekipamendu eta espazio libreei buruzko diagnostikoa.**

Urretxuko udalak, Zumarraga eta Legazpikoekin batera, hiru udalerriei erantzun egokia ematen dien ekipamendu komunitarioen zuzkidura du, abian jarritako prozesutik ateratzen denaren kalterik gabe.

Hala ere, dagoen zuzkidura hobetzeko aukera ikusi da udalerrian adineko pertsonentzako egoitza batekin edo kolektibo berarentzako edo gazteentzako zuzkidura-bizitokiekin, abian jarritako jardueren inguruko ekimenez gain edo Emakumearen Etxe ezarri berriaz gain.

Bestalde, Planetik sortzen diren proposamenetatik, aldi berean, zuzkidura gehigarriak hartzeko edo beste batzuk hobetzeko, esaterako, "haurreskola" hobetzeko aukera emango duten ekipamendu-partzelak aterako dira.

Beste alderdi batzuen artean, Planak zuzkidura-partzelen mugapena birdoitzea aurreikusten da, egungo konfiguraziora egokituz.

Gaiaren inguruan udalak hartutako erabakien arabera, Planak Lizeoaren arean lehendik dagoen zuzkidura finkatzea aurreikusten da.



Hala ere, espazio libreei dagokienez, egindako azterketan ikusi da udalerriko espazio libre orokorren eta tokikoen sistema osoa birdefinitzea behar dela. Lan horri plangintza-aurrerakina formulatuz egin beharko zaio aurre, kontuan izanda ez direla egikaritu indarreko Arau Subsidiarioek bere garaian aurreikusitako proposamenak, horiek berraztertzeo aukera eta gaian aplikatu beharreko estandarrak 2006ko Lurzoru eta hirigintzari buruzko legearen eta 2012ko Hirigintza-estandarren dekretuaren arabera betetzeko premia.

## **II.8. Zerbitzu-azpiegiturei buruzko diagnostikoa.**

Edateko uraren hornidura Legazpiko Barrendiola urtegitik egiten da, eta banaketa udalerrian kokatutako ur-biltegien bidez. A priori, ez da arazo berezirik sumatu, baina hala ere sarea berritu egin behar da eta hodietako materialak aldatzen joan.

Saneamendu-sareak oinarrizko-egitura du, Urola ibaiaren ezkerrean dagoen hodi-biltzaileak eta sareko kolektoreak horrekin lotzen dituzten adarrek osatutakoa. Ez da arazo esanguratsurik nabaritu, zenbait eremu sistema banatzaile batek soilik zerbitzatzen dituela ikustea alde batera utzita. Horregatik, hauek izango dira egin beharreko jarduketak: batetik, sarea pixkanaka berritzeoak, hiriguneak zaharberitzearekin edo beste azpiegitura batzuk instalatu eta hobetzearekin batera egingo direnak eta, bestetik, sare guztiz banatzailea ezartzeko egiten direnak. Hala, kanalizazio berriak banatzaileak izango dira.

Urretxuko udal-mugartean dauden instalazio elektrikoek behar bezala hornitzen dute udalerria, aireko egungo kanalizazioak eta fatxadetara grapaz lotutakoen ordez, pixkanaka-pixkanaka, lur azpiko kanalizazio erregistragarriak jartzeko premiaren kalterik gabe. Halaber, fatxadako kuxak kentzea eta harguneak kontagailu-gela batetik barrualdetik egitea planteatzen da. Kanalizazioen diametroek eta materialak, erregistroen neurriek, hodian indargarriek eta abarrekin indarreko erregelamendu elektroteknikoaren aginduak eta konpainia ustiatzaileen irizpideak beteko dituzte. Bestalde, transformazio-zentroak lur azpikoak, lonjakoak edo txabolakoak izango dira, ahal izanez gero horman erdi sartutakoak.

Gasaren banaketa-sareak erantzun egokia ematen die Urretxuko premiei. Neurria egokitzeko bi estazio ditu hirigunearen iparraldean eta hegoaldean estrategikoki kokatuta.

Udalak hiriguneri zerbitzu egokia ematen dion argiteria publikoko sarea du. Hala ere, egokia izango da sarea optimizatzea eraginkortasun handiagoaren bila. Horretarako, teknologia berriak ezarriko dira, eta sistema adimentsua hura kudeatzeko. Dokumentu honetako I.4 planoan dago egungo sarea.

Telefónica eta Euskaltel konpainien sareek, bestalde, erantzun egokia ematen diete udalerraren premiei telekomunikazio-arloan. Dokumentu honetako I.5 planoan dago egungo sarea.

Hondakin solidoen kudeaketa Sasetako Mankomunitateak egiten du. Mankomunitateak behar diren instalazioak ditu, helburua lortzeko behar den guztia ezartzearen kalterik gabe.

Gai horren inguruko informazio grafikoa 2018ko martxoko Informazio eta Diagnostikoko dokumentuan dago jasota.



## II.9. Diagnostikoaren laburpena.

Udalak Urretxuko plangintza orokorra berrikusteko hartutako erabakia diagnostiko honetan nabarmendu behar den lehen alderdia da, izan ere, etorkizun hurbilerako proiektu bat izateko premiaren eta, batik bat, proiektu hori izateko borondatearen froga argia da.

Nabarmendu beharreko bigarren alderdia, Urola Garaian eta, bereziki, Urretxun, ekonomia-jardueretarako eta balizko bizitegi-garapen berrietarako lurzoru-erabilgarritasunaren inguruan ikusitakoa da. Ekonomia Jardueretarako Lurzoru Publikoa eta Ekipamendu Komertzialak sortzeko Lurralde Plan Sektorialak, 2004an, egoera hau deskribatu zuen eskualdean: jardueretarako lurzoru egokiaren falta ikusten zen, lurzoru berrien prestaketa sustatzen zuen. Egungo egoeran, aldiz, lurzoru berrien prestaketa bultzatzeaz gain, hiri-bilbeetan kokatutako lurzoru artifizializatu zaharkituak daude, arazoa sortzen dutenak baina, aldi berean, berronertzeko aukera eskaintzen dutenak. Hori dela eta, ekonomia-jardueretarako lurzoru egokia dago (Irimo eta Kaminpe). Bestalde, lehen adierazi den bezala, indarreko udal-plangintzak 300 etxebizitza berriko eskaintza du, eskaintza horretan birdoitzeak egiteko aukeraren kalterik gabe.

Nabarmendu beharreko hirugarren alderdi bat, epe laburrera Santa Luzian (Beasain-Zumarraga korridorean) Euskal Trenbide Sare Berriko geltoki bat martxan jartzea aurreikusteak eskaintzen duen aukera da. Hiru euskal hiriburuetako Eremu Funtzionaletarako proiektatutakoez gain, Euskal Autonomia Erkidegoan aurreikusitako bakarra da eta, gainera, hiriburuen erdigunean dago kokatuta. Geltoki horrek eskain ditzakeen aukerak estrategikoak izan daitezke Goierriren, Urola Garaia eta Urretxuren etorkizunerako. Horretarako prestatzea interesgarria da, nolatan ere.

Nabarmendu beharreko laugarren alderdia Urola Garaia eta, bereziki, Urretxuren bokazio ekintzailea da, esku artean dugun testuinguruan kontuan izan beharreko aktibo gehigarria, bere gizarte- eta elkarre-ehuna den bezala.

Nabarmendu beharreko bosgarren alderdia dokumentu honetan aipatu diren aldaketa demografikoen behaketatik ateratzen dena da. Behaketa horien arabera, azken urte hauetan Urola Garaia gaintu egin du Oria Garaia biztanleriari dagokionez. Gipuzkoako beste zona batzuetarantzko emigrazio-prozesua gertatzen ari dela ikusi da, lurraldearen harrera-ahalmenaren eta xede horretarako susta daitezkeen ekintzen ondorioz alderantzikatu litekeena.

Eta horretarako, nabarmendu seigarren alderdi bat Urola Garaia ingurumen-nolakotasuna. Urola Garaia erakargarria da bertakoentzat nahiz bertan finkatzea aukeratzen dutenentzat, joan zen mendeko 50eko, 60ko eta 70eko hamarkadetan gertatu zen bezala. Ingurumen-nolakotasun hori asko hobetu daiteke horretarako behar diren neurriak aurreikusiz eta ildo horretan ari da lanean Tokiko Agenda 21etik eta mugikortasun- eta irisgarritasun-arloan onartutako planekin.

Bestalde, ziurgabetasun handiko egoera batean, etorkizunera begira dudarik gabe eragina izango duen alderdi bat lidergo-gaitasuna izango da, hein handi batean udalari dagokiona, eta baita proiektu bideragarri bat proposatzeko gaitasuna, herritarren babesa eta ahalik eta adostasun handiena izango duena, behar diren inbertsioak erakartzea lortzeko sinesgarritasuna eta konfiantza bereganatuz.





Ikusitako hirigintza-kulturak eta Urola Garaiaren esparruan elkarrekin lan egiteko dinamikak (baterako mugikortasun-planak, ekipamendu-zuzkidura osagarria, etab.) aktibo bat gehiago izan behar dute esku artean dugun testuinguruan.

Erdigunean, bestalde, ekonomia-jarduerak daude: merkataritzakoak, industrialak edo askotariko hirugarren sektorekoak, batez ere bizitegi-eraikinen beheko solairuetan kokatuta. Jarduera horiek hurbiltasuneko merkataritza-ehun garrantzitsuaz hornitzen dute udalerrria.

Testuinguru horretan, Planaren epemugan demografia-ikuspegitik gerta daitekeenaren kalterik gabe, Plana idazteko ikuspegitik, a priori, hiru hipotesi hauek formulatzea planteatu da:

- Lehen kontserbadorea da, biztanle-kopurua txikitu egingo dela aurreikusten du, azken boladan gertatu den bezala, eta zalantzan jar dezake edo gutxienez murriztu etxebizitza berriaren benetako premia, eskaera murrizten ari den populazioarekin konpentsatzen delako. Nolanahi ere, agertoki ezkorra izango litzateke Urretxuren etorkizunerako.
- Bigarren hipotesiak aurreikusten du biztanleria 2001-2016 aldiko ereduari jarraituz haziko dela hurrengo 8 urteetan. Agertoki horrek 6.900 biztanletan utziko luke Urretxuko biztanle-kopurua 2026ko epemugan, eta 500 bat unitatetan etxebizitza-eskaera.
- Hirugarren hipotesiak aurreikusten du Urola Garaia gai dela bere industria-ehun zaharkitua eraldatzeko-prozesuari aurre egiteko lurzoru-erabilgarritasun horrek eskaintzen duen aukera eta ETSB martxan jartzen denean Santa Luziako geltokiarekiko izango lukeen kokapena aprobetxatuz. Agertoki horrek lekua birkalifikatzeko prozesua eragin eta erakarpen-ahalmena izan lezake eta, horren ondorioz, Urretxuk Planaren epemugan 7.000 biztanletik gora izatea ekar lezake.

Argi dago ziurgabetasun asko direla. Hala ere, Plan Orokor berriak aurre egin beharko dio erronkari.





### **III.- AURRERAKINAREN KOMENIGARRITASUNAREN ETA AUKERAREN JUSTIFIKAZIOA.**

Urretxuko Hiri Antolamenduko Plan Orokor berri bat idazteko komenigarritasuna eta aukera zeregin honi ekiteko eta lan hau egitea eskatzeko udal-erabakian justifikatzen dira.

Lege berria betetzen ez zuten plangintza orokorreko tresnak lurzoruaren legeria berrira egokitzeko premiari ere erantzuten dio erabakiak, kasu honetan gertatzen zen bezala. Nolanahi ere, udala, egungo egoeran, udal-antolamenduaren berrikuspenari ekiteko premiaz ohartzeari erantzuten dio erabakiak.

Horrek guztiak erabat justifikatzen du ekimenaren egokitasuna.

### **IV.- ANTOLAMENDU-PROPOSAMENA.**

#### **IV.1.- Proposamena egiteko oinarriak**

Lehen adierazi den bezala, 2016an eta 2017an egindako indarreko Arau Subsidiarioen azterketaren ondorioz, udalak haien berrikuspenari ekitea eta Plan Orokorra idaztea erabaki zuen.

Prozesuari hasiera eman ondoren, udalak Informazio eta Diagnostikoko dokumentua ere badu eta, horren ondorioz, diagnostikatutako egoerari, udal-proiektua berrikusteko helburuari eta udal-proiektua indarreko legeriara egokitzeko aginduari erantzuna emateko behar diren erreferentziak ditu.

Aurrerakin hau udalerrriaren etorkizunerako proposatu beharreko antolamendu berrira egin beharreko lehen hurbilketa da, haren hiri-eraldaketa eta -birkalifikazio prozesuari jarraipena emateko.

Egindako diagnostikoaren arabera, dokumentu honetako II. epigrafean dagoena, Urretxuk oinarri hauetan finkatutako udal-proiektu berri bat behar du etorkizun hurbilerako:

- Planaren sistematika eta bere araudiaren erregulazioa birdefinitzea.
- Ondare eraikiaren parterik handiena finkatzea, birgaituz eta berrituz.
- Lurzoru berrien artifizializazioa minimizatzea edo ekiditea.
- Bizitegi-lurzoru berrien eta babes publikoko etxebizitza-zuzkiduraren antolamendua birdoitzea.
- Ekonomia-jarduerak eta, bereziki, industrialak hartzea xede duten zonak zehaztea.

- Esku hartzeko erabakia hartu den edo hartuko den lurzoruen erabileren intentsitatea zentzuz eta modu egokian optimizatzea.
- Espazio libreen sistemaren antolamendua birdoitzea.
- Espazio publikoa hobetzea eta irisgarritasun-baldintza hobeekin hornitzea.
- Bide-antolamendua birdoitzea (hegoaldeko sarbidea, Gainzabal-Pagoeta konexioa, beste batzuk).
- Landa-ingurunearen antolamendua birdefinitzea.
- Egoera enkistatuak ebaztea.

Aurrerakin honetan azaldu diren antolamendu-helburuek eta -alternatibek izaera irekia dute, eta ez itxia. Horregatik, doitu egin daitezke Plana idazteko eta izapidetzeko prozesuan zehar. Berrikuspen-prozesuaren hasierako fase honetako berezko eztabaidak orain planteatzen diren helburuak eta proposamen orokorrak aberasteko, zuzentzeko eta osatzeko balio behar dute, batik bat. Planteatutako alternatibak ez dira estankoa, soluzio mistoak edo desberdinak ere onartu eta iradoki ere egiten dituzte eta onartu beharreko irizpide, helburu eta plangintza-soluzio orokorretarantz joateko eta hasiera batean ingurumen-ebaluazioa orientatzeko ibilgailu gisa ulertu behar dira. Gauzak horrela, hirigintzako esku-hartzeak antolatzeko eskemak eta hurrenez hurreneko hurbilketetan soluzio egokiak lortzeko aukera emango duten jarduketa-lerro posibleak antolatzen dira.

Oinarri horiek ditu Aurrerakinak eta Plan Orokorra idazteaz arduratu den talde teknikoak, udaleko ordezkariak eta udaleko zerbitzu teknikoek ildo horretan lan egin dute etengabe.

#### **IV.2.- Proposatuko den bizitegi-lurzoru eskaintzaren norainokoa**

Egindako diagnostikoaren ondorioz, datorren hamarkadarako Urretxurako hiru egoera demografiko kontuan hartzea planteatu da: egoera demografiko erregresiboa, Planaren epemugako populazioa 6.600 biztanlera jaitsi daitekeena; egoera kontinuista, populazioa 6.900 biztanlera hel daitekeena; eta hirugarren egoera hazkundekoa, populazioak 7.000 biztanleko kopurua ere gainditu dezakeena.

Udalerriak, gaur egun, 3.000 etxebizitza inguruko parkea du 7.000 biztanle inguruko populazioarentzat. Etxebizitza okupatuko batez besteko okupazioa 2,48 pertsonakoa da eta etxebizitza hutsen parkea etxebizitza guztien % 3ra mugatzen da. Hiru egoeretako edozeinetan, bestalde, neurri handiagoan edo txikiagoan, aipaturiko indizea nabarmen murriztuko dela aurreikusten da zahartze-tasa handitzearen eta gizartearen bizimoduen aldaketaren ondorioz, eta etxebizitza hutsek, duten garrantzia kontuan hartuta, ostatu-premiei ez diela erantzun handirik emango ikusten da.



Horregatik, Plan Orokor berriak, lehendik dagoen bizitegi-parkea birgaitzen eta berritzen laguntzeaz gain, neurri handiagoan edo txikiagoan, etxebizitza-garapen berriak aurreikusi beharko ditu. Xede horietarako, indarreko Arau Subsidiarioek oraindik egikaritu gabeko 300 etxebizitza baino zerbait gehiagoko etxebizitza-eskaintza gehigarria dutela antolatuta ikusi da eta lurralde-antolamenduaren esparrutik, gutxi gorabehera 255 eta 510 etxebizitza arteko tarteaz zarrira dago, gaur egun, epe laburreko bizitegi-eskaintza berrirako.

Horren ondorioz, Aurrerakin honetan, gauzatutako prozesua eta prozesuari dagokion udal-eztabaida kontuan hartuta, bizitegi-arloan hainbat proposamen formulatu dira eztabaidarako, alternatibak aztertzeko eta jarraitu beharreko irizpideak eta helburuak zehazteko.

Alde batetik, a priori, indarreko Arau Subsidiarioen egikaritu gabeko honako eremu hauei buruzko proposamenak berresten dira:

- Gurutze Auzoa (AIR 1): 101 etxebizitza eraikitzeko + 44 eraikitzen
- Altamira – Santa Barbara (AIR 5): 51 etxebizitza - 5 lehendik daudenak
- Gainzabal (AIR 16): 76 etxebizitza

Hori, hala ere, AIR 5 eremuan aurreikusitako jakineko antolamendu xehatua birplanteatzearen kalterik gabe egingo da, ez baitu onartutako birpartzelazio-proiekturik.

Bestalde, ondoren aipatuko diren jarduketan egokitasuna berresten da, zenbait kasutan, gaur egun aurreikusitako eraikigarritasunean ondoren planteatzen denaren arabera birdoikuntzak aurreikustearren kalterik gabe:

- Barrenkale (AIR 3): 3 etxebizitza eraikitzeko
- Elgea (AIR 4): 27 etxebizitza eraikitzeko - 4 lehendik daudenak
- Rodriguez (AIR 14): 31 etxebizitza - 9 lehendik daudenak
- Pagoeta txaletak (AIR 18): 6 etxebizitza
- Ipeñarrieta 28 eta 30: 20 etxebizitza - 12 lehendik daudenak
- Ipeñarrieta (AIR 19): 20 etxebizitza + alternatiba 34ekin

Halaber, bizitegi-garapen berrien balizko antolamendua planteatzen da azpieren gehigarri berri batean:

- Komentua Gainzuri ondoan Labeagan: 60 etxebizitza - 1 lehendik dagoena

Bestalde, bere garaian egikaritu ez diren aurreko ekimen batzuk baztertzea proposatzen da:

- Urzelai (AIR 17): 18 etxebizitza - 3 lehendik daudenak
- Ipeñarrieta 40 (AIR 20): 6 etxebizitza - 6 lehendik daudenak

Horrek guztiak lehen aipaturiko tartean sartuko litzatekeen proposamena eragingo luke eta baliteke ordeztuko zenbait jarduketa xede horretarako jarraibideen arabera ez zenbatzea.

IV.6.3 epigrafean deskribatu dira antolamendu-proposamenak, proposatzen diren alternatibak barne.

Esparru global horretan, Plan Orokorra dagokion erantzuna proposatu behar du egoera kontuan hartuta, baina baita udal-proiektuaren etorkizuneko helburuak eta aurre egin beharreko zortzi edo hamar urteko epea ere. Epe horretan, seguruenik, ziurgabetasunak desagertu egingo dira eta udalerriak prest egon behar du, finantzaketa lortzeko arazoan aurrean eskaerak behera egin duela ikustearen kalterik gabe.

Egoera horretan, lortutako informazioaren arabera, 2012 baino lehenagoko Arau Subsidiarioak agortzearekin batera gertatutako krisialdiko aldi gogorrean izan ezik, etxebizitza berriak egiteko baimenak, birgaitzeko esku-hartzeei dagozkienak alde batera utzita, urteko 30 bat izan direla kalkulatu da. Zortzi urteko aldiaren eritmo horri jarraipena emateko, 240 etxebizitzakoa izan beharko litzateke eskaintza. Zentzuzkoa izango litzateke, merkatuaren zurruntasuna, kudeaketa-zailtasunak eta udalerraren tamaina kontuan hartuta, eskaintza hori % 60 inguru gaintzea (merkatuaren zurruntasun-koefizientea 1,6koa).

Halaber, udalaren erabakiak kontuan izango du proposatutako antolamendutik ateratzen diren hiri-eraldaketen aukera, kasu askotan bizitegi-eskaintza soiletik harago doana, eta hobekuntzak eskaini ditzake hiri-birkalifikazioan edo irisgarritasun unibertsalean.

Ordezteko edo garapen berriak egiteko proposamen horiei hirigune historikoa birgaitzeko helburuak gehituko zaizkie. Horretarako, indarreko Plan Berezia berrikusteko eta Aparicioko bizitegi-eremua, bere hiri-berroneratzerako, Eremu Narriatu izendatzeko premia balioetsiko da hurrengo faseetan.

Bestalde, dokumentuaren behin betiko formulazioak globalki birdefinituko ditu eremuei babes publikoko (soziala eta tasatua) etxebizitzaren eta etxebizitza libreen tipologiaren zenbatekoak eremuei esleitzeko indarreko zehaztapenak, indarreko Arau Subsidiarioetan xedatutakoak kontuan hartzearen kalterik gabe.

Hala, Aurrerakin honek hainbat alternatiba ditu. Alternatiba horiek eskaintzen duten aukera-sorta zabala erakusten du udalerriko bizitegi-eskaerari erantzuna emateko, a priori, ez dela nahitaezkoa lurzoru berriak (lurzoru urbanizagarriak) artifizializatzea.

Erabakiak hartzeko orduan, kontuan izan beharko dira beste alderdi batzuk ere: etxebizitzaren eta bizitegi-moten batez besteko tamaina, etxebizitzaren edukitza-erregimena, ekimen publikoaren etxebizitzaren sustapenean eta beste ostatu-modalitate batzuk proposatzeko aukera, esaterako, lurzoru eta hirigintza legeriak aurreikusitako zuzkidura-ostatuak.

Esparru horretan nabarmendu egin behar da udalerriko etxebizitzaren merkatuko prezioak, oro har, ez direla iristen babes publikoko etxebizitza tasatuentzako ezarritako gehienekora.

#### **IV.3.- Proposatuko diren ekonomia-jardueretarako lurzoru-eskaintzaren norainokoa**

Udalerrian askotariko jarduerak daude ezarrita. Hirugarren sektorera bideratutakoak dira nagusi, industria-sektoreak ere pisu esanguratsua izaten jarraitzen badu ere. Landa-sektorea, aldiz, % 0,3ra mugatzen da, lurraldearekin duen harreman estuaren ondorioz duen garrantziaren kalterik gabe.

Planak, alde batetik, landa-ingurunearen antolamendua aurreikusiko du eta, bestetik, ekonomia-jarduera berriak ezartzeko lurzoru-eskaintza bideratuko du, lehendik daudenak finkatuz eta guztientzako behar den erregulazioa ezarriz.

Hala, hirigunean bizitegi-, zuzkidura- eta merkataritza-sektoreen eta hirugarren sektorearen arteko nahasketa sustatzen ahaleginduko da Plana, hirigunean bizitegi-erabilerarekin bateragarriak diren jarduerak ezartzea ahalbidetuz, beheko solairuetan, eraikinetako goiko solairuetan nahiz eraikin independenteetan, gaur egun izapidetzen ari den Urretxuko Arau Subsidiarioen 2. Aldaketan aurreikusitako guztiarekin gertatzen den bezala.

Bestalde, Irimo eta Kaminpe eremuetan xede horretarako kalifikatutako lurzoru artifizializatuak daude, erabiltzen ez direnak eta abandonu-egoeran daudenak. Lurzoru horiek egokiak dira hiri-berroneratzerako eta askotariko ekonomia-jarduera berriak ezartzeko, batez ere industria-jarduerak.

Arau Subsidiarioek, bestalde, hirigunearen iparraldean eta jarraian hilerriaren aldamenean kokatutako 1 Gerra izeneko sektorea industria-lurzoru gisa kalifikatu dute.

Horrek guztiak eskaintza zabala eragiten du, osotasunean kontuan hartu beharko dena edo, bestela, hein batean baztertu Aurrerakin honen inguruan sustatu beharreko eztabaidaren ondorioz.

Eskaintza horrek enpresa eta lanpostuen sorrera bideratu dezake eta, ondorioz, udalerriko langabezia-tasa murrizten lagundu, 2017an % 9,5ekoa zena.

Bizitegi-eskaintzaren inguruan adierazi den bezala, ekonomia-jardueretarako lurzoruaren eskaintzak ere dagoen eskaerari aurre egin beharko dio hasiera batean, baina baita lurzoru erabilgarrien ahalmenera eta udalerraren hiri-birkalifikaziorako egin nahi diren eraldaketara eta hiri-berroneratzerara ere.

Testuinguru horretan gehitu beharrekoa da indarrean dagoen ekonomia-jardueretarako eta merkataritza-ekipamenduetarako Lurzoru Publikoa sortzeko Lurraldearen Arloko Planak, ekonomia-jardueretarako lurzoruaren lehentasuneko kokapenerako interesekotzat jotzen duela udalerria, eta aipatu berri diren proposamenak eta antzekoak berariaz baimentzen dituela.

Nolanahi ere, testuinguru horretan, egokitzen jotzen da eskualdeko ikuspegitik egon daitekeen eskaintza kontuan hartzea. Urretxuko biztanleria aktiboa udalerrian dagoen enpleguaren gainetik dago. Horrek esan nahi du gaur egun eskualdearen mende dagoela. Horregatik, jarduera berriak ezartzeko lurzorua antolatzeak lagundu egin dezake udalerrian enplegu berriak sortzen.

#### **IV.4.- Antolamendu-irizpideak eta -helburuak**

Lortu beharreko lehen helburu gisa udalerria hiri- eta ingurumen-ikuspegitik birkalifikatzea proposatzen da, Urretxuren erakargarritasuna hobetzeko eta biztanleak bertan geratzen eta erakartzen laguntzeko helburuarekin.

Hirigune ondoko Euskal Trenbide Sare Berriko geltoki berriak eskaintzen dituen, eskain ditzakeen edo eskain ditzan lor daitekeen aukerak helburu hori lortzea erraztu dezaketen aukera bat dira.

Horretarako, adierazitako ildoari jarraituz, udalerriko ekonomia-jarduerak finkatu beharko dira eta beste berri batzuk ezartzea bideratu beharko da; eta baita bizitegi-parkea ere, birgaituz eta bizitegi-garapen berriak ahalbidetuz, lehen adierazitako ildoari jarraituz. Horretarako lurzoru egokia dago, aurreko bi paragrafoetan adierazi den bezala.

Horrela, jarraipena eta indarra eman ahal izango zaio udalerrian gertatzen ari den hiri-eraldaketari indarrean dagoen udal hirigintza-plangintzaren, Urretxu eta Zumarragaren baterako hiri-mugikortasun jasangarriaren planaren eta berriki eguneratutako tokiko irisgarritasun-planaren babespean. Udalerria horretan ari da lanean.

Hala ere, ezinbestekoa da udalaren lidergoa, lehenbizi, egin beharreko hiri-berritzea eta -berroneratzea bideratzen dituen zehaztapenean eta, gero, kudeaketan, udalerriak aurre egin beharreko egoerak eskatzen duen bezala.

Hasierako zehaztapen hori etorkizuneko udal-proiektua idazteko prozesuaren emaitza izango da, Plan Orokorr hau formulatzeko ekimenarekin behar bezala bideratuta, herritarren eta gizarte-eragileen dinamizazioarekin lagunduta herritarrek parte hartzeko programan aurreikusitakoaren arabera.

Horrela planteatutako erronkak aliatu bat aurki dezake udalerriko bizitegi-merkatuaren eta ekonomia-jardueren merkatuaren prezioetan, Gipuzkoako batez bestekoa baino baxuagoak baitira.

Hala, udal-proiektuan oinarrituta, beharrezkoa izango da ahal diren inbertsio publiko eta pribatu guztiak eragitea, ahal diren sinergia gehienak bilatuz Urretxu finkatzeko helburua lortzeko eta, aldi berean, Gipuzkoako lurralde-oreka ahalbidetuz (kostaldekoa eta barnealdekoa).

Lurzoru arloan eta hiri-berritze, -berroneratze eta -birgaitze arloan onartutako estatuko legeria berriak jarduketa-lerro horretan eragiten du. Lerro hori, bestalde, hasiera emandako hiriko eraldaketa-prozesuari amaitu arte jarraipena ematean oinarrituko da eta lurzoru berrien artifizializazioa erabat ekidinez, antolamendu-irizpide jasangarriei jarraituz.



Bestalde, esparru-helburu horretaz gain, egindako diagnostikoari erreparatuz, honako hauek dira, beste batzuen artean, proiektua egiteko orduan kontuan hartu beharreko helburu nagusiak:

- Garapen iraunkorragoari bide emango dion lurralde-eredua ahalbidetzea, hirigunearen erabileraren optimizazioan oinarrituta, egokia den tokietan erabilera-intentsitate altuak eta, aldi berean, zentzuzkoak aurreikusiz, ekonomia-jarduerak dibertsifikatuz eta bizitegi-erabilerekin modu bateragarrian txertatuz. Horretarako, mugimendu ez-motordunak eta garraio kolektiboaren bultzada ahalbidetuko dira.
- Testuinguru horretan biodibertsitatea finkatzen eta lehengorutzen ere ahalegintzea, edozein kasutan, udalerriko biztanleengan eta ondorengo belaunaldietan arreta berezia jarritz.
- Udalerriko bizi-kalitateari eustea eta hura hobetzea, hirigunearen erabilera optimizatuz eta dibertsifikatuz, ondare eraikia eta urbanizatua berrituz eta balioztatuz, ekipamendu-zuzkidura finkatuz, abian jarritz eta handituz, landa-eremuaren erabilera-baldintzen erregulazioarekin inguruneari balioa emanez eta hirigunea Urola ibai aldera irekiz, inguru horretan aisialdirako gune nagusia eta Urretxu eta Zumarragako hirigunearen ardatza bilatuz.
- Biztanle egoiliar gazteak finkatzea eta biztanle gehiago erakartzea. Horretarako, behar adinako lurzoru-eskaintza egingo da kokapen-, prezio- eta tipologia-baldintza egokietan, lehendik dagoenaren eta lurraldearen gaitasunaren erlazio egokian.
- Errenta-mailei eustea eta horiek handitzea, lehendik dauden ekonomia-jardueren premiak, behar diren lekualdaketak barne, eta beste ekimen batzuk hartzeko ahalmena duen lurzoru prestatuz, industria-jardueren ezarpena eta hirugarren sektorearen garapena ahalbidetuz, batez ere enpresentzako zerbitzuekin, ikerketarekin, garapenarekin eta berrikuntzarekin, turismoarekin, aisiarekin eta ostalaritzarekin zerikusia duenarena, eta baita merkataritza ere hirigunearen dinamizatzaile gisa, eta lehen sektorearen eta lehen sektore horretatik zuzenean eratorritako jardueren hobekuntza aintzat hartuz.
- Udalerraren gizarte-ongizatea hobetzea, biztanleen integrazioa, konfiantza eta segurtasuna, kultura eta hezkuntzarako sarbidea, zuzkidurak, ekipamenduak, etxebizitza eta herritarren oinarritzko gainerako eskakizunak bermatuz eta, aldi berean, kontsumoaren kontrolatuz eta gizarte-ongizatea "murriztea" eragingo ez duen oreka bilatuz.
- Berdintasuna eta, bereziki, genero-berdintasuna bermatzen duten neurriak hartzea, "puntu beltzak" ekidinez eta behar diren irisgarritasun unibertsalerako baldintzak ahalbidetzen dituzten neurriak aurreikusiz.
- Ahal izanez gero udalerrri barruan lekuz aldatu behar diren industria-jardueren lekualdaketa ebatzeko oinarriak finkatzea.
- Hirigune historikoa birgaitzeko prozesuari jarraipena ematea eta Aparicio auzoa Eremu Nariatu kalifikatzea aurreikustea eta, hala badagokio, baita Mundu Mejor eta Santa Barbara ere, haren hiri-berroneratzerako baldintzak errazteko xedez, eta beste eremu batzuen hiri-erlaldaketari ekitea Ipeñarrieta, Labeaga eta beste hainbat kaletan.



- Lehendik dauden industria-garapen gehienak finkatzea, ekimen horiek bizitegi-garapenekin bateragarriak diren eta horietan kokatuta dauden edo independenteak diren baina hiri-bilbearen jarraian dauden beste tipologia bateko ekonomia-jardueretarako lurzorua prestatzearekin osatuz, nahasketa, dibertsitate eta konplexutasun handiagoko hirigunea lortzeko xedez.
- Espazio libreen sistema birdefinitzea, Urola ibaian eta horren ezker aldean sistemaren ardatz eratzailea bilatuz.
- Ekipamendu-zuzkidura hobetzea, lehendik dauden zuzkidurak osatzea eta horien eraginkortasun handiagoa errazten duten partzela berriak aurreikusiz.
- Lurzoru urbanizaezinen antolamenduko baldintzak arautzea, landa-sektorea hobetzea eragingo duten ekarpenak egiteko gai diren ekimen berriak txertatzeko.
- Udal-lurraldera iristeko baldintzak hobetzea, motordunentzat nahiz ez-motordunentzat. Baita hiriko mugikortasuna, irisgarritasun unibertsala, aparkalekua eta garraio publikoa hobetzea eta bizikleta-sarea osatzea.
- Aipatutako helburuei erantzuna ematea ingurumen-ikuspegitik iraunkorrak diren soluzioen bitartez eta, horrela, ondorengo belaunaldien etorkizuna bermatzea. Hemen txertatuko dira baita ere energia aurrezteko proposamenak, zerbitzu-azpiegituren eraginkortasun ahalik eta handiena lortzera bideratutakoak (argiteria publikoa, etab.) nahiz teknologia berriak herritar guztien zerbitzura jartzekoak.
- Proposatu beharreko soluzioak udalaz gaindiko ikuspegitik sustatzen direnekin txertatzea eta koordinatzea.

Funtsezko oinarri horien gainean, dokumentu honetan honako irizpide hauek planteatzen dira udal-lurraldearen gaineko esku-hartzeari dagokionez:

- Hiri-izaerako erabileretarako lurzoruaren kontsumoa minimizatzea, hautemandako premietarako erantzun zehatzera mugatuz eta aurretik dagoen hiriguneak eskain ditzakeen baliabideen erabilera optimizatuz.
- Landa-izaerako lurzoruko esku-hartze, erabilera- eta eraikuntza-erregimena arautzea, aipaturiko inguruneak berezkoak dituen balioak babestuz, biodibertsitateari lagunduz, lehen sektorearen garapenarekin, kalitate bereziko lurralde baten gozamenarekin eta paisaiaren antolamenduarekin lotutako produktibitatea bultzatuz eta landa-sektorearen balizko birmoldaketa eragingo duten ekarpenak egiteko gai diren ekimenak txertatuz (balio hidriko eta geologikoak balioetsi edo lurzoru artifizializatuak lehengoratu, esaterako, Iturbe behekoa baserri inguruko ibarbidea).
- Hiriguneko lurzoruaren erabilerak arautzea, dibertsitatea eta nahasketa bultzatuz, baldin eta bateragarriak badira; eta euren kokapen orekatua sustatzea.



- Udalerriaren irisgarritasuna eta udalerria bere lurralde-testuinguruan txertatzea bermatuko dituzten bide-azpiegiturak eta zerbitzu-azpiegiturak (telekomunikazioak, gasa, ur-hornidura, energia elektrikoa, argiteria publikoa, saneamendua, etab.) ezartzea.
- Behar diren tokiko ekipamenduak garatzea, Zumarragako udalarekin batera eta koordinatuta.
- Horretarako guztirako, eraikitako eta urbanizatutako ondarea birgaitzea, beharrezkoak diren hiri-eraldaketa eta -berroneratzeko esku-hartzeak ahalbidetuz.
- Industriako edo hirugarren sektoreko ekonomia-jarduerak ezartzeko lurrak zehaztea.
- Urretxuko plangintza Lurralde Antolamenduko tresnekin (LAA, LZP, LAP, etab.) eta udalerrri mugakideetako (Zumarraga, Legazpia, Antzuola) plangintzekin koordinatzea.

Aipatutako irizpideak ez daude kontraesanean udalerria txertatuta dagoen Goierriko Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Planean jasotakoekin.

Hala, plangintzak erantzuna eman behar dio lurralde-antolamenduak planteatzen duen ereduari hirigintza-antolamenduko xedapenak zehaztuz, lehendik dauden erabilerak eta lurraldearen ezaugarriak kontuan hartuta behar diren erabilerak arautuz eta lurraldean txertatuz eta aipaturiko irizpide eta helburuei erantzuna emanaz.

Horrenbestez, plangintza-aurrerakin honek antolamenduko alternatiba zehatzak ekarriko ditu udalerrirako, aipaturiko helburuak eta irizpideak txertatuz. Helburu eta irizpide horietan, nahitaezkoa zen bezala, dagoeneko txertatu dira, zuzenean edo zeharka, ingurumen-aldagaiak.

Dena den, dokumentuarekin berarekin doa ingurumen-izapidetzerako nahitaezkoa den hasierako dokumentua eta Aurrerakina jendaurrean edukitzearen ondorioz eta Ingurumen Organo eskudunak egin beharreko erreferentziatzko dokumentuan xedatzen denean, erabakiak hartzen joango da, ingurumen-ebaluazio estrategikoko dokumentuan alternatiben ingurumen-ebaluazioa egiten den bitartean.

Alternatiba horiek ondoren deskribatu eta ebaluatuko dira eta, aldi berean, dokumentu hau osatzen duten planoetan irudikatuko dira.

Lehen adierazi den bezala, aipatutako helburuek bigarren maila batean uzten dituzte aintzat hartu beharrekoak diren beste helburu batzuk, hala nola udal-plangintza orokorra lurzoruari eta hirigintzari buruzko estatuko nahiz EAEko legeria berrira, eta LAGeko zehaztapenetara egokitzeko lege-betebeharra.

Diagnostikatu den bezala, Urretxuk hiri-erakarpeneko ahalmena handitzea behar du, ekonomikoki garatutako gizarteek gaur egun eskatzen duten ingurunearen kalitate-eskaerari erreparatuz, eta hiri-berritzea eraldaketa handiago baten elementu katalizatzailea izango duen plana eskatzen du. Hori da datozen urteetarako gako-erronka. Kontua da identifikatuta dagoela eta udala martxan jarri dela erronkari aurre egiteko.

Dena den, hemen berriro esan behar da Plan Orokor berria beharrezko dokumentua bada ere, ez dela nahikoa, izan ere, udal-lehentasunek eragin beharko duten ondorengo egikaritzea eta beste osagai batzuk beharko baititu, beste administrazio batzuen inplikazioa eta inbertsio pribatua barne.

Azkenik, munduko Hiri Agenda Berria implementatzeko sustatutako 2018ko otsaileko Kuala Lumpurreko Hiriei buruzko Adierazpenean (2030) xedatutakoaren arabera, formulatu beharreko proposamenek hiri seguru, osasungarri, irisgarri eta jasangarria ahalbidetu behar dute denentzat. Hori da erronka.

#### **IV.5.- Landa-ingurunearen antolamendurako hurbilketa**

Adierazitako irizpide eta helburuen ondorioz, Memoria honetako azken ezaugarrien tauletan ikus daitekeen bezala, egin beharreko proposamenak gaur egun lurzoru urbanizaezin gisa sailkatutako azalera finkatzea ekarriko du. A priori, ez da aurreikusten landa-lurzorua artifizializatzea lurzoru hiritar edo urbanizagarrian txertatuz.

Lehen irakurketa hori egin ondoren, plangintza-aurrerakin honek laneko lehen fase honetatik egin du Urretxuko lurzoru urbanizaezina antolatu eta zonakatzeko proposamena, II.6 planoan identifikatutako Antolamenduko Zona Globalak mugatzeko lehen proposamen batekin gauzatzen dena.

Proposamen hori askotariko arrazoiengatik jakineko Baldintzatzaile Gainjarri batzuen baitan jartzea proposatzen den lurzoruen zehaztapenarekin osatu da, II.7 eta II.8 planoetan jasota dagoenaren arabera.

Bai zona global horiek eta bai baldintzatzaile gainjarrien xede diren eremuek Plan Orokorraren behin betiko dokumentuan zehaztuko den erregulazio espezifiko izango dute. Araudi horiek, bereziki, EAEko Nekazaritza eta Basoak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planean eta aplikatu beharreko sektoreko legerian xedatutakora doituko dira.

##### IV.5.1.- Landa-ingurunea antolatzeko Zona Globalak.

Plangintza-aurrerakin honek lehen hurbilketa egiten du Urretxuko udal-mugartearen zonakatzeko globaleko proposamenera eta, bereziki, landa-lurzoruarenera.

Proposamen hori indarrean dagoen EAEko Nekazaritza eta Basoak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planeko zehaztapenetan oinarrituta egin da (irailaren 16ko 177/2014 Dekretuaren arabera behin betiko onartua), zenbait arlotan aplikatu beharreko zehaztapenak kontuan hartzearen kalterik gabe, esaterako, babesa, ingurumena, ibilguen eta ibaiertzen erregulazioa, zerbitzu- eta komunikazio-azpiegiturak eta espazio libreen sistema orokorreko elementuak.

Esparru orokor horren arabera, proposamena egindako landa-lanetik eta lurraldera egindako hurbilketa handiagoaren eta eguneratuagoaren ondoriozko zehaztapenetatik atera da.

Proposamenak ekosistema naturala zaintzen du, ingurumen-balio handieneko eremuak babesten dituelako; gainera, lurzoru urbanizaezin guztia dituen baliabide, balio, erabilera eta gaitasunen arabera antolatu eta zonakatzen du. I.3 planoan daude jasota zonakatze globala zehazteko kontuan hartu den udal-lurraldeko landarediaren egungo egoera eta lurzoruaren erabilerak, beste hainbat aldagai kontuan hartzearen eta guztia Nekazaritza eta basoak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planeko zehaztapenekin alderatzearen kalterik gabe. Halaber, ekintza positiboko neurriak planteatzen ditu narriatutako, hondatutako, aldatutako eta ingurumen-ikuspegitik arriskuren bat duten eremu edo espazioetarako, arrisku horiek murrizteko edo desagerrarazteko.

Honako hauek dira Antolamenduko Zonak:

- Nekazaritza eta abeltzaintza zonak.

Askotariko ahalmen agrologiko eta nekazaritza-erabilerako lurzoruak hartzen ditu tipologia horrek. Nekazaritza-, abeltzaintza eta basogintza-erabilerak nahasita daude eta txandakatu egin daitezke denboran zehar hainbat faktoreren arabera, esaterako, merkatuen bilakaera, nekazaritzaz kanpoko eskariak edo ustiapenen orientazio-aldaketak, eremu horien funtzio anitzeko izaera islatuz.

Udalerriko erabilera nagusia sega-belardiena da, fruta-arbola eta baso-unadekin mosaikoa eratuz, labore atlantiko eta bazka-labore txikiekin batera.

EAEko Nekazaritza eta Basoak antolatzeko LAParen arabera, honako azpieroak hauek daude:

- Balio estrategiko handiko nekazaritza- eta abeltzaintza-gunea.

Hiri-erabileretatik kanpo egon diren ahalmen agrologiko handieneko lurzoruak Urola ibarrean daude (III. mota agrologikoa) eta, batik bat, baratze eta sega-belardi erabilerak dituzte zuhaitz autoktonoen unadak tartekatuta.

Eremu horiek, nekazaritza-sektorearen ikuspegi estrategikotik lehentasunezko zatitza jotzen dira hura mantentzeko eta babesteko, eta EAEko Nekazaritza eta Elikadura Politikari buruzko 17/2008 Legeak artículo 16.1, gizartearen intereseko ondasuntzat jotzen ditu.

Zona-kategoria horretan EAEko Nekazaritza eta Basoak antolatzeko LAPean kontuan hartutako orban guztiak Balio Estrategiko Handikotzat sartu dira, Plan hura onartu baino lehen bidearen erabilera okupatzeagatik desagertu zen hirigunerako iparraldeko sarbideak (Sagastitxipi ingurunea) okupatutakoa izan ezik. Babes- eta kontserbazio-xedeetarako horrela kalifikatutako zonak Urolaren ezkerrean daude, hirigunearen iparraldean, Sasieta, Sasietaetxeberri, Eguskitza eta Guerra baserrietatik hurbil.

Esan beharra dago Beasain-Zumarraga LZPea (Goierri) ez dela identifikatu Urretxuko zonarik antolamendu-kategoria horrekin.

- Trantsizioko Landa Paisaiako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zona.

Aurreko zona baino produkzio-ahalmen txikiagoko eremuak dira. Belardiak dira nagusi eta horien artean baso-unada txikiak daude, batez ere bertako zuhaitzenak, haiekin edo fruta-arbolekin mosaikoa eratuz, eta han-hemenka baratze txikiak baserri-inguruetan.

Zona-mota hau bat dator erabilera-ahalmen moderatuko eta txikiko lurzoruekin, batez ere maldak (hainbat kasutan % 20-30 artekoa) ezarritako mugen, drainatzearen eta propietate kimikoen ondorioz. Eremu horiek, oro har, hauskortasun handia dute erabileran, bai kokapen topografikoagatik eta bai sakontasun, ur-erreserba eta emankortasun eskasagatik.

Urretxuko lurralde hain gorabeheratsuaren ezaugarriak eta nekazaritza- eta abeltzaintza-erabilerarako lurren premia kontuan hartuta, gaur egun larretarako, fruta-arboletarako eta baratzetarako erabiltzen diren eremuak zonakatzeko proposamen horretan uzteko ahalegina egin da, bat etorri ez direnean malda handiko zonekin edo higadura-prozesu larri edo muturrekoekin.

Habitat Zuzentarauak batasunaren intereseko habitat gisa hartu dituen sega-belardi asko Zona horren barruan sartu dira, eta ez dira nabarmendu intereseko landaredi gisa, udalerriko nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiapen asko lurzoru horietan bermatzen direlako (larreek hartzen dute Urretxuko nekazaritza-erabileren zati garrantzitsu bat). Dena den, Planak zona horren barruan hartzeak, euren bokazioarekin bat datorren erabilerak araututa, aukera emango du, nolabait, haiek babesteko, abeltzaintza-jarduera eta habitat-mota hori garatzen laguntzen duten teknikak garatzen jarraitzea ahalbidetzen duelako. Ez da ahaztu behar horien jatorria artifiziala dela eta horien kontserbaziorako oso garrantzitsuak direla baserritarra eta belarjaleen jarduna, hura zapalduz eta ongarrirituz egonkortzen laguntzen dutelako. Bestetik, belardi-mota horientzako Habitat Zuzentzarautik (92/43/EE) sortutako babes-konpromisoak Batasunaren Garrantzizko Lekueta (BGL) sartutako habitatetan aplikatu beharrekoak dira, hau da, Natura 2000 Sarean sartutako espazioetan. Habitat-mota horren presentzia duten gainerako lurraldeentzat aldiz, esku artean dugun kasuan bezala, zaintza-eskakizuna soilik dago xedatuta, aipaturiko Zuzentzarauko 11. artikulua araber.

Zona horiek udal-mugartearen hegoaldeko erdian daude, orientazio ona duten mendi-hegaletan, Irimoko mendi-hegal baxuko eta ertaineko zonetan eta Urola ibaiaren ezkerrean, lurzoru horiek hiri-erabilerak okupatuta ez dituztenean; eta udal-mugartearen ipar-ekialdean, Beainandikoa eta Beainemendikoa baserrien inguruan. Zona horietan daude udalerriko baserri gehienak: 600 m kotatik behera, hegoaldean, 500 m baino beherago, hego-ekialde-ekialdean eta, 600-450 m artean, ipar-ekialdean.

Nolanahi ere, eremu horietako gehienak, lehen deskribatutako ezaugarriak kontuan hartuta, maneian nolabaiteko zaintza behar duten lurzoruei dagozkie eta beren ahalmen agrologikoari, nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduerari eta, horiekin bateragarriak izanda, ekosistemak eta nekazaritza-paisaiak zaintzea bermatzen duten jarduerari eustea da irizpide orokorra.



Amaitzeko, Nekazaritza eta Basoak antolatzeko LAPean Trantsizioko Landa Paisaia gisa sartutako zona batzuek, gaur egun, zona horietarako xedatutako harrera-ahalmenik ez dutela adierazten da. Besteak beste, Kamineroaren etxetik eta Aginaga auzotik (Zumarragako udal-mugartea) hurbil dagoen meandroaren ezkeraldeko zati baten kasua da, ingurumen-aldaketaren eta -narriaduraren ondoriozkoa (lurzoru naturala desagertu egin da eta zabalgunek zolatua dago, nekazaritza-erabilerarik gabekoa, askotariko erabilerak aspalditik hartzen dituena, esaterako, aparkatzeko zona eta nekazaritzakoa ez den ekonomia-jarduerari lotutako eraikinak). Beste zona batzuk aldatuta daude, esaterako, Erratzu-goikoa baserriaren iparraldean, Erratzu ingurunean kokatutako isurketa-zona, edo indarreko plangintzak (Arau Subsidiarioak) espazio libreko zonatzat kalifikatuta ditu (Sasietako meandroaren ezkeraldea), eta beste zona batzuk, gaur egun, basogintzako erabilera emankorrenekin (Mendizabal baserriaren ingurunea edo Santa Kutzen hegoaldea, besteak beste), edo bertako zuhaitzekin daude.

#### - Basoguneak.

Urretxuko lurraldearen ezaugarri topografikoek eta egungo erabilerak zuhaitziak izatera bideratu dituzte udalerriko zona asko. Malda handiko, erabilera-ahalmen txikiko edota higadura-prozesu garrantzitsuko eremuak dira.

Baso-erabilerako eremu guztiak zona-tipologia bakarrean bilduta daude, ekoizpen- eta babes-funtzioak elkarrekin lotuta daudelako. Dena den, jasangarritasun-irizpideen ikuspegitik hobe da % 50 baino gehiagoko maldetan (udal-barrutiaren zati garrantzitsu bat, Irimoko mendi-hegal garaiak) baso-erabilera babeslea sustatzea eta baso-soilketako aprobetxamendurik ez egitea. Ildo horretan, ustiapeneko basoberritzeek, lehen fase batean, lan ona egiten dute ingurunea kontserbatzen laguntzen dutelako, baina baso-soilketek ondo egonkortutako edo paisaia integratutako eremu batzuek eraso edo kalte larriak, ekologikoak zein fisiografikoak jasatea eragin dezakete, eta haiek ustiatu ondoren, baita urak eragindako higadura-arazoak, lur-mugimenduak eta egitura ekologikoa nabarmen pobretzea ere. Gainera, baso-ustiapenak baso-pistak irekitzea eta ondoren mantentzea (sarritan alde batera uzten dena) eskatzen du eta, batzuetan, malda handiko eremuetan lur-mugimendu handiak, ibilguen aldaketak, drainadura-obra eskasak, paisaia-inpaktu handia eragiten ditu eta ustiapenetan erabilitako makineriak sortutako olio erabilien kontrolrik gabeko isurketa puntualak eragiteko arriskua ere badago.

Nolanahi ere, baso-espazioaren ekonomia- eta ingurumen-balorazioa kontuan hartuta, ildo horretako edozein jarduketak baso-jabeen, landako biztanleen eta erakunde eskudunen partaidetza izan behar du, basoak ekonomikoki ustiitzeak landa-ingurunea garatzen eta mantentzen laguntzen duelako.

Bestalde, egungo baso-masa aloktonoen ordez, pixkanaka-pixkanaka, bertako espezieak aldatzea ere Urretxuko paisaiaren aniztasuna ahalbidetzeko eta indartzeko asmoaren barruan sartzen da. Gaur egun, koniferoek presentzia handia dute, batez ere intsinis pinuak eta alertzeak. Nolanahi ere, baso-ustiapen orok mendien kudeaketa jasangarriaren aurrean erantzun beharko du eta, eremuan zuhaitzak moztuz gero, berehala berroihaneztatuko da, gaur egun Irimoko eta horren inguruko malda handiko eta hainbat urtez berroihaneztatu gabeko mendi-hegaletan dagoen egoera eta antzekoak saihesteko.



Zona horien antolamendu-irizpidea baso-erabilera zentzuz eta modu jasangarrian bermatzea da, zuhaitzen eta substratuaren ezaugarrien araberrako ustiapen-metodo egokiak erabiliz, lurzorua kaltetu gabe eta higadura-prozesuak eragin gabe (Irimoko mendi-hegalek egonkortasun-arazoak dituzte).

Zona horiek Mendien Foru Arauek eta arlo horretako Administrazio eskudunak sortutakoek arautuko dituzte.

#### - Ingurumen Hobekuntzarako Guneak

Hor sartzen dira ingurumen-ikuspegitik narriatuta eta/edo aldatuta dauden Urretxuko eremuak. Honako hauek identifikatu dira:

- Mendiartz errekarren ezkerreko mendi hegalean, Iturbe-behekoa baserriaren alboan kokatutako ibarbideak GI-632 bide berria egikartzeko obretan sortutako soberako materialarekin egindako betelan baimendua hartu du. Betelan horretan, lehengoratzeprosesua egin du Bidelanek ereite hidraulikoko teknikaren bidez, paisaian eta ingurumenean txertatzeko xedez, gaur egun oraindik erabat lortu ez dena. Nekazaritza eta Basoak antolatzeko LAPak 2009 eta 2011 urteen artean egindako betelanari dagokion orbana hartzen du. 2012tik 2015era bitartean, ordea, lurrak botatzen eta eraginpeko azalera handitzen jarraitu dute eeta, horregatik, Plan honek handitu egin du ingurumen-ikuspegitik hobetu beharreko eremua, 8 hektarea inguruko azalera zabalduz. Gaur egun, lurzoru hori nekazaritza-jardueretarako edo espazio libretarako erabiltzeko aukera aztertzen ari da.

- GI-632 autobia berriaren obrei lotuta, udal-mugartearen hegoaldeko mendi-hegalean partzialki landareztatutako hainbat zona identifikatu dira, baina gaur egun ez da lortu eraginpeko azalera guztia ingurumen-ikuspegitik lehengoratzeta. Nekazaritza eta Basoak antolatzeko LAPak 2009 eta 2011 urteen artean egindako betelanari dagokion orbana hartzen du. 2012tik 2015era bitartean, ordea, handitu egin da eraginpeko azalera eta, horregatik, Plan honek handitu egin du ingurumen-ikuspegitik hobetu beharreko zona, jarduketa hori hein batean gauzatu izanaren kalterik gabe.

- Erratzuko ingurunean, hegoaldeko mendi-hegalean, hainbat zona identifikatu dira: bat industria-pabiloien aldamenean, Zuloaga, Erratzu-goikoa eta Donardegi baserrien artean, 1984-5eko ortofotoan zuhaitzez estalita eta, neurri txikiagoan, belardiekin zegoen ibarbidean (gutxi gorabeherako kota 425-450 m), 1991tik aurrera aldatzen hainbat motatako isuriekin narriatzen hasi zena; bestea UZ enpresaren ekialdean; eta hirugarrena Mendizabal txiki baserriaren ondoan. Pixka bat urrunago, Zabaleta baserritik hurbil, beste isurketa-eremu bat identifikatu da.

- Larreaga baserriaren ondoan ere badago beste isurketa-eremu bat aktibo, deskargatzeko materiala eramaten duten kamioien sarrera/irteerak ikusi baitira. 2002az geroztik lurmugimenduak izan dituen ingurunea da, baina 2012tik gaur egun arte zona handiagoak izan dira kaltetuak (aurreko urteetako isurketa-guneren bat nahiko ondo integratuta dago).

Antolamendu-irizpidea zona horietako ingurumen-baldintzak hobetzea da, ekologikoki gehiago eboluzionatutako egoeretara bideratuz egungo egoera, ingurumen-ikuspegitik hobetzeko eta/edo lehengoratzeko lanen bidez sustatuta.



- Azaleko Urak Babesteko Eremuak.

Ibai-sareak (Urola ibaiak udalerria zeharkatzen duen tartea eta bere adarrak) eta horien babes-ertzak osatzen dute multzoa, EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko LAPean (Kantauriko isurialdea) xedatutakoaren arabera. Horrela, osagai hidraulikoari erreparatuta, Urola ibaia udal-mugarte honetan sartzen denetik (50,85 KP) Mendiartz errekarerekin ezkerretatik bat egin eta Etxeberri errekarerekin eskuinaldetik bat egiten duen arte (47,6 KP) honela dago sailkatuta: I. Maila, arroa  $10 < C \leq 50$  Km<sup>2</sup>. Hortik aurrera, udalerriko ibilbidea amaitzen duen arte (gutxi gorabehera 43,8 KP), Larregi harrobiaren eta Aginaga auzoaren (Zumarragako udal-mugarte) inguruan, honela dago sailkatuta: II. maila, arroa  $50 < C \leq 100$  Km. Mendiartz erreka da 0 mailako bakarra, 1 eta 10 Km<sup>2</sup> arteko ibaiadar-arroa ( $1 < C \leq 10$  Km<sup>2</sup>), eta gainerako ibai-ibilguak 00 mailakoak dira, 1 Km<sup>2</sup> baino gutxiagoko ibaiadar-arroak, eta isurketatzat jotzen direnak. Azaleko uren zona horietan jabari publiko hidraulikoa eta zortasun- eta polizia-zonak errespetatuko dira, uztailaren 20ko 1/2001 ELDk onartutako Uraren Legearen eta lehen aipaturiko EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko LAPen arabera.

Arrantza kontinentalaren aprobetxamenduari dagokionez, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan arrantza kontinentalaren 2017ko aprobetxamendua arautuko duen araudia garatzen duen 2017ko martxoaren 8ko 142 LI/2017 Foru Aginduaren arabera, baimenduta dago hil gabeko arrantza estazioen estalduratik (Urretxuko Akelarre elkartearen atzealdea) Aginaga auzorako (Zumarragako udal-mugarte) GI-3803 errepedirako sarbide-zubirainoko Urola ibaiaren tartean.

Hauek dira eremu horietako jarduera-irizpidearen xedeak: uren kalitatearen kontserbazioa sustatzea, ibilguen eta ibaiertzen okupazioa edo aldaketa saihestea eta naturako arriskuek eragindako kalteak minimizatzea. Halaber, ibaiertzen alterazio-egoera kontuan hartuta, ibaiertzeko landaredirik gabe eta ibilgu-tarte estaliek, zona horiek hobeto zainduko dira ingurumen-ikuspegitik, baldin eta posible bada.

- Larregiko harrobiaren zona.

Ofitas de Urretxu, S.L. edo Larregiko harrobiko aire zabaleko indusketa, Urretxun jardunean dagoen bakarra da. Udal-mugartearen ipar-mendebaldean dago, Urretxu, Antzuola (harrobiaren aurrealdea) eta Zumarraga (Urola ibaiaren eskuin aldeko agregakinen bilketa-zona) udalerrien lurretan. Azken hirurogeita hamar urteetako ortofotoek agerian uzten dute 1954an bazegoela harrobi-ustiapen bat (1945-46ko estatubatuarren hegaldian, aldiz, ez da ageri), eta laurogeita hamarreko hamarkadaren hasiera arte ustiapen txikia izan zela. Laurogeita hamarreko hamarkadaren erditik aurrera eta, batik bat, 2001-2004 artean bi udalerrietako mendi-hegaletarantz hedatu zen, isurketa txiki bat igarotzen den zonan eta Larregi isurketa (Urola ibaiaren ezkerretatik ibaiadarra) igarotzen den tokitik hurbil.

Plan Orokorrak gaur egun eragina benetan jasaten duen azalera jasotzen du, Nekazaritza eta Basoak antolatzeko LAPak jasotzen duena baino handiagoa.



Larregiko harrobiaren jarduera arloan aplikatu beharreko legeriaren arabera egingo da, eta ingurumen-ikuspegitik lehengoratzeko eta integratzeko neurri egokiak beharko ditu bere garaian.

- Komunikazio-azpiegituren zonak.

Zonakatze globalean ere udalerriko bide egituratzaileen bide-sistema orokor gisa sailkatzea aurreikusten da. GI-631, GI- 2632, GI-3771 eta GI-3803 errepideak dira. Ez da sartu GI-632 errepidea, Deskarga mendatean soilik sartzten dena Urretxuko lurraldean, hain zuzen ere, tunel gisa.

Planean jasota dago trenbide-sistema orokorra ere. Hirigunean kokatutako azalera txiki bat baino ez du hartzen (geltokiko trenbide-zabalgunea) eta ekialdea-mendebaldea norabidean zeharkatzen du udalerria, hain zuzen ere, tunel barruan; egikaritzen ari den Euskal Trenbide Sare Berriaren kasua da.

Zonakatze globalean jasota dago bizikleta-bideen sarea ere, eta baita Gipuzkoako bizikleta-bideen Lurraldearen Arloko Planean aurreikusitakoa ere.

- Zerbitzu-azpiegituren zonak.

Zonakatze globalean aurreikusita dago honako zerbitzu-azpiegitura hauek sistema orokor gisa sailkatzea ere:

- Ur-hornidurako sareko deposituak.
- Hondakin-uren eskualdeko araztegia (Urola Garaiko HUA).
- Hondakinak biltzeko zentroa (Deskargako Garbigunea).

- Espazio librean sistema orokorra.

Lurzoru urbanizaezineko kalifikazio globala osatzen dute Planak udalerriko espazio librean sistema orokorrean sartu nahi dituen lurzoruek.

Indarreko Arau Subsidiarioek egin duten bezala, Santa Barbarako parkea sartu da, izen bereko ermitarekin eta aterpetxearekin batera. Aisia-erabilerarako prestatutako eremua da eta, aldi berean, Irimo mendira eta hortik Karakateraino jarraitzen duen mendikatera iristeko lekua.

Parkearen mugapena xede horretarako gaituta dauden eta udal-titulartasuna duten lurzoruetara doitu da.

Horrekin, erantzuna ematen zaio udaleko Arau Subsidiarioetako ekimena jasotzen zuen Goierriko Lurraldearen Plan Zatiko Planean aurreikusitakoari, parkearen mugapenari dagokionez orain proposatzen den birdoitzearen kalterik gabe.





#### IV.5.2.- Baldintzazaile Gainjarriak.

Bestalde, plangintza-aurrerakinak, dagokien zonaren ondoriozko erregulazioaz gain, Baldintzazaile Gainjarrien xede izango diren lurzoruak ere identifikatzen ditu. Esparru horiek aipaturiko Antolamendu Zonen gaineratik daude eta, daukaten ingurumen-balioa eta/edo ingurumen-arriskua kontuan hartuta, jarduera edo jarduketa jakin batzuen garapena mugatzen dute, eta/edo ingurumen-ikuspegitik duten narriadura-egoera kontuan hartuta, ingurumena lehengoratzeko, hobetzeko edo birgaitzeko era guztietako jarduketak ahalbidetzen dituzte.

Ondoriozko Baldintzazaile Gainjarriak, zonakatze akustikotik, ondare-ikuspegiko babesetik edo beste batzuetatik sortutako beste batzuen kalterik gabe, honako hauek dira:

##### - Intereseko bertako zuhaitzen eta/edo batasunaren intereseko habitaten eremuak.

Bat etortzen dira, batik bat, hariztiekin eta harizti-baso mistoekin, eta baita bertako landarediaren orla eta heskaiekin ere. Balio edo potentzial ekologiko handiko egiturak dira, beste nekazaritza-erabilera batzuen presioagatik (berroihaneztatzeak, belardiak, etab.) eta nekazaritzakoak ez direnengatik asko murriztu direnak. Lurralde honetako landaredia potentzialaren lekuko dira, eta azalera txikia hartzen dute udal-mugartean garai batean hartzen zutenarekin alderatuta.

Honako hauek balioetsi dira batasunaren intereseko eta babestu beharreko habitat gisa: pagadi azidofilo atlantikoak, *Ilex* eta, batzuetan, *Taxus*-ezko(EB 9120 kodea) oihanpea dutenak; *Castanea sativa* (EB 9260 kodea) basotxoak eta haltzadi eta lizardi urriak, *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior* (EB 91EO kodea\*), horiek ere bertako zuhaitzak. Txilardi lehor europarrak (EB 4030 kodea) eta garaiera txikiko sega-belardi pobreak (*Alopecurus pratenses*, *Sanguisorba officinalis*), EB 6510 kodea dutenak, ez dira kontuan hartu Informazio eta Diagnostikoko dokumentuan aipaturiko arrazoiengatik, hau da, ez daudelako sartuta Natura 2000 Sareko ezein zonatan.

Eremu horien antolamendu-irizpidea ingurumen-ikuspegitik kontserbatu eta hobetzekoa da, eta aprobetxamenduren bat badute, modu jasangarrian sustatu beharko da, erabilitako baliabidea berritzea bermatuz.

##### - Interes Geologikoko Eremuak.

Urretxuko udal-mugartean interes geologikoko hainbat leku edo puntu identifikatu dira. EJren Interes Geologikoko Lekuen Inbentarioak Urola ibaiaren haranean zehar kokatutako *Urretxuko harrobiko gabroak* izeneko GIL 40 identifikatu du udalerrian, Urretxu eta Azpeitia lotzen dituen GI-6311 errepide ertzean hobeto azaleratzen den arren, 33. km-tik 30. km-ra. Zona horretan gabroz osatutako sill asko ageri dira, eta horietako batzuk iraganean ustiatu izan dira (harrobi abandonatuak). Sill horiek Zenomaniar-Turoniar aroko material sedimentarioetan, tuparrietan eta kare-tuparrietan txertatuta daude, hainbat kilometroko luzera dute eta 100 edo 150 m arterainoko potentzia aldagarria. Sill horiek erlazio espazial estua dute harri bolkanikoekin, baina horiek baino askoz bolumen txikiagoan.



Errepidean zehar harri piroklastikoak eta lavikoak daude, batez ere basaltikoak, esaterako, pillowak, pillow-hodiak, hodi-isurketa masiboak, eten bolkanikoak, etab., dike sinbolkanikoekin batera. Sill gabroiko horiek balio geomorfologiko altua eta petrologiko oso altua dute.

Honako hauek dira tokiko beste IGG batzuk: Flysch beltza (Deba formazioa) udalerraren hegoaldean, Mugitegiko ekonomia-jardueraren eta GI-632 errepidearen inguruko ezpondetan; Flysch karetsua (Itziar formazioa) azaleratze ikusgarrienak GI-631 errepideko ezpondetan dituena, Barrenkale kaleko aparkalekutik edo Etxeberri urbanizaziotik hurbil; Barinaga formazioa, itsaspeko izaera bolkanikoko materialekin, Ofitas de Urretxu, S.L. enpresaren harrobiaren aurrean, Urola trenbide ohian barrena doan bizikleta-bidean edo Irimo gailurrean ageri dira; eta Kuaternarioko Deposituak, ibaiko material eta ibai-alubioi nahiko ondo finkatuak Urola ibaiaren ibilguan barrena kokatuak.

Antolamendu-irizpidea deskribatutako balioa aldatu, narriatu edo desagerrarazi dezaketen jarduketa guztien aurrean kontserbatzea eta babestea da.

#### - Paisaia Babesteko Eremuak.

Sektore-ikuspegitik ez da paisaia berezirik identifikatu Urretxuko udal-mugartean.

Hala ere, Irimo mendia, Karakate-Irukurutzeta-Elosumendi-Agerreburu-Itxumendi-Gorla-Astobiaga gailurreriaren muturra, elementu berezia da udalerrri honetako eta inguruko udalerrietako paisaian, eta mendi eta lepo ezagunak ikusteko aukera ematen duen *balkoia* ere bada, hala nola, Izarraitz, Gatzume, Zelatun, Ernio, Samiño, Izazpi, Kiskitza, Murumendi, Txindoki, Aralar, Aitzkorri, Aloña, Andia, etab. Hori dela eta, Plan Orokor honek paisaia-balioko eremutzat jotzen ditu Irimo gailurra eta bere ingurune hurbila. Aztertzen ari garen udalerrria dagoen ikus-arroaren ikuspen handieneko lurralde-zatiaren babesa eskatzen du horrek.

Bestalde, EAEko paisaia berezi eta aparten Katalogoaren Aurreproiektuan Ipeñarrieta jauregiaren Paisaia eta Kultura Mugarria identifikatu da, Legazpiko ikus-arroan, Irimo mendiaren malda-hegalean, Santa Barbara ermitatik hurbil dagoen XVII. mendeko dorretxea. Ikus-eraginpeko zona arroa horren lurraldean hedatzen da, eta Urretxuko udal-mugartea ez ezik, Legazpi eta Zumarragoak ere hartzen ditu.

Antolamendu-irizpidea eremu horiek guztiak kontserbatzea eta babestea da, beren paisaia-balioak aldatu edo narriatu ditzaketen jarduketa, erabilera eta prozesu guztien aurrean.

#### - Hiri Hornidurako Harguneak Babesteko Eremua

Hiri-hornidurako harguneak Babes Eremutzat jotzen ditu URAk (Uraren Euskal Agentzia) eta honako hauek dira: Iturrondi 1, Iturrondi 2, Iturrondi 3, Iturrondi 4 e Iturrondi 5. Udalerrian, gainera, iturburu gehiago daude.

Eremu horiek babestu egin behar dira edozein kutsaduraren ondorio kaltegarrien aurrean, giza kontsumorako uren osasungarritasuna eta garbitasuna bermatuz.



- Eremu Higagarriak edo Higadura Arriskua dutenak.

Urretxun, Irimo mendiak egonkortasun-arazoak ditu mendi-hegaletan bere ezaugarri geologiko-geoteknikoengatik, maldagatik, hidrologiagatik, inguruko prezipitazio handiengatik... baina baita lurzorua erabileragatik ere.

Urak eragindako higadura laminarrak, USLE REAL ereduaren arabera kalkulaturakoak, higadura-prozesuen arrisku altu-ertaina duten hainbat eremu daudela adierazten du, gainazalean lurralde handiena okupatzen duena arrisku txikia izan arren. Lurraldearen ezaugarriak eta hazkunde lasterreko baso-landaketek duten azalera handia kontuan hartuta, arreta berezia jartzen da erabilitako teknikak zaintzeko premian eta arrisku handieneko eremuak hazkunde moteleko espezieetarantz birbideratzeko premian, lurzoru baliabide ez-berriztagarri gisa babesteko xedez. Higadura-fenomenoak azaltzeko sentiberatasun-maila altua duten eremuak Irimoko mendi-hegal garai eta ertainetan daude, iparraldera eta ipar-ekialdera orientatuta, eta mendi-hegal ertain eta baxuetan, ekialdera eta hego-ekialdera orientatuta.

Eremu horietan, gaur egun dagoen zuhaitzen eta sastraken estalkiari eutsiko zaio, babesteko eta lehengoratzeko irizpide gisa. Landare-estalki bakanen kasuan, berriz, estalkia zabaldu egingo da, higadura-gertakari aurre egiteko funtsezko elementu gisa.

Zurezko landaredia modu iraunkorrean mantentzea, lur-lerradurak eta luiziak egonkortzea, batez ere bioingeniaritza-teknikekin, mendi-hegalen drainatzeak berroneratzea eta zenbait errekaren lehengoratze funtzional, hidrauliko eta ekologikoa kontuan hartu beharreko lehenetsutako ekintzak dira.

Lurzorua eragiten dioten jarduerak saihestuko dira, eta kontu handiz ibiliko da eremu horietan egiten diren nekazaritzako eta basozaintzako jardueretan eta egokitzeko eta maneiatzeko tekniketari.

Mundo Mejor eta Pagoeta inguruneetako eta, zerbait gorago, Ipeñarrieta-Aikur ondoko mendi-hegaletako eremu higagarri dagokienez (mendi-hegal ezegonkortasunak, lerradurak...), zenbait kasutan belardi-erabilerekin, Irimo mendiaren hego-ekialdeko isurialdea egonkortzeko Bioingeniaritza Teknikak Aplikatzeko Aukerei buruz Ikerlurrek egindako Azterketako (2010ean) lurzorua bioingeniaritza-jarduketari jarraitzea proposatzen da.

- Uholde-arriskua duten eremuak.

EAEko Barnealdeko Arroen esparruko Uholde Arriskugarritasun eta Arrisku Mapek, URA Uraren Euskal Agentziak 2013ko abenduan egindakoek, Uholde Arrisku Potentzial Esanguratsuko Eremu bat (UAPEE) identifikatu dute ES017-GIP-URO-05 kodearekin Urola ibaia Urretxu-Zumarragan igarotzen den tartean (hasierako koordinatuak: X 555193 eta Y 4770529 eta amaierako koordinatuak: X 555878 eta Y 4771611). Gutxi gorabehera 1,5 km dituen zona hori Alkorta industria-pabiloien ingurutik (Irimoko ekonomia-jarduera esparrua) Matxinorta ingurunearen hasieraraino hedatzen da.



Lehentasunezko kontua da udalerrian arrisku hori txikitzea.

- Kutsatuta egon litezkeen lurzoruak dituzten eremuak.

Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten EAeko Lurzoruen Inbentario eguneratuaren arabera, 2017ko abenduaren 21eko Aginduak onartua eta Geoeuskadiren datu-basean jasotakoa, Urretxun gisa horretako 70 area edo eremu identifikatu dira guztira, eta beste bost kokaleku Zumarraga eta Legazpiko udal-mugarteekin lurzoria partekatzen dutenak, horietako lautan lurzoruaren kalitatea lehengoratzeko esku-hartzeak berriki egin diren arren.

Lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzeko 2015eko ekainaren 25eko 4/2015 Legea bete behar dute eremu horiek.

- Akuiferoen Kutsadurarekiko Urrakortasuna duten Eremuak.

Ez da identifikatu ezaugarri horiek dituen eremurik udalerrian.

- Baldintzatzaile gainjarrien xede diren beste eremu batzuk.

Plan Orokorren behin betiko antolamendua zehazten denean zehaztuko dira zonakatzeko akustikoa eta egokitzaile jotzen diren beste baldintzatzaile gainjarri batzuk ere.

Testuinguru horretan kontuan hartuko dira, besteak beste, basoko sute-arriskuaren edo arrisku teknologikoen arloko babes zibileko zehaztapenetatik ondorioztatzen diren baldintzatzaileak ere.

Arlo horri dagokionez, esku artean gaiari buruz Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak 2018ko urtarrilean egindako txostenean adierazitakoa bete beharko da. Txostenak dio nekez gertatuko dela udalerriko eraikinak suntsitzeko adinako lurrikara.

Ondarearen babesari dagokionez, proposatutako Katalogotik ateratzen dena bete beharko da.



#### IV.5.3.- Antolamendurako baldintzak arautzea.

Landa-ingurunea antolatzeko Zona Global horietarako eta Baldintzatzaile Gainjarrien xede diren Eremuetarako erabilerak arautzeko eta zehaztasunez mugatzeko araudiak HAPOn behin betiko dokumentuan xedatuko dira, jarduketa-alderdi eta -lerro batzuk Aurrerakin honetan jaso diren arren.

Urbanizaezin gisa sailkatutako lur-eremu handi horretan Planak izango dituen ondorioak positibotzat jotzen dira, zehaztapenek ingurunea babestu nahi duten eta landa-lurzoruaren natura-, paisaia- eta produkzio-balioak kontserbatzen laguntzen duen heinean. Aldi berean, ingurumen-ikuspegitik aldatutako, narriatutako eta hondatutako eremuen lehengoratzeta eta hobetzea indartu eta sustatzen ditu.

Urbanizaziotik babestu egin dira baliabide horiek, baina biztanleek beroriez gozatzeko aukera dute, balio horien kokagune den lurraldearen balio potentzial intrintsekoaz jabetzeko beharrezkoa baita horiek ezagutzea, bai eta beroriez gozatzeta eta, modu egoki batean, dagokien balioa ematea ere. Hain zuzen ere, aisiarekin eta turismoarekin zerikusia duten jarduerak ezartzea bideratuko da, besteak beste, Santa Barbara parkearekin, Irimo mendiko ibilbideekin, Santa Barbara Deskargarekin lotzen duen bizikleta-bidearekin, balio geologikoekin edo beste batzuekin lotutakoak.

Ildo horri jarraituz, Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Aurrerakin honek landa-ingurunerako planteatutako zonakatzeta eta garapen-proposamenak lurralde osoaren aurretiko analisitik atera dira. Analisi horren abiapuntua lurraldeko elementu eta balio bereziei ez eragitea eta denborarekin hondatu, aldatu eta narriatutako lurraldeko eremuetan ekintza positiboak gauzatzea izan da.

Bestalde, berariaz LAGetan xedatutakoarekin bat etorritik, argi adierazi da lurzoru hiritarrezinean erabilera autonomoa izango duten etxebizitzak eraikitzea debekatuta dagoela. Hori horrela izanik ere, sakabanatutako baserrien (batzuk hutsik) erabilera-baldintzak arautuko ditu Plan Orokorrak, eta lehendik dagoen eraikin bakoitzeko mugatzat bi etxebizitza ezartzea proposatu da.

Bestalde, ez da identifikatu landa-izaerako herrigune izateko eskatzen diren baldintzak betetzen dituen kokagunerik, lurzoruari eta hirigintzari buruzko legeriak horretarako aurreikusten duenarekin bat etorritik.

Landa-lurzoruaren partzelazioak lur-jabetza txikien eredu bati erantzuten diola ikusi da, eta zatiketa handiagoak egiteko aukerak mugatuko dituzten neurriak proposatu dira.

Azkenik, landa-ingurunerako irisgarritasuna lehendik dauden baserrietarako eta zona maila ematerik proposatzen ez den lurralde orokorrerako sarbidea ematen duten errepide- eta bide-sare baten bidez ebatziko da. Horien identifikazioa eta erregulazioa udalak ezarriko du dagokion espedientean eta, hala badagokie, landa-inguruneko antolamenduaren baldintzatzaile gainjarritzat joko direla ulertuko da, haren oinarritzko egiturari txertatu gabe.

#### IV.6.- Hirigunea antolatzeko alternatibak

Azaldutako irizpide eta helburuen ondorioz, Aurrerakin honek udalerriko hirigunea mugatzea proposatzen du, jarraitu beharreko prozesutik ateratzen denaren kalterik gabe.

II.1 planoan ikus daitekeen bezala, mugapen hori bat dator, funtsean, Arau Subsidiarioek aurreikusitakoarekin, errore batzuen zuzenketaren eta birdoitze batzuen zehaztapenaren kalterik gabe. Planteatutako birdoitzeek bere garaian egikaritutako errealitatera eta lurzoruaren sailkapenean aplikatu beharreko zehaztapenetara egokitzea eragingo dute.

Horrek esan nahi du, lehenik eta behin, aurreko epigrafean adierazi den bezala, udal-plangintzaren egungo berrikuspen-prozesuan, a priori, ez dela aurreikusten aurrez definitutako hirigunea handitzea, eta planteatu beharreko antolamendua lurzoru artifizializatuan ebazteko ahalegina egingo dela.

Hala, Memoria honetako azken ezaugarrien tauletako IV.12.1 taulako konparazioak adierazten du hirigunea (lurzoru hiritarrak eta urbanizagarriak osatutako multzoa) 746.093 m<sup>2</sup>-ko azalera duela Aurrerakinean, indarrean dauden Arau Subsidiarioen arabera azalera baliokidea 748.621 m<sup>2</sup> denean.

Beraz, hirigunearen egungo azalerak murrizketa izango luke.

Horren arabera, hirigunearen azalera udalerraren azalera osoaren % 10 baino zerbait gutxiago da.

Planteatutako birdoitzeek bere garaian egikaritutako errealitatera eta lurzoruaren sailkapenean aplikatu beharreko zehaztapenetara egokitzea eragingo dute.

Hala, hirigunetik kanpo utziko dira Aparicio bizitegi-zonaren kanpoaldeko bide egituratzaileari dagozkion lurzoruak, institutu ondoan kokatutako izaera pribatuko lurzoruak eta Altamira baseritik hurbil kokatutako etxalde ohiari dagokion partzela.

Bestalde, honako hauek sartuko dira hirigunean: Mugitegin antolamenduz kanpoko egoeran sailkatutako etxebizitzak birkokatze egindako bizitegi-erakinek okupatutako lurzoruak, Erratzu-behekoa baserriari dagozkionak eta Gainzabal eta Pagoeta arteko bide-loturaren iparrean kokatutako udal-lurzoruak.

Aurrerakin honek, bestalde, hirigune osorako hirigintza-eremuak identifikatzea proposatzen du, II.1 planoan jasota dagoen bezala, esparru horiek mugatzeak bere eztabaida izatearen kalterik gabe.

Halaber, eremu horietan, azkenean aukeratzen diren plangintza-irtenbideen arabera, Plan Orokorrek zehazten duen araberako askotariko jarduketan xede izango diren azpierenak zehaztuko dira.

A priori identifikatutako eremuei, prozesuan ateratzen denaren kalterik gabe, zenbaki bat eta izen bat esleituko zaie, kasu bakoitzean zehaztu beharko den toponimoa.

Honako hauek dira:

- 1. HE - Gune historikoa
- 2. HE - Labeaga
- 3. HE - San Martin
- 4. HE - Matxinporta
- 5. HE - Gerra
- 6. HE - Sagastitxipi
- 7. HE - Kanposantua
- 8. HE - Gurutze auzoa
- 9. HE - Elizalde
- 10. HE - Nekolalde
- 11. HE - Gainzuri-Mundo Mejor
- 12. HE - Institutua
- 13. HE - Lilibaso-Gainzabal
- 14. HE - Pagoeta
- 15. HE - Ipeñarrieta
- 16. HE – Geltokia
- 17. HE - Irimo
- 18. HE - Mugitegi
- 19. HE - Aparicio
- 20. HE - Kaminpe

Ondoren deskribatuko dira eztabaidatzeko, egiaztatzeko eta baieztatzeko edo baztertzeke planteatuko diren antolamendu-alternatibak, Urretxurako Plan Orokor berri bat zehazteko aukeratu beharreko irtenbideak gidatu behar dituzten irizpide eta helburuak zehazteko azken helburuarekin.

#### IV.6.1.- Urola ibaiaren eta ibaiertzen antolamendua.

Salbuespen batzuekin, Urretxu Urola ibaiaren ezker aldean dago. Salbuespen horien artean honako hauek nabarmendu behar dira: iparraldean, Urola Garaiko hondakin-uren araztegia (HUA) kokatuta dagoen lurzorua eta, hegoaldean, Kaminpeko industria-lurzorua. Lehenengoak HUA ezartzeko egin zenean ibaiaren trazaduraren aldaketaren ondoriozkoa da. Bigarrena, berriz, Zumarragako kokaguneari jarraipena emateko eremuan bere garaian egin zen eta ibaia estaltzea eragin zuen industria-ezarpenaren ondoriozkoa. Azken berezitasun hori bat dator udal hirigunearekin.

Ohar horiek egin ondoren, esan beharra dago, gaur egun, Urola ibaia dela Urretxuko hiriguneko protagonista, azken hamarkadetan burututako jarduketek ezker alde berrurbanizatzea, zenbait industria-jarduera desagerraraztea, parke lineal bat eratzea eta Urretxuren eta ibaiaren eskuin aldeko Zumarragako hirigunearen arteko lotura handiagoa izatea ahalbidetu dutenean.

Udalerriaren plangintza orokorra berrikusteko prozesuan parke lineal hori finkatzea planteatzen da, posible den tokietan jarraipena emateko aukerak kontuan hartzearen kalterik gabe.



Hala ere, Plan Orokor berriaren epemugan ez da aurreikusten ekintza berezirik ibaiertzen artean oinezkoentzako zubi edo pasabide berriak sortzeko edo estaldurak ezabatzeko arloan, dagokion sektore eskudunak uholde-arriskua minimizatzeko edo Geltokia eta Kaminpe eremuak garatzeko susta daitezkeen kalterik gabe.

Testuinguru horretan, Plan Orokorrean jasoko diren irtenbideak ur-arloko sektoreko administrazio eskudunak Urretxu-Zumarragako pasabidean Irimo eta Matxinporta artean identifikatutako Urola ibaiaren tarteko UAPEEri buruz planteatzen duen ororekin koordinatzea aurreikusten da.

#### IV.6.2.- Bide-antolamendua, mugikortasuna eta irisgarritasun unibertsala.

Urretxu eta Zumarragako udalerrien mugikortasun-plan bateratua (PMUS) martxan jartzearen ondorioz udalerriko eta, batik bat, hiriguneko mugikortasun motordunaren nahiz ez-motordunaren baldintzak nabarmen hobetu direla ikusi den arren, neurri gehigarriak ezar daitezkeela uste da, horietako batzuk 2017ko udalaren Irisgarritasun Planaren Berrikuspenean aintzat hartu zirenak.

Horrela, egindako diagnostikoa ere kontuan hartuta, Urretxu eta Zumarragako hirigune bateratuaren baldintzek udalerriko barne-mugimenduetan mugikortasun ez-motordun handiagoa ahalbidetzen dutela ikusi da. Egin beharreko aldaketa errazteko, Aurrerakin honetan planteatu da oinezkoentzako ibilbideak eta lehendik dagoen bizikleta-bidearen eta bere ingurune hurbilaren arteko lotura hobetzea eta Plan Orokorraren epemugan abian jartzea igogailuak ezartzeko arloan udalaren Irisgarritasun Planean (2017- 2031) proposatutako ekimen batzuk.

Hala, antolamendu-alternatiba gisa hartu dira Lilibaso-Ipeñarrieta, Sorginzulo-Basagoiti, Mundo Mejor, Labeaga-Kalerrota, Labeaga-Komentua eta Pagoeta-Lilibaso-Gainzabalerako Irisgarritasun Planean aintzat hartutako igogailu publikoen sei proposamenak, II.2 planoan grafikoki jaso direnak.

Lehen hurbilketa batean, egin beharreko eztabaidatik ateratzen denaren kalterik gabe, lehentasunezkoztat jotzen dira Labeaga-Kalerrota eta Labeaga-Komentua proposamenak, eta Irisgarritasun Planean aurreikusitakoaren kokapen desberdina aurreikusten da azken horretarako, igogailuaren kokapena hegoalderantz mugituz eta komentuaren azpierzurako proposatutako jarduketan txertatuz (ikus II.4 planoan).

Bestalde, pixkanaka helduko zaie irisgarritasun unibertsalaren arloan ezarritako neurriei.

Prozesuaren jarraipenean udalerriko garraio kolektiboaren zerbitzua hobetzeko aukera ere balioetsiko da, bai autobus-geralekuak berrantolatuz eta bai Zumarragako geltoki intermodalari buruzko proposamenen bitartez.

Ildo horretan egindako esku-hartzeak aukera emango luke hiriguneko barne-mugimenduetarako ibilgailu pribatuen erabilera eta premia murrizteko.





Bide-arloan, plangintzak erraztu egingo du Azkoitia-Urretxu errepidearen (GI-631) trazadura hobetzeko azkenean aukeratzen den irtenbidea egikaritzea eta, bereziki, udalerrian sartzeko ipar-loturaren antolamendua.


Bide-saretik hirigunerako irisgarritasunari dagokionez, hego-loturaren antolamendu-baldintzak hobetzeko eta hiriguneari bere ingurune hurbilean (Aparicio eta Irimo) jarraipena emateko aukera ere planteatzen da Aurrerakin honetan.

Hala, ondoren proposatuko dira egungo egoerarentzako bi alternatiba, aztertzeko eta arloan eskuduna eta sarearen titularra den sektoreko administrazioarekin kontrastatzeko.

- “0” alternatiba:

Bat dator egungo egoerarekin.

Ondorengo grafikoan dago jasota.



- “1” alternatiba:

Aparicio eta Irimo banantzen dituzten bide-mugimenduen premia ekidingo duen biribilgunea egitean datza.

Ondorengo grafikoan dago jasota.




Ikusten den bezala, Irimo ondoko egungo lotura trafikoari eteteko aukera ematen du, Apariciorainoko oinezkoentzako espaloia jarraipena emanaz.

Dena den, tamaina esanguratsuko biribilgune gehigarria egikaritu behar da, dagokion kostu ekonomikoarekin.

- “2” alternatiba:

Zirkulazioan sartzeko bi itzarote-errei egikaritzean datza, Aparicio eta Irimo banantzen dituzten bide-mugimenduen premia ekiditeko.

Ondorengo grafikoan dago jasota.



Ikusten den bezala, Irimo ondoko egungo lotura trafikoari eteteko aukera ematen du, Apariciorainoko oinezkoentzako espaloiri jarraipena emanaz.

“0” alternatibak ez du konpontzen Aparicio eremuaren nolabaiteko isolamendu-egoera, eta beste biek Apariciotik hiriko erdigunerainoko hiri-jarraitutasuna bideratzen dute. 1. eta 2. alternatiben arteko konparazioan ikusten da 1. alternatibak soluzio funtzionalagoa eskaintzen duela eta 2. alternatiba, aldiz, merkeagoa dela eta eragin txikiagoak dituela.

Hiriko sarean, bestalde, aztertzeko beste ekintza batzuk proposatzen dira bide-arloan, II.2 planoan grafikoki jasota dagoen bezala eta ondoren deskribatuko den bezala:

- Gainzabal-Pagoeta loturaren antolamendua:

Bi alternatiba planteatzen dira, "0" edo esku ez hartzeko alternatibaz gain. Lehen aukera indarreko Arau Subsidiarioen antolamenduarekin jarraitzea izango litzateke eta bigarrena egungo bidea egokitzea kaleak behar duen sekzioa emanda.

Lehen alternatibak ibilbide laburragoa eskaintzen du eta bigarrenak Gainzabal eta Pagoeta kaleen jarraitutasuna ebazten du lehendik dagoen kirolguneari eragin gabe.

A priori, bigarren aukera hori hartzea proposatzen da, merkeagoa delako eta gutxiago eragiten duelako.

- Altamira - Santa Barbara bidearen antolamendua:

Bi alternatiba planteatzen dira, "0" edo esku ez hartzeko alternatibaz gain. Lehen aukera indarreko Arau Subsidiarioen antolamenduarekin jarraitzea izango litzateke eta bigarrena egungo Arau Subsidiarioetan aurreikusitako mendebaldeko bidea egikaritzea aintzat ez hartzea, horren ordez eremuan mugikortasun motordunaren baldintzak berrantolatzea eta zirkulazioaren noranzko bakarra ezartzea, II.2 planoan jasota dagoen bezala.

Lehen alternatibak aukera gehiago eskaintzen ditu trafikoarentzat eta bigarrenak gutxiago eragiten dio lekuaren egungo konfigurazioari.

A priori, bigarren aukera hartzea proposatzen da, merkeagoa delako eta lekuaren ezaugarri topografikoei erreparatuta zailtasun gutxiago dituelako.

- Beste proposamen batzuk:

Gainera, birdoitze batzuk planteatzen dira indarreko Arau Subsidiarioek proposatutako bide-sarean, eta baztertu egin da Ipeñarrieta eremuaren mendebaldeko mendi-hegalerako aurreikusi baina egikaritu gabeko oinezkoentzako ibilbidea egikaritzea.

Horren ordez, Ipeñarrietan, Kamineroen etxe ondoan plaza bat sortzea proposatzen da eta baita Gainzuriko haurreskolara ibilgailuentzako irisgarritasuna hobetzea ere (ikus II.4 planoan).

Prozesuaren jarraipenean, PMUSen ondorio eta proposamenen arabera, udalerrian aparkaleku- eta garaje-zuzkidura hobetzeko aukera ere balioetsiko da.

Aurrerakinak, bestalde, egungo trenbide-sarea finkatzen du eta Euskal Trenbide Sare Berriaren trazadura gehitzen du. Hala, hiriguneko hirigintza-eremuen identifikazioan berariaz mugatu da geltokiko eremua (16. HE), eremu horretako esku-hartzea Zumarragako udalarekin partekatutako trenbide-zabalgunea xede duen bateragarri egiteko plan baten bidez formulatzea aurreikusten da. II.2 planoan grafikoki jasota daude proposatutako alternatibak.

Bestalde, 2018ko otsailaren 22an Urretxuko udalak, osoko bilkuran, hasierako onespena eman zion udalerrian dauden "jabari publikoko" landa-bideen Inbentarioari. Jendaurrean egongo da maiatzaren 17 arte.

IV.6.3.- Hiri-eraldaketa, -birgaitze, -berroneratze eta berritzeko esku-hartzeak.

Lehen adierazi den bezala, proposamenek ez dute aurreikusten hiri-lurzorua handitzea. Hiri-bilbean tokiko premia eta eskaerei erantzuna ematea eta ekintza horiek lehendik dagoen hiri-ingurunea birkalifikatzeko aprobetxatzea nahi dute.

Horrek esan nahi du egin beharreko esku-hartzeek hiri-ingurunearen eraldaketa, birgaitzea, berroneratzea edo berritzea eragingo dutela, erabilera-aldaketa, erabilera horien areagotzea eta nahastea eta espazio libreak irekitzea eragingo dutela eraikuntza birgaitzeko eta ordeztzeko esku-hartzeen bidez.

Horrekin, hiri-bilbearen eta bertako erabileren integrazio handiagoa lortu nahi da, erdigunean bizitegi-erabilerak erabilera nagusi gisa finkatuz, zuzkidura-erabilerekin eta horiekin bateragarriak diren ekonomia-jarduerekin osatuz eta haiekin bateragarriak ez diren edo hain bateragarriak ez diren ekonomia-jarduerak periferian kokatuz, batez ere industria-jarduerak.

Jardunbide hori ez da berria. Azken hamarkada hauetan erabiltzen ari da eta Plan Orokor berriak finkatu nahi duen Urretxuko egungo hirigune-eredua eragin du.

Hala, erdigunea hiri konplexu eta oparoa, berdinzaleagoa eta seguruagoa, eta askotariko sinergiak lortzeko aukera emango duena ahalbidetuko duen nahasketa egokiarekin indartzea proposatzen da.

Eta hori guztia lekuaren ingurumen- eta hiri-birkualifikazioa ahalbidetuz egitea proposatzen da, zerbitzu-azpiegiturak eta eraginkortasun energetikoa hobetuz eta ondare eraikia birgaituz, berroneratuz eta berrituz.

Hala, Aurrerakin honetan, II.4 planoan jaso diren honako alternatiba hauek formulatu dira aztertzeko eta eztabaidatzeko. II.1 planoan, bestalde, horiei dagozkien hirigintza-eremuen kokapena eta mugapena jaso dira.

- Labeaga-Rodriguez azpieroaren antolamendua.

Bat dator Aurrerakin honetan identifikatutako 2. HEn mugatu beharreko 2.1 azpieroarekin.

Aurrerakin honek eremuan indarrean dagoen antolamendua finkatzea planteatzen du. Egikaritu gabe daude 31 etxebizitza, eta egungo 9 etxebizitzek izateari utziko diote.

Proposamena argitzeko indarreko Arau Subsidiarioetara joko dugu.

- Labeaga-Urzelai azpieroemaren antolamendua.

Bat dator Aurrerakin honetan identifikatutako 2. HEn mugatu beharreko 2.2 azpieroemarekin.

Aurrerakin honek bi alternatiba planteatzen ditu. Lehen irtenbidea eremuan indarrean dagoen antolamendua finkatzea izango litzateke; egikaritu gabe daude 18 etxebizitza, eta lehendik dauden 3k izateari utziko liokete. Bigarren irtenbidea egungo egoera finkatzea izango litzateke.

Proposamena argitzeko indarreko Arau Subsidiarioetara joko dugu.

- Barrenkaleren antolamendua.

Bat dator Aurrerakin honetan identifikatutako 3. HEn mugatu beharreko 3.1 azpieroemarekin.

Aurrerakin honek eremuan indarrean dagoen antolamendua finkatzea planteatzen du. Egikaritu gabe daude 3 etxebizitza.

Proposamena argitzeko indarreko Arau Subsidiarioetara joko dugu.

- Elgearen antolamendua.

Bat dator Aurrerakin honetan identifikatutako 3. HEn mugatu beharreko 3.2 azpieroemarekin.

Aurrerakin honek eremuan indarrean dagoen antolamendua finkatzea planteatzen du. Egikaritu gabe daude 27 etxebizitza, eta lehendik dauden 4 etxebizitzak izateari utziko diote.

Proposamena argitzeko indarreko Arau Subsidiarioetara joko dugu.

- Gurutze Auzoaren antolamendua.

Bat dator Aurrerakin honetan mugatutako 8. HEnekin.

Aurrerakin honek eremuan indarrean dagoen antolamendua finkatzea planteatzen du. Eremua egikaritze-prozesuan dago. Gaur egun, 44 etxebizitza eraikuntza-fase aurreratuan daude eta 101 etxebizitza gehigarri, libreak nahiz babes publikoak, eta zuzkidura publikoak eraikitzeke lurzorua aurreikusitako da.

Proposamena argitzeko plangintza xehatuta eta 2016an onartutako indarreko Hirigintza Jarduketara Programara joko dugu.



- Altamira- Santa Barbara azpieroaren antolamendua.

Bat dator Aurrerakin honetan identifikatutako 10. HEn mugatu beharreko 10.1 azpieroarekin.

Aurrerakin honek bi alternatiba planteatzen ditu eremurako. Horietako bat eremuan indarrean dagoen antolamendua finkatzea da. Bestea, aurreikusitako hirigintza-erakigarritasunari eutsiz, Altamira baserriaren kalifikazioa ekipamendu gisa aurreikustea eta eremuko a.2.5.1 partzelan eraikigarritasun handiagoa ahalbidetzea da, funts eraikigarria handituz eta profilari solairu bat gehituz, (erdisotoa + 4 + atikoa). Bi kasuetako edozeinetan, 51 etxebizitza berri aterako lirake, eta lehendik dauden 5k izateari utziko liokete. Etxebizitza libreak nahiz babes publikoak izango lirake.

Bestalde, kasu batean zein bestean, bi aukera planteatzen dira bide-antolamenduko eta zuzkidura publikoko arloan. Lehen aukera batean indarreko Arau Subsidiarioen proposamena finkatzea planteatzen da eta bigarren aukeran aurreikusitako mendebaldeko bidea baztertzea proposatzen da, mugikortasunaren inguruan adierazitakoaren arabera, eta garatu beharreko jarduketa integratuan, Matxinportaren aldamenean tokiko espazio libre bat lortzea proposatzen da.

Proposamena argitzeko indarreko Arau Subsidiarioetara eta II.2 eta II.4 planoetan planteatutako grafikoetara joko dugu.

- Gainzuri-Komentua azpieroaren antolamendua.



Bat dator Aurrerakin honetan identifikatutako 11. HEn mugatu beharreko 11.1 azpieroarekin.

Aurrerakin honek antolamendurako hiru alternatiba planteatzen ditu: lehena, Arau Subsidiarioen egungo proposamena finkatzen duena; bigarrena, lekuan lehendik zegoen villa kentzea eta ekipamendutarako erabiliko litzatekeen komentua eraikina finkatzea aurreikusten duena; eta hirugarrena, lehendik dagoen villa eta komentua kentzea aurreikusten duena, Labeaga kalearen aldamenean zuzkidura-partzela bat aurreikusten duena.

Proposatutako alternatibak argitzeko indarreko Arau Subsidiarioen zehaztapenetara eta II. 4 planoan eta ondoren planteatutako grafikoetara joko dugu.

Lehen alternatibak ez du aurreikusten etxebizitzak antolatzea. Bigarrenak aukera ematen du 34 etxebizitza berri eraikitzeke eta hirugarrenak, berriz, 60 eraikitzeke, ibilgailuentzako sarbidea lehendik dagoen zaku-hondo gisako bidetik dutela. Lehen alternatiban, horrela sortuko litzatekeen bide berriak zerbitzu egokia emango lioke komentuari. Bigarren alternatiban, berriz, sarbide egokia lortuko litzateke Gainzuri haurreskolarako eta, gainera, zuzkidura-partzela bat lortuko litzateke Labeaga kalearen ondoan.

Alternatiba batean zein bestean bi igogailu publiko antolatuko dira, Labeaga eta Sorginzulo kaleen arteko desnibela gainditzeko eta goialdeko bizitegi-zonari, ikastetxeari eta tarteko kotei sarbidea emateko.





- Gainzabal azpieroaren antolamendua.

Bat dator Aurrerakin honetan identifikatutako 13. HEn mugatu beharreko 13.1 azpieroarekin.

Aurrerakinak eremuan indarrean dagoen antolamendua finkatzea planteatzen du. Antolamendu horren arabera, 76 etxebizitza berri, libreak nahiz babes publikokoak, eta zuzkidura publikoak eraikitzeke lurzorua aurreikusten da.

Proposamena argitzeko plangintza xehatuta eta indarreko Hirigintza Jarduketa Programara joko dugu.

- Ipeñarrieta 28 eta 30 azpieroaren antolamendua.

Bat dator Aurrerakin honetan identifikatutako 15. HEn mugatu beharreko 15.1 azpieroarekin.

Ipeñarrieta kaleko 28. eta 30. zenbakiei dagozkien partzeletan eraikuntza-baldintzak birdefinitzea planteatzen da eta, xede horretarako, beheko solairuko eta goiko bost solairuko eraikuntza-profila aurreikusten da eta bi eraikinetarako hondo unitarioa, 30. zenbakiko eraikinak goiko solairuetan duenarekin bat etorriko litzatekeena. Halaber, beheko solairuetan lerroak birdefinitzea eta gaur egungo eranskinak kentzea proposatzen da.

- Ipeñarrieta – Kamineroen etxea azpieroaren antolamendua.

Bat dator Aurrerakin honetan identifikatutako 15. HEn mugatu beharreko 15.2 azpieroarekin.


Aurrerakinak antolamendurako bi alternatiba planteatzen ditu: batetik, indarreko Arau Subsidiarioek aurreikusitako antolamendua finkatzen duena eta, bestetik, eremurako antolamendu-baldintzak berriro proposatu eta, aldi berean, egungo Kamineroen etxea ekipamendutarako finkatzen duena.

Proposatutako alternatibak argitzeko indarreko Arau Subsidiarioetara eta II.4 planoan eta ondoren jasotako grafikora joko dugu.

Lehen alternatibak aukera ematen du 20 etxebizitza berri antolatzeko eta bigarrenak 34.

Lehen alternatiban oinezkoentzako ibilbide bat antolatzea aurreikusten da eraikin berriaren mendebaldean.

Bigarren alternatiban, lehen aipaturiko zuzkidura-eraikinaz gain, Ipeñarrieta kalera irekitako plaza bat lortuko litzateke.



Plangintza-aurrerakin hau formulatzeko orduan Irimo eremua, osorik edo zati bat, bizitegi-erabilerrara bideratzeko alternatiba ere aztertu den arren, hasiera batean baztertu egin da aukera hori Planaren epemugan lehen aipaturiko eskaintzaren nahikotasunari, eremuaren iparraldeko zonan, hirigunetik hurbilenekoan, funtzionatzen ari diren ekonomia-jarduerak lehendik egoteari eta aukeratutako lurralde-ereduari erreparatuta.

Modu gehigarrian, ondare finkatua hobetzea ere planteatzen da dokumentuan. Hori aztertu ahal izateko, zenbait auzotan, Aparicio, Mundo Mejor eta Santa Barbaran, besteak beste, hiri-berroneratzeko esku-hartzeak egiteko aukera formulatu da, eta baita udalerriko gune historikoa birgaitzeko prozesua sustatzeko premia ere eta, beharrezkoa dela berresten bada, hura Birgaitzeko Plan Berezia berrikusiko da, udalak bere garaian sustatutakoa edo, bestela, eremuko dagokion Hirigintza Arau partikularrean jasota egon litekeen arau-zehaztapenen bat txertatzeko aukera hautatuko da.

Testuinguru horretan, eremuren bat Eremu Narriatu gisa sailkatzea eskatzeko aukera ere balioetsiko da.

Bizitegi-garapen berriek dagozkien zuzkidurak izango dituzte, gutxienez, hirigintza-estandarren indarreko dekretuak xedatutakoaren arabera. Besteak beste, dagozkien zuhaitzak, aparkalekuak eta garajeak izango dituzte.

Proposatutako eraldaketek, etxebizitzak zatitzetik, beheko solairuak eta solairuarteak indarreko ordenantzen arabera etxebizitzek okupatzetik, gune historikoan egindako esku-hartzeetatik edo tokian tokiko beste esku-hartze batzuetatik ateratzen direnen kalterik gabe, bizitegi-eskaintza eta hirugarren sektoreko eskaintza esanguratsua eragiten dute, hautatutako alternatibaren arabera aldatuko dena.

Taula honetan daude jasota laburpen gisa:

EREMUA AZPIEREMUA	EDO	1. IRTENBIDEA Etxebizitza berrien gutxi gorabeherako kopurua	2. IRTENBIDEA Etxebizitza berrien gutxi gorabeherako kopurua	Hirugarren sektoreko eta zuzkidurako erabileren m <sup>2</sup> (t)
Labeaga-Rodriguez		31 (- 9)	31 (- 9)	600 m <sup>2</sup> (t) merkataritza
Labeaga-Urzelai		0	18 (-3)	1.250 m <sup>2</sup> (t) merkataritza
Barrenkale		3	3	--
Elgea		27 (- 4)	27 (- 4)	360 m <sup>2</sup> (t) merkataritza
Gurutze Auzoa		101 (+44 eraikitzen)	101 (+44 eraikitzen)	--
Altamira- Santa Barbara		51 (- 5)	51 (- 5)	331 m <sup>2</sup> (t) zuzkidura
Gainzuri-Komentua <sup>1</sup>		34	60	2.197 m <sup>2</sup> (t) zuzkidura
Gainzabal		76	76	--
Pagoetako txaletak		0	6	--
Ipeñarrieta 28 eta 30		0	20 (-12)	460 m <sup>2</sup> (t) merkataritza
Ipeñarrieta-Kamineroak		20	34	608 m <sup>2</sup> (t) zuzkidura
<b>GUZTIRA</b>		<b>339</b>	<b>423</b>	

Hala, bizitegi-eskaintza globala formulatu da, osorik kontuan hartzen bada, 423 etxebizitzako kopurura iristen dena. Kopuru horrek ondo erantzungo dio egindako diagnostikoari (erritmoa: 30 etxebizitza/urtean 8 urterako, 1,75 inguruko merkatuaren zurruntasun-koefizientearekin) eta, bestalde, lurralde-antolamendutik ondorioztatzen diren etxebizitza-kuantifikazioaren arloan indarrean dauden zehaztapenek eskatutako gutxienekoaren eta gehienekoaren artean erdibidean kokatuko da (255 eta 510).

<sup>1</sup>Eremuan etxebizitza berririk antolatuko ez lukeen eta lehendik dagoena finkatuko lukeen alternatiba bat ere egon daiteke.

Zehazten den eskaintzari baimena egikaritu gabeko beste etxebizitza batzuk (13) merkatuan jartzearen ondorioz, merkatuan jartzen diren etxebizitza hutsen (xede horietarako, % 3 inguru izango dira, hau da, 80 bat etxebizitza) ondorioz, solairuarteetan etxebizitzak baimentzeko ordenantza onartzearen ondorioz (beste hamar bat izan daitezke) eta birgaitzeko esku-hartzeetatik edo etxebizitza gehigarriak sortzen dituzten beheko solairuen okupazioaren ondorioz sortzen dena gehituko diogu.

Beraz, ikusitako premiei eta lurralde-antolamenduak planteatutako gutxieneko eta gehienekoen irizpideei erantzun diezaieketela uste den eskaintza eraginkorra da.

Udalak irizpideak eta helburuak berresten dituen zehaztuko da aurreikusi beharreko eskaintza, eta baita babes publiko sozial zein tasatuko erregimenak bete beharko dituzten etxebizitzaren identifikazioa ere. Xede horretarako, indarreko Arau Subsidiarioetan jasota dagoen kontu horren inguruko proposamena osotasunean berraztertzea proposatzen da, esku-hartzeen egikaritze-mailari erreparatuta hartutako zenbait erabaki (Gurutze Auzoa eta Gainzabal) mantentzearen kalterik gabe.

Hiri-morfologiei eta eraikuntza-tipologiei dagokienez, Plan Orokorrean zehazten denaren kalterik gabe, a priori, bizitegitarako hiru partzela-mota kontuan hartzea aurreikusten da: gune historikokoak, eraikin irekiei dagozkienak eta familia bakarreko edo bi bizitzako lorategidun izaera berezikoak, eraikuntza isolatu eta dentsitate txikiko tipologiekin bat datozenak. Aurrenak "1. HE Gune Historikoa" eremuan kokatuetaoetara mugatuko dira eta azkenekoak lehendik dauden mota horretako garapenetara (Erratzu-behekoa, Zulueta eta Pagoeta txaletak azpieroak). Horietako barne-bideak pribatu gisa mantentzea aurreikusten da, multzo berezi horietako bakoitzaren zerbitzura, behar dituzten zerbitzuak eta azpiegiturak izatearen kalterik gabe.

Bestalde, hirugarren sektoreko erabileretarako eta zuzkidura-erabileretarako eraikigarritasun-eskaintzak, aurreko taularen arabera, hirugarren sektoreko 2.670 m<sup>2</sup>(t) gehigarri eta zuzkidurako 3.136 m<sup>2</sup>(t) gehigarri ditu, udalerraren erdigunean daudenak, erabilera-nahasketari eta hirugarren sektorearen eta merkataritza-sektorearen aldeko apustuari lagunduz. Prozesuaren jarraipenean zehaztuko da ekimena.

Planteatutako jarduketek espazio libre berri eta zuzkidura-partzela berri batzuk ahalbidetzen dituzte (Altamira baserria, Kamineroen etxea, Gainzuri-komentua partzela).

Ildo horretako jarduketak lehendik dagoen hiri-lur artifizializatuaren barnean modu eksklusiboan jardutea esan nahi du eta, ondorioz, Plan Orokor honen epemugan hirigunea hedatzea ekiditea. Kudeaketa eraginkorra izatea eskatzen du horrek, planteatzen den eskaintza merkatuan jarriz. Eta horrek, nahitaez, prozesuaren lidergoan ekimen publikoak esku hartzea eskatuko duela uste dugu.

#### IV.6.4.- Ekonomia-jardueretarako lurzorua antolatzea.

Aurreko epigrafean adierazi den bezala, Aurrerakinak planteatzen du, batetik, batik bat bizitegitarakoa den hiri-bilbean hirugarren sektoreko erabilerak, merkataritzakoak eta zuzkidurakoak kokatzea, erabilera bateragarrien nahasketa ahalbidetzeko xedez eta, bestetik, lurzoru urbanizaezinean lehen sektoreko jarduerak arautzea.

Bestalde, batez ere ekonomia-jardueretara bideratutako lurzoruak kalifikatzea ere aurreikusten du, batez ere industria-jarduerak ezartzeko asmoz.

II.3 planoan jasota dagoen bezala, batetik, Matxinporta, Sagastixipi eta Mugitegiko industria-lurrak finkatzea proposatzen da. Bestetik, Irimo eta Kaminpe eremuen hiri-berritzea proposatzen da; jarduera eskaseko eta jarduerarik gabeko eremu eraikiak dira, hurrenez hurren. Gehienak eraikin zaharkituak dira. Azkenik, Gerra sektorea lurzoru urbanizagarri gisa sailkatzea finkatzeko nahiz baztertzeko aukera ere aurreikusten da, 2012. urteko Arau Subsidiarioetan aurreikusitakoa eta egikaritu gabea.

Udalak, tradizioz askotariko industria-jarduerak eta fabrikak izan ditu hiru trenbiderekin (Madril-Irun trenbidea, Bergarako euskal trenbidea eta Urola trenbidea) zuen hurbiltasuna eta bere kokapen geografikoa aprobetxatuz.

Gaur egun trenbide horietako lehenak soilik jarraitzen duen arren, trenbide horren garrantziak eta Eusko Trenbide Sare Berria, Santa Luziako geltokiarekin, aurki martxan jartzeko asmoa izateak eragiten dute Urretxuk eta Urola Garaiak egoera estrategikoa izatea kokapenari dagokionez eta komunikazio-azpiegiturei dagokienez. Egitate horrek, lekuaren bokazio industrialarekin, tokiko ahalmen ekintzailearekin eta xede horretarako lurzorua erabilgarri izatearekin batera, ekonomia-jarduera industrial, logistikoa eta hirugarren sektorekoetarako lurzoru prestatzea egokia izatea eta arrakasta lortzeko aukera izatea eragiten du. Plana da lurzoru hori prestatzeko bitarteko egokia.

Hala, Irimo eremua tokiko eta eskualdeko aukera paregabatzat jotzen da epe labur eta ertainean jarduera berriak hartzeko. Hortik gainera, udalari osoa ingurumen-, hiri- eta zuzkidura-ikuspegitik birkalifikatzeko prozesua etor daiteke, eta baita enplegua eta behar den oreka sortu ere. Horren ondorioz, Irimo eremu osoa ekonomia-jardueretara bideratzea proposatzen du plangintza-aurrerakinak, batez ere industria-jardueretara, lehendik dagoen eraikigarritasuna finkatzea aurreikusiz, hura eraitsi eta ordeztearen kalterik gabe.

Halaber, ekonomia-jardueretarako eta batez ere industria-jardueretarako ezarpen berriak hartzeko gai den lurzoru antolatzeko aukera gisa beste bi eremu proposatzen dira, indarreko Arau Subsidiarioetan hala jasota daudenak: Kaminpe eta Gerra. Kaminpe bat dator udalerraren hegoaldean eta ADIFen trenbidearen ekialdean kokatutako Zumarragako industrialdearen jarraipeneko hiri-lurraekin eta Gerra, berriz, bat dator Plan Partzialaren xede izan ez den eta hirigunearen iparraldean kokatuta dagoen lurzoru urbanizagarriarekin. Lurzoruaren tamainak, baldintza topografikoek eta irisgarritasunak ez dute bideratzen aprobetxamendu esanguratsua. Proposamen horiek berresteko aukera balioetsiko da prozesuan.

II.3 planoan grafikoki jasota daude proposatutako alternatibak.



Ekimen horiek lurzoru- eta eraikigarritasun-eskaintza eragiten dute ekonomia-jarduera berrietarako eta, batik bat, industria-jardueretarako. Laburpen gisa jaso da taula honetan:

ALTERNATIBA	Ekonomia jardueretarako lurzoruaren azalera	Ekonomia-jarduera berrien eraikigarritasuna
Irimo	33.248 m <sup>2</sup>	35.685,70 m <sup>2</sup> (t) <sup>2</sup>
Kaminpe	32.603 m <sup>2</sup>	18.000 m <sup>2</sup> (t)
Gerra (indarreko Arau Subsidiarioak)	8.691 m <sup>2</sup>	5.000 m <sup>2</sup> (t)
GUZTIRA (gehienekoa)	74.542 m <sup>2</sup>	58.685,70 m <sup>2</sup> (t)

Proposamena Goierriko Lurraldearen Zatik Planera nahiz Ekonomia Jardueren arloan indarrean agoen Lurraldearen Arloko Planera egokitzen dela adierazten da. Plan horrek lehenatasunezkoztat jotzen du Urretxuko udalerria ekonomia-jarduerak kokatzeko.

Bestalde, Urola Garaiak kalifikazio bereko lurzoru gehiago duela gehitzen da. Horrek aukera ematen du eskaintza zabala izateko, Santa Luzia geltokia eta Zumarragako geltoki intermodala martxan jartzearen ondorioz sor daitekeena.

Aurreko epigrafean adierazi den bezala, erdiko hiriguneko hirugarren sektoreko erabilerak finkatzea ere proposatzen da, haiek inplementatzea eta indartzea ahalbidetuz. Hala, udalerraren erdiguneko hirugarren sektoreko ekonomia-jarduerak bideratzea proposatzen da, esaterako, merkataritzakoak eta ostalaritzakoak, bulegoak, hotelak... Horretarako, ondare eraikia eta garapen berrietan prestatzea planteatzen den lokalak daude. Hirigunea birkalifikatzea erakargarria izango da helburu hori lortzeko.

Planaren Aurrerakinak, lurzoru urbanizaezinerako formulatutako proposamenen arabera, lehen sektoreko jardueraren garapenerako aukerak arautzea ere aurreikusten du (nekazaritza eta abeltzaintza, basogintza, aisia, harrobia...), eta baita landa-inguruneari lotutako hirugarren sektoreko jarduerak ere (esaterako, landetxeak dagokien arloko legeriaren arabera).

<sup>2</sup>Katastrokodatuenerabera.

IV.6.5.- Espazio libreen antolamendua.

Diagnostikoak erakusten du Urretxuk espazio libreen zuzkidura mugatua duela.

Hala detektatu zuten indarreko Arau Subsidiarioek ere eta, horren ondorioz, xede horretarako lurzoru berriak kalifikatu zituzten. Hala ere, gehienak, lurzoru urbanizaezinean proposatu ziren, hiri-ingurunetik urrun, eta haien kudeaketa desjabetze-sistemari lotu zitzaion, oraindik desjabetzerik egin ez bada ere. Hori gertatu zen Sasieta meandroarekin eta Santa Barbara parkerako proposatutako handitzearekin. Hirigunean dagoen Matxinportarako aurreikusitako sistema orokorra lortzea ere ez da kudeatu.

Horregatik, ikusitako egoera horri oraindik erantzunik eman ez zaionez, Aurrerakin honek espazio libreen zuzkiduraren irtenbide alternatiboa proposatzen du.

Batetik, espazio libreen sistema orokorra definitu da, eta bertan txertatu dira udalerriko eta auzoetako espazio libre egituratzaile adierazgarrienak. Honako hauek dira:

- Iparragirre plaza .....	2.045 m <sup>2</sup>
- San Martin plaza .....	1.553 m <sup>2</sup>
- Bere garaian harresiak okupatutako Kalebarreneko espazioa .....	1.804 m <sup>2</sup>
- Gernikako Arbola plaza .....	1.277 m <sup>2</sup>
- Pagoeta parkea .....	9.276 m <sup>2</sup>
- Institutuko parkea .....	8.650 m <sup>2</sup>
- Urola ibaiaren ezkerrekoa (San Martin eta Garaialde azpierrekuak) .....	5.987 m <sup>2</sup>

Horiek guztiak sistema honetako beste elementu esanguratsu batekin osatzen dira, hain zuzen ere, lehendik dagoen Santa Barbara parkearekin: estrategikoki kokatuta dago, erabilera esanguratsua du eta 19.185 m<sup>2</sup> ditu.

Horrela, guztira 49.777 m<sup>2</sup> dituen espazio libreen sistema orokorra ateratzen da. grafikoki jasota dago II.5 planoan eta bere kudeaketaren ebaluazioa egingo da.

Aplikatu beharreko legeriaren arabera, sistema horrek gutxieneko azalera izan behar du. Honela kalkulatzen da:

- (6.746 biztanle, 2017ko abenduaren 31n) x 5 = .....	33.370 m <sup>2</sup>
- (500 bat etxebizitza berri) x (100 m <sup>2</sup> (t) / 25 m <sup>2</sup> (t)) x 5 = .....	10.000 m <sup>2</sup>
- Behar den gutxienekoa: 33.370 + 10.000 = .....	43.370 m <sup>2</sup>

Beraz, proposamena legez xedatutako gutxienera egokitzen da.

Nolanahi ere, dagoen egoeran, eskaintza kuantitatiboki garrantzitsua baino gehiago kalitateko eskaintza proposatzea da kontua, legez eskatu beharreko gutxieneko ratioei erantzuten diena. Asmo horrekin egin da proposamena.



Bestalde, Plana behin betiko formulatzen denean, espazio libreen sare lokala definituko du. Honako hauek dira sistema hori osatuko duten elementu edo lurzoru batzuk: Gurutze auzoko, Elizaldeko eta San Martingo tokiko espazio libreak, Zubimusu, Areitzaga, J. Mari Lasa, Madaya, Belaustegi, Eguzkia eta Domingo Mendaratz plazak, eta Lourdesko Andre Mariaren parrokiako ataurreak.

Hirigune osoan modu egokian banatuta dauden Altamira- Santa Barbara (Matxinporta ondoko “triangelua”), Gainzabal, Labeaga-Rodriguez, Labeaga-Urzelai, Gainzuri-komentua, Ipeñarrieta-Kamineroen etxea, Irimo, Kaminpe eta Gerra eremu eta azpierrezuetan aurreikusitako hiri-berroneratze eta -eraldaketa jarduketetatik sortzen diren espazio libreek osatuko dute sistema.

#### IV.6.6.- Ekipamenduen antolamendua.

Diagnostikotik ondorioztatzen den bezala, udalerrak tokiko ekipamenduen zuzkidura garrantzitsua du eta kultura-, gizarte- eta kirol-arloko askotariko jarduerak. Lehenik eta behin, jarduera horiek finkatu behar dira herritarrei eskaintzen dizkien zerbitzuak bermatzeko.

Zuzkidura hori modu bateratuan eskaintzen diete Urretxu eta Zumarragako udalerriek bietako herritarrei, eta zuzkidura finkatzea proposatzen da, Lizeoko ikastetxearen ezarpena barne.

Zuzkidura horien garrantzia nabarmentzearen, hobeto aprobetxatzearen, neurri batean berregituratzearen, hobetzearen edo handitzearen kalterik gabe, plangintza-aurrerakin honek proposamen gehigarriak formulatzen ditu beste partzela batzuen erabilgarritasuna eta edukitzaile berriak ahalbidetzeko zuzkidura-premia berriei erantzuna emateko, horietako batzuk oraindik aintzat hartu ez direnak.

Hala, beste batzuen artean, Altamira- Santa Barbara, Gainzuri-komentua eta Ipeñarrieta-Kamineroen etxea eremuetan antolamendu-alternatiba gisa planteatutako garapen berrietan, partzela edo ekipamendu-erakin berriak aurreikusten dira (Altamira baserria, eskola handitzeko edo beste erabilera batzuetarako partzela, eta kamineroen etxea, hurrenez hurren).

Partzela horiek ikusten diren premiei erantzungo diete, adinekoen zerbitzura dauden zentroen zuzkidura handitzeko aukerari buruz eta zuzkidura-ostatuari buruz diagnostikoan jasotako premiei barne.

Gainera, hilerria finkatu egingo da. Hilerria hiri-lurrean dago, hirigunearen iparraldeko industrialdeetatik hurbil.

Horrekin guztiarekin, egungo instalazioen aprobetxamendu hobeearekin batera (igerilekua eraberritzea eta beste batzuk), udalerriko ekipamenduen zuzkidura handitu ahal izango da herritarrei zerbitzu hobea emateko eta gizarte-, laguntza-, kultura- (ekimen publikokoak zein pribatukoak), irakaskuntza-, kirol- eta aisia-jardueren funtzionamendu ona bermatzeko.





#### IV.6.7.- Zerbitzu-azpiegituren antolamendua.

Diagnostikoan ez da eskari edo gabezia esanguratsurik aurkitu udalerrriak dituen zerbitzu-azpiegituren sareei dagokienez.

Barrendiolako presatik datorren altako saretik hornitzen den udal-sarearen bidez banatzen da edateko ura Urretxuko hirigunean. Hornidura GUKen eskumena da eta banaketaz Aquarbe arduratzen da. Pagoeta auzoan, 425 kotan kokatutako ERRATZU depositura iristen da ura. Depositua edukiera 1.600 m<sup>3</sup> da eta 36 orduko autonomia du udalerrriaren batez besteko kontsumorako (900-1000 m<sup>3</sup>/egun). Depositua udalerrri osoa hornitzen du. Gainera, ETXABURU depositu osagarri gisa erabiltzen da, kota altuagoan dagoelako, Mundo Mejor auzoa eta Institutua hornitzeko behar dena. ETXABURUko ur-biltegia ERRATZUkotik hornitzen da, Mundo Mejor auzoan kokatutako ponpaketaren bitartez. Ur-biltegi osagarriak 300 m<sup>3</sup>-ko edukiera du, eta 20 m<sup>3</sup>/d-ko eguneko kontsumoa. Halaber, erabiltzen ez diren edo oso gutxi erabiltzen diren beste hainbat depositu daude. Horien artean daude ZULOAGA, SANTA BARBARA eta IRIGOIEN izenekoak. Bi lehenak BEIBAKAR eta ITURRONDI harguneetatik hornitzen dira eta baserri gutxi batzuk hornitzen dituzte. Hirugarrena depositu nagusia zen ERRATZUKoa eraiki aurretik eta gaur egun ez da erabiltzen. Barrendiola datorren eta ERRATZU hornitzen duen hodia FD 200 mm-koa da. Depositutik abiatuta, banaketa-sarearen lehen zatiak FD 250 mm-ko hodia du eta gero FD 150 mm-ko bi adar nagusitan banatzen da, bata ibaian gora, Mugitegi eta Aparicio aldera eta bestea ibaian behera, hirigune aldera. Banaketa-sarea burdinurtu nodularrekoa edo dentsitate handiko polietilenoarekoa da. Lehengo zuntz-zementuzko, burdinurtuzko edo burdina galbanizatuzko zati guztiak berri dira. Sarean ez da hutsunerik nabaritu eta hodian eta biltegien edukiera nahikoa da edungo eskaerarako. Ez da handitzerik aurrekusi etorkizunerako. Hala ere, hirigintza-garapen berrietan hodiak FD edo PEADekoak izango dira. Halaber, sarean instalatuko den gutxieneko diametroa 100 mm-koa izango da, suteetako ur-harguneen zerbitzu egokia bermatzeko. Sareak mailadunak izango dira, eta ixteko giltzak izango dituzte, berritzeak, konponketak eta abar egin behar direnean eraginpeko eremuak mugatu ahal izateko. Pasoko giltzak burdinurtu nodularrekoak izango dira, estaldura elastomerikoarekin eta asentu elastikoarekin. Hidranteak, sute-ahokak eta gainerako elementuak udal-zerbitzu teknikoek onartuko dituzte.

Ur-hornidurari dagokionez, proposamena zehazten doan heinean, Gipuzkoako Ur Kontsortziari edo arlo horretan eskumena duen agintaritzari eskatuko zaio behar den txostena egiteko, proposatutako garapenerako nahikoa ur badagoela justifikatzen duena.

Urretxuko saneamendu-sarearen oinarritzko eskema honako elementu hauek osatzen dute:

- Hodi-biltzaile orokorra Urola ibaiaren ezkerrean kokatuta dago, eta Legazpiko udal-mugartearen mugatik Zumarragako udal-mugartearen mugaraino doan hirigune osoa zeharkatzen du. Hiri-arroako isurketak bildu eta Urola ibaiaren eskuin aldean, Zumarragako udal-mugartearen kokatutako araztegi eramatzen ditu. Hodi-biltzaileak ponpaketa-estazioa du ibaiaren eskuin aldean.
- Bigarren mailako adarrak. Hainbat puntutan txertatzen dira hodi-biltzaile orokorren. Garrantzitsuenak leku hauetatik datoz: Mugitegi Industrialdea, Pagoeta auzoa, Mundo Mejor auzoa, Nekolalde auzoa, Santa Barbara auzoa eta San Martin auzoa, denak Urola ibaiaren ezkerrean. Nekolalde, Santa Barbara eta San Martin adarrak aurreko gainezkabide baten bidez txertatzen dira hodi-biltzaile orokorren (Aitube, Pilotaleku eta Lorategi gainezkabideak).



Deskribatutako sare orokorrean udalerriko bide-sarean zehar dauden hodi-biltzaileak txertatzen dira. Hodi-biltzailera egiten diren txertatze asko unitarioak, neurri handiagoan edo txikiagoan. Ur beltzen sarera egiten diren euri-ekarpen nagusiak Santa Barbara Auzoan eta Iparragirre Auzoan sortzen diren adarretan pilatzen dira. Hodi-biltzailera eta horren bidez Zumarragako HUAra isurtzen diren emarien kontrola ekaitz-gainezkabideen bidez egiten da. Gainezkabideek Urola ibaira isurtzen dituzte finkatutako diluzio-balioa gainditzen duten emariak. Euri-uren sareari dagokionez, Mundo Mejor auzotik jaisten den hodi-biltzailea oso zaharra da eta hondatuta dago. Hainbat konponketa egin zaizkio dagoeneko. Gainera, Labeaga Kaleko 3 zenbakiko eraikinaren azpitik igarotzen da, eta ez da erraza desbideratzea. Bestalde, bere edukieraren muga dago.

Hori dela eta, saneamendu-sareak pixkanaka-pixkanaka berritu beharko diren zati zaharrak ditu. Mundo Mejor auzotik jaisten den euri-uren kolektoreea da arazo gehien sortzen dituen zatia. Beraz, hauek dira egin beharreko jarduketak: sarea pixkanaka-pixkanaka berritzea (euri-urak eta ur beltzak bananduz) hiriguneen birgaitzeari lotuta, eta beste egitura batzuk instalatzea eta hobetzea. Kanalizazio berriak bereiziaz izango dira, zenbait kasutan kolektore unitario batera isuriko duten arren. Hodi-biltzaile horretan jariatze-tangen bidez erregulatuko da emaria. Hodiek 30 cm-ko diametroa izan behar dute, gutxienez. Junturak kanpai-entxufe formakoak izango dira, estankotasun-uztaiarekin. Materiala, oro har, bibrazio bidez zentrifugatutako hormigoi armatuzkoa eta SN4 eta SN8 motako PVCzkoa izango da, baina hala gomendatzen den kasuetan burdinurdu nodularra, PEAD eta poliesterra erabili ahal izango dira. Kolektoreen elkarguneetan eta oinplano eta profileko norabide-aldaketako erpinetan hormigoi armatuzko kutxatila erregistragarriak eraikiko dira, gutxienez, 1,00 x 1,00 m-koak.

Energia elektrikoaren arloan, aipaturiko sarea osatzeko aukera balioetsiko da, eta baita baita eraldaketa-zentro berrien balizko premia ere. Halaber, gaur egun aireko lineatan doazen trazadura batzuk lurperatzeko aukera ere aztertuko da.

Berdin jokatu da gas-hornidurako sarearen inguruan.

Argiteria publikoari dagokionez, sare lokal efizienteagoa jartzen jarraituko da. Aurrerakin honetako informazio-planoetan I.4 plano sartu da, Informazio eta Diagnostikoko dokumentua egiteko orduan aurkeztu ez zena.

Telekomunikazio-arloan, azpiegiturak bateragarri eginda sinergiak bilatzeko ahalegina egingo da. Arlo berean esku hartuko da udalerrian antenak ezartzea arautzeko eta, bereziki, telefonia mugikorraren zerbitzurakoak. Aurrerakin honetako informazio-planoetan I.5 plano sartu da, Informazio eta Diagnostikoko dokumentua egiteko orduan aurkeztu ez zena.

Hondakin-bilketaren arloan, Deskarga inguruan lehendik dagoen garbigunea finkatu egingo da, udalerriko zerbitzu-azpiegituren sistema orokorra barne.



#### **IV.7.- Proiektua garatzeko eta egikaritzeko proposamenen aurrerakina**

Plan Orokorrak lurzoru-sailkapena zehaztuko du, hiri-lurreko eta lurzoru urbanizagarriko eremuak mugatzeko sistematika erabiliko du (ikus II.1 plano), behar diren azpieroak identifikatuko ditu eta, egiturazko antolamenduaz gain antolamendu xehakatu aurreikusten den haietan, lurzoruak kategorizatze baldintzak adieraziko dira.

Plan Orokorrak aplikatu beharreko hirigintza-araudia ere zehaztuko du. Horretarako, zona global eta xehakatuetak erabilerak eta tipologiak arautuko ditu. Eraikuntza-, jabari- eta erabilera-baldintzak, eraikigarritasuna zenbatzeko baldintzak eta sestra azpiko nahiz gaineko eta beheko solairuetako nahiz goiko solairuetako lerroak zehaztuko dira.

Proposamenak indarreko legeriaren arabera egikaritzeko, Plan Orokorraren proposamena zehazten denean, zuzkidurako jarduketa integratuak eta jarduketa isolatuak bereiziko dira, beste batzuen artean. Testuinguru horretan, besteak beste, antolamenduz kanpoko egoeran dauden edo antolamenduarekin bat ez datozen eraikinak identifikatuko dira.

Halaber, lurzoru urbanizaezinean garatu eta egikaritzeko arloan hartu beharreko soluzioak eta kudeaketa-baldintzak definituko dira.

Modu osagarrian, proposamenen bideragarritasuna justifikatu eta dagokion jarduketa-programa finkatuko da.

Nolanahi ere, proposamen horiek guztiak eta sor daitezkeen gainerakoak Aurrerakin hau izapidetzen denean eztabaidatuko dira Plan Orokorraren proposamena zehaztu aurretik.

#### **IV.8.- Ondarea babesteko proposamenen aurrerakina.**

Indarreko Arau Subsidiarioek udalerriko ondarearen Katalogoa dute, egiten ari diren lanen esparruan berrikusi behar dena.

Xede horretarako, udalerriko ondare-intereseko elementuak aztertu dira Katalogoan sartzea merezi duen ala ez balioesteko xedez eta horretarako kontuan hartu beharreko irizpideak finkatzeko aukera ere aztertu da, aplikatu beharreko legeriaren arabera eta, bereziki, 2015eko estatuko lurzoruari buruzko Legearen Testu Bategin berria kontuan hartuta.

Hala, kontsultatutako hainbat iturri kontuan izanda, Arau Subsidiarioetako Egungo Katalogoa barne, ondoren identifikatuko dira Plan Orokorreko Katalogoan sartzeko aurretik hautatutako elementuak, beste batzuk ere aztertzearen kalterik gabe eta hainbat kategoria bereiziz, daukaten babes-mailari edo sortzen duten interesari erreparatuta.

Halaber, grafikoki identifikatzen dira II.9 planoan.

Honako hauek dira:

A) Elementu eztabaidaezinak:

- Elementu kalifikatuak:

\* Iparragirre kaleko etxeak, 1964-2-29ko Aginduaren arabera Ondasun Higiezin izendatuak. Hauei buruz ari da: Gregorioenea etxea, Faktorekoa etxea, Udaletxea, Iparragirre 8 etxea, Iparragirre 10 etxea, Iparragirre 14 etxea, Iparragirre 24 etxea, Iparragirre 26 etxea eta Iparragirre 38 etxea.

\* San Martín de Tours eliza, 1984-3-31ko Dekretuaren arabera Ondasun Higiezin izendatua.

\* Ipeñarrieta jauregia, 1984-8-4ko Dekretuaren arabera Ondasun Higiezin izendatua.

- Inbentarioan jasotako elementuak:

\* Gune historikoko zona arkeologikoa, 1998-2-12ko Aginduaren arabera Euskal Kultura Ondarearen Inbentario Orokorrean Monumentu Multzokategoriarekin inskribatua.

- Ustezko arkeologia-eremuak:

\* Kultura, Gazteria eta Kirol Sailburuordeak 1997ko irailaren 11n emandako ebazpenak eragindako eremuak eta elementuak.

Gainera, ondoren zerrendatuko diren higiezinak eta elementuak 1990eko uztailaren 3ko Euskal Kultura Ondarearen Legean eta Ustezko Arkeologia Eremu izendatzeko urriaren 8ko 234/1996 Dekretuan xedatutako araubideari lotuta egongo dira.

- Eraikinaren hormaz barruko eremuari buruz:

- Agirre baserria
- Iturbe Goikoa baserria
- Iturbe-Bekoa baserria
- Beidakar baserria
- Mendizabal baserria
- Zabaleta jauregia
- Donardegi baserria
- Erratzu – Goikoa baserria
- Ipeñarrieta baserria
- Ipeñarrieta Txiki baserria
- Santa Kutz baserria
- Etxaburu baserria
- Irigon baserria
- Larrea baserria
- Areizaga baroien edo Baraikoa jauregia
- Bikariokoa etxea
- Faktorekoa etxea
- Corral-Ipeñarrieta jauregia/Udaletxea
- Galdosenea etxea
- Sagastitxipiko Santa Kutz edo Santo Kristoren ermita



- Elosegi baserria
- Gerra baserria
- Beain – Aurrekoa baserria
- Beain – Andikoa baserria
- Elosieta baserria
- Aitxu edo Ayesua baserria

- Eraikinaren hormez barruko eremua gehi 15 metro inguruan, kanpoko ertzetatik neurtuta:
  - Santa Barbara ermita

B) Udalak kontuan hartu beharreko elementuak:

- Elementu gehigarriak (lehen maila):

- \* Baroikua jauregia (Areitzaga).

- Elementu gehigarriak (bigarren maila):

- \* Deskarga Zahar baserria.
- \* Ipeñarrieta Txiki baserria.
- \* Zabaleta baserria.
- \* Genaro Berriochoa Hauspo eta Altzari Fabrika ohiko tximinia.
- \* Urola trenbidearen zubiak (4).
- \* Urola trenbidearen geltokia.
- \* Aitxu-Errota zubia.
- \* Santa Barbara ermita.

- Elementu gehigarriak (hirugarren maila):

- Sagastitxipiko Santa Kutz ermita.
- Iturbe Goikoa baserria.
- Agirre baserria.
- \* Aitxu burdinola eta errota.
- \* Urretxuko udal-hilerriko portalea.
- \* Leturiondoko zubia.

- Elementu gehigarriak (laugarren maila):

- \* Kamineroen etxea.
- \* Galtzada zaharraren zatiak (Altamira, Santa Barbara, Deskarga).
- \* Pasiotarren eliza.
- Gerra baserria.
- \* Erosidueta baserria.
- \* Beain baserria.
- \* Ertxolegi baserria.
- \* Iparragirrerren mausoleoa Urretxuko udal-hilerrian.

Inbentarioren batean aipatzen den “guruztokia”, gaur egun, Legazpiko udal-mugartean dagoela, hain zuzen ere, GI-632 errepidean sartzeko biribilgunean, eta Nicolás Ormazabal Likore Fabrika ohiaren txaleta gaur egun ez dagoela ere adierazten da. Bildutako udal-informazioaren arabera, inbentarioren batean aipatzen den Sarraldeko labe elektrikoa ere ez da existitzen.

Plan Orokor berriak bere Katalogoa izango du. Horretarako, kontuan hartuko da indarreko Arau Subsidiarioen Katalogoa, aplikazioko araudia berraztertzearen eta zehaztearen kalterik gabe, eta jasotzen den arloko informazioa egiaztatuz.

#### **IV.9.- Beste ikuspegi batzuk.**

Plangintzaren eta, ondorioz, Plan Orokor berriaren egitekoa hauxe izango da: ikuspegi anitz eta askotarikoetatik, behar diren ikuspegi guztietatik planteatzen diren ekimenak Urretxuko lurraldean txertatu eta koordinatuko dituen udal-proiektu bat ahalbidetzea.

Planak honako hauek hartuko ditu kontuan:

- Jarduketan jasangarritasuna.
- Udal-proiektuan ingurumen-ikuspegia txertatzea.
- Klima-aldaketaren arazoari eman beharreko erantzuna.
- Energia-eraginkortasuna.
- Ondare kultural, historiko, arkeologiko, arkitektoniko eta naturalaren gainean esku hartzeko baldintzen erregulazioa.
- Paisaia babestea.
- Zarataren arazoari eman beharreko erantzuna.
- Arriskuen prebentzioa.

Plan Orokorrak, beste batzuen artean, kontuan hartu beharko ditu ikuspegi hauek ere:

- Gizarteratzea.

Proposamenak kohesio soziala lortzeko soluzioak bideratuko ditu. Kontuan hartuko dira, bereziki, 2006ko ekainaren 30eko Lurzoru eta Hirigintzari buruzko Legean (2/2006 Legea) eta Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legean xedatutako zehaztapenak.



- Irisgarritasun unibertsala.

Hirigunea behar bezala egokitutako ibilbideez hornitzeko aukera aztertuko da. Testuinguru horretan, igogailu publikoak ezartzeko aukera aurreratu da. Arloan aplikatu beharreko legerian eta 2017ko Irisgarritasun Planean aurreikusitakoa bete beharko da.

- Genero-berdintasuna.

Egiten diren proposamenek berriaz erantzungo diote 2005eko otsailaren 18ko gizon eta emakumeen berdintasunerako Legean xedatutakoari.

- Osasuna.

Arloan aplikatu beharreko legerian xedatutakoa bete beharko da. Izan ere, hirigintza, funtsean, giza kokaguneetako osasunaren eta higienearen arazoari erantzuteko sortu zen.

- Balizko hizkuntza-eragina.

Egiten diren proposamenek berriaz erantzungo diote Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean xedatutakoari erantzungo diote.

- Nekazaritza-balio estrategiko handiko lurzoruei eraginez gero, nekazaritza-ebaluazioa.

Egiten diren proposamenek irailaren 16ko 177/2014 Dekretu bidez behin betiko onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basoak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planean xedatutakoari erantzungo diote.

Hori guztia behar den partaidetza-esparrua ahalbidetuz egin beharko da, aurreikusitako herritarren partaidetza-programaren arabera.

Halaber, kontuan hartuko dira kutsatuta egon litezkeen lurzoruak, horren arabera jokatzuz, eta aldatutako lurzoruak (Txakolin erreka inguruko lur-mugimenduak, Mendietako betelana, landa-lurzoruko giza kokaguneak, etab.).

Testuinguru horretan, HAPO egiten denean, dagokion ingurumen-ebaluazio estrategikoa ere harekin batera egingo da, arloan indarrean dagoen legeriaren arabera.

#### **IV.10.- Proposatutako esku-hartzeen programazio- eta bideragarritasun-irizpideak.**

Behin betiko dokumentua idazten denean, nahitaezko azterketa ekonomiko-finantzarioa eta jasagarritasun ekonomikoko jarduketa-programa eta memoria egingo dira, besteak beste, proposamenen bideragarritasuna justifikatzeko helburuarekin.

Dena den, Aurrerakin honetan azaldu dira kontu horren inguruko irizpide batzuk.

Ikusitako egoerak eskatzen du, udalaren gidaritzapean, ahalik eta lasterren bideratzea Irimo eremuaren birkalifikazioa eta, horrekin batera, hiri-hobekuntza eta eraldaketa orokor baten hasiera ahalbidetuko duen industria-lurzoruaren eskaintza ahalbidetzea.

Horregatik proposatzen da eremu horretako esku-hartzea lehentasunezkoa izatea, lehentasunezko beste ekintza batzuen kalterik gabe, esaterako, hiriguneko irisgarritasun unibertsaleko arloan arkitektura-oztopoak kentzea, zehaztu beharreko beste batzuen artean.

#### **IV.11- Aurrerakinaren edukiaren laburpena.**

Plangintza-aurrerakinaren dokumentu honek udalerrri osoa antolatzeko udal-proiekturako lehen hurbilketa bat egiten du. Aurrerakinak indarreko Arau Subsidiarioak berrikusi behar ditu eta zeregin horri heltzeko udal-ekimenari eta plangintza aplikazioko legeria berrira egokitzeko legezko aginduari erantzuten die.

Horretarako, Udalak aldeztu aurretik egindako lanetik abiatuta, egungo egoeraren diagnostikoa eta Urretxuko Plan Orokorrean zehaztu beharreko irizpideak, helburuak eta irtenbide orokorrak erabakitzeko eztabaida zabala bideratu behar duten askotariko antolamendu-alternatibak eskaintzen ditu.

Proposamena aplikazioko legeriaren eta udalak aldeztu aurretik onartutako Herritarren Partaidetza Programaren arabera izapidetuko da, eta jendaurrean jarri eta udalerrian zabaldu beharko da, egin beharreko iradokizunak biltzeko eta aztertzeko xedez.

Aurrerakina idaztearekin batera, bere ingurumen-ebaluazio estrategikoari ekin ahal izateko, "hasierako dokumentua" egin da, Ingurumen Organora bidali beharko dena organo horrek "erreferentziatzeko" edo "irismeneko dokumentua" egin dezan.

Formulatutako plangintza-aurrerakinaren helburu nagusia dagoen egoera berezian udalari behar duen proiektua emateko behar den urratsa egitea da, detektatu eta aipatutako arazoei soluzio zehatzekin erantzunez; horretarako, alderatu eta eztabaidatu beharreko alternatibak eskaintzen dira.

Proposatzen den guztiak "ingurumen-kalitatea hobetzeko" eta udalerraren "erakargarritasuna sendotzeko" eta, ondorioz, bizi-kalitatea hobetzeko ideiei erantzuten die.

Horretarako lurzorua badagoela ikusi da, bai ekonomia-jardueretarako eta bai sor litezkeen bizitegi- eta zuzkidura-garapen berrietarako. Gainera, hiriguneari txertatutako lurzoru artifizializatuak dira, berroneratzeko eta birkalifikatzeko prozesuak behar dituztenak. Horri gehitu behar zaio Urola Garaiak bokazio ekintzailea eta gizarte- eta elkarte-ehun aktiboa dituela.

Epe laburrera Santa Luzian Euskal Trenbide Sare Berriko geltoki bat martxan jartzea aurreikusteak eskaintzen duen aukera ere ikusi da. Hiru euskal hiriburuetako Eremu Funtzionalerako proiektatutakoez gain, Euskal Autonomia Erkidegoan aurreikusitako bakarra da.





Beraz, Plan Orokor berriari dagokio aukerak aprobetxatuko dituen eta enplegua sortu, eboluzio demografiko ez-erregresiboa eragin eta ingurumen- eta hiri-birkalifikazioa erraztuko duten inbertsioak bidera ditzakeen proiektu bat aurkeztuko duen bide-orria ezartzea, prozesua elikatuko duten sinergiak sortuz.

Proiektu bideragarria, partaidetzaduna eta ahalik eta adostasun handienekoa izateak aukera emango du etorkizuneko ziurgabetasunen aurrean gidoi bat izateko eta,aldi berean, udalaren lidergorako gaitasunaren eta borondatearen adierazgarri izango da, Plana egikaritzeko ere beharko dena.

Testuinguru horretan, Planaren epemugan demografia-ikuspegitik gerta daitekeenaren kalterik gabe, hiru hipotesi posible hartu dira kontuan:

- Lehena kontserbadorea da, eta populazioak behera egin dezakeela aurreikusten du, nahiz eta beherakada hori gutxienekoa izan, azken aldian izan den bezala.
- Bigarren hipotesiak aurreikusten du biztanleria hazi egingo dela hurrengo 8 urteetan, azken aldi luzeago batean egin duen bezala (2001-2016). Agertoki horrek 6.900 biztanletan utziko luke Urretxuko biztanle-kopurua 2026ko epemugan.
- Hirugarren hipotesiak aurreikusten du Urola Garaia gai dela bere industria-ehun zaharkitua eraldatzeko-prozesuari aurre egiteko lurzoru-erabilgarritasun horrek eskaintzen duen aukera eta ETSB martxan jartzen denean Santa Luziako geltokiarekiko izango lukeen kokapena aprobetxatuz. Agertoki horrek lekua birkalifikatzeko prozesua eragin eta erakarpen-ahalmena izan lezake eta, horren ondorioz, Urretxuk Planaren epemugan 7.000 biztanletik gora izatea eta guk hiri bizi eta erakargarria izatea ekar lezake.

Argi dago ziurgabetasun asko direla. Hala eta guztiz ere, Plan Orokor berriak aurre egin beharko dio erronkari eta argi dago deskribatutako bi azken agertokiek etorkizun hobea eskaintzen dutela, itxuraz.

Hala, panorama orokor horrekin, Aurrerakinak antolamenduko hainbat alternatiba proposatzen ditu. Laburtuta eta beste batzuen artean, kontuan hartu beharreko ekintza hauetan zehazten dira:

- Landa-ingurunea babestea eta haren garrantzia nabarmentzea, esku hartzeko baldintzak arautuz eta bertako berezko jarduerak sustatuz, haren aisia- eta kultura-erabilera sustatzen dutenak edo turismo jasangarria sustatzen dutenak barne. Santa Barbara parkea, Mendietako zabalguneari eman dakizkiokeen erabilerak, aurreikusitako bizikleta-trazadura berria eta Irimo mendiko oinezkoentzako ibilbide-sarea, lurralde horretan aurki daitezkeen mugarri berezietan barrena doana, horiek dira ildo horretan kontuan hartu beharreko aukeretako batzuk.
- Hirigunea ez handitzea, gaur egun okupatu gabe dauden lurzoru berriak artifizializatzea ekidinez eta behar direnak eraldatuz. Jardunbide horren adibideak dira Irimo, Kaminpe, Gainzabal, Altamira-Santa Barbara, Gainzuri-Komentua, eta Ipeñarrieta-Kamineroen etxea eremuetan proposatzen direnak, beste batzuen artean.

- Espazio libreen sistemaren antolamendua, bere kudeaketaren eraginkortasuna eta bere kalifikazioaren eta bere erabilera- eta ingurumen-baldintzen hobekuntza. Horren adibidea da espazio libreen sistema orokorrerako formulatutako alternatiba. Beste ekintza batzuen artean, Institutuaren aldameneko parkean begiratoki bat antolatzea aurreikusten da.
- Hiri-mugikortasuna berrantolatzea, oinezkoen aukera lehenetsiz. Horretarako, jarraipena emango zaie arkitektura-oztopoak ezabatzeko arloan egindako ekintzei. Horren adibideak dira Labeaga-Kalerrota eta Labeaga-Komentua eremuetan igogailu publikoak jartzeko eta Altamira-Santa Barbara eta Gainzabal-Pagoeta eremuetan hiri-bilbea osatzeko proposatutako alternatibak.
- Ibilgailuen hirigunerako sarbideak berrantolatzea. Horren adibidea da planteatutako hegoaldeko loturaren alternatiba.
- Ondare eraikia birgaitzea, zenbait kasutan ordeztearen kalterik gabe, hiri-berroneratzea ahalbidetuz eta, alternatiba egokiena den kasuetan, baita hiri-eraldaketa ere. Horren adibideak dira gune historikorako proposatzen diren proposamenak, oro har, hirigune osorako eta, bereziki, Aparicio, Mundo Mejor eta Santa Barbara eremuetan proposatzen direnak.
- Nagusiki bizitegi-erabilera den hirigunea berrantolatzea bizitegi-garapen berriak, hirugarren sektorekoak eta zuzkidurak planteatuz edo aurreikusitako beste batzuk finkatuz, ehun trinko eta mistoa sendotzen ahalbidetuz. Gurutze Auzoan, Altamira-Santa Barbaran, Barrenkalen, Elgean, Gainzabalen, Labeagan (Komentua, Rodriguez eta Urzelai) eta Ipeñarrietan (hainbat) proposatutako alternatiben kasua da, beste batzuen artean.
- Hirigunea berrantolatzea batik bat ekonomia-jardueretara zuzenduta, Irimon, Kaminpen eta Gerran industria-jarduera berrien garapenak planteatuz eta lehendik erabiltzen diren beste batzuk finkatuz.
- Prozesuaren ondorioz Plan Orokorrarekin batera egin beharreko Katalogoan sartzen den ondarea babestea.

Laburpen gisa iragarri diren proposamenek, Aurrerakin honetan jasota dauden gainerakoekin batera, izaera irekia eta ez-kanporatzailea dute eta horien edukiak Plana idazteko eta izapidetzeko prozesuan zehar osatu eta birdoitu daitezke udalak ezarri beharreko plangintzako irizpide, helburu eta soluzio orokorrak formulatzeko oinarri izateko xedez.

Proposamenak, bestalde, indarreko lurralde-antolamendura egokitzen dira eta, testuinguru horretan, Zumarragako udalerriko lurzoruekin bateragarri egiteko plan baten xede izan behar duen eremu bat (“16. HE Geltokia”) identifikatzea aurreikusten da.

Alternatiba horiek aukera honako hauekin hornitzen dute udalerrria:

- Espazio libre kalifikatuak dituen sistema, sistema orokorreko mailako ia 50.000 m<sup>2</sup>-rekin, legez eskatzen den gutxienekoa baino azalera handiagoa; tokiko espazio libre gehigarriak ere baditu hirigunean modu egokian banatuta.
- Ekipamendutarako partzela eta edukiontzi berriak: Altamira baserria, Gainzuriko komentua, eta Kamineroen etxea.
- Etxebizitza berrien zehaztu beharreko eskaintza. A priori, 400 etxebizitza inguruko kopurua planteatzen da, egungo aplikazioko lurralde-antolamenduak aurreikusitako gutxienekoaren eta gehienekoaren artean dagoena.
- Ekonomia-jarduerak ezartzeko lurzoru-eskaintza, Irimon batez ere industria-erabileretarako 35.000 m<sup>2</sup>(t) pabiloi martxan jartzea planteatzen duena, Kaminpe eta Gerra eremuak antolatzea eta hiriaren erdigunean txertatutako hirugarren sektoreko erabilerak ezartzea aurreikusteaz gain.
- Udalerrriaren azalaren % 90 hartzen duen landa-lurraldea, Irimo mendiaren gailurra buru duela. Irimo mendiaren oinetan igarotzen dira Mendiaratz erreka hegoaldean eta Urola ibaia ekialdean eta iparraldean.

Eta proposatzen den plangintza-aurrerakinaren arabera, hori guztia hirigunearen egungo azalera handitu gabe lortuko da.

Halaber, Aurrerakin honetan planteatzen diren neurriak bideragarriak direla adierazten da, bere garaian justifikatzearen kalterik gabe. Plan Orokorra behin betiko formulatzen denean zehaztu beharko dira haien bideragarritasuna bermatuko duten kudeaketa- eta egikaritze-baldintzak, behar diren inbertsio-konpromisoak eta programazioa ezarriz.

Behin eta berriz aipatzen da ahalik eta sinergia eta eraginkortasun handienak ahalbidetzeko eta proposamenak zehazteko orduan ahalik eta adostasun handienak lortzeko premia, udal-proiektua bideragarri egiteko eta eta beste administrazio publiko batzuen eta inbertsio pribatuaren inplikazioa errazteko behar den konfiantza eskaintzeko helburu berarekin.

Aztertze eta eztabaidatzeko formulatutako proposamenak behar bezala txertatuko dira udalak aldi berean sustatzen ari den prozesuetan: Agenda 21en Ekintza Plana, Irisgarritasun Plana eta Mugikortasun Plana.

**IV.12- Antolamenduaren ezaugarrien taula.**

IV.12.1.- Lurzoruaren sailkapena.

LURZORU-MOTA	AZALERA 2012ko Arau Subsidiarioen arabera (ha)	AZALERA ESTIMATUA AURRERAKINAREN ARABERA (ha)
LURZORU HIRITARRA- URBANIZAGARRIA	748.612 (% 9,94)	746.093 (% 9,91)
LURZORU URBANIZAEZINA	6.780.660 (% 90,06)	6.783.179 (% 90,09)
GUZTIRA	7.529.272 (% 100)	

ITURRIA: elaborazio propioa.

IV.12.2.- Espazio libreen sistema orokorrean kontuan hartu beharreko zuzkidura.

ESPAZIO LIBREEN SISTEMA OROKORRA	AZALERA (m <sup>2</sup> )
Legez eskatutako gutxienekoa	43.370
Proposamena	49.777


ITURRIA: elaborazio propioa.

Aurrerakin-proposamen hau aztertzeko eta eztabaidatzeko formulatu da Urretxuko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra zehazteko oinarria izan dadin.

Donostian, 2018ko apirilean



SANTIAGO PEÑALBA



CARMEN SEGUROLA



MANU ARRUABARRENA



MIKEL IRIONDO

**PLANOAK**



**AURKIBIDEA**

**Eskala**

**PLANOAK**

I.- INFORMAZIOA

I.1	Udal-mugartea. Mugapena, egungo egoera eta toponimia. ....	1:15.000
I.2	Indarreko plangintza orokorraren interpretazioa. Zonakatze orokorra. (2012ko HAPO eta ondoren onartutako aldaketa) .....	1:15.000 eta 1:10.000
I.3	Landaredia eta lurzorua erabilerak .....	1:15.000
I.4	Zerbitzu-azpiegiturak: argiteria publikoa .....	1:5.000
I.5	Zerbitzu-azpiegiturak: telekomunikazioak .....	1:5.000

II.- ANTOLAMENDU-ALTERNATIBAK

II.1	Hirigunea eta hirigintza-eremuak mugatzeko proposamena .....	1:5.000
II.2	Mugikortasun-arloko antolamendu-alternatibak .....	1:5.000 eta 1:3.000
II.3	Ekonomia-jardueretarako lurzorutarako proposatutako antolamendu-alternatibak	1:5.000
II.4	Bizitegitarako proposatutako antolamendu-alternatibak .....	1:5.000 eta 1:1.000
II.5	Espazio libreen zuzkiduraren antolamendu-alternatibak (ZO) .....	1:5.000
II.6	Lurzoru ez-urbanizagarriko zonakatze orokorreko proposamena .....	1:10.000
II.7	Baldintzatzaile Gainjarrien proposamena (1) .....	1:10.000
II.8	Baldintzatzaile Gainjarrien proposamena (2) .....	1:10.000
II.9	Ondarearen babesari buruzko proposamena .....	1:10.000 eta 1:2.000

